


## Euskal kultura 2003



ALBERTO BARANDIARAN  
 MIKEL BUJANDA  
 ANDOLIN EGUZKITZA  
 PANTXOA ETCHEGOIN  
 TERE IRASTORTZA  
 RITXI LIZARTZA  
 XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU  
 XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
 JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS  
 ALLANDE SOKARROS  
 ANDRES URRUTIA  
 JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

*Gaiak*

Europa: pertsonak eta herriak. Antropologian oinarritutako azterketa.  
 EUGENIO ARRAIZA

# JAKiN

*139*

azaroa  
abendua  
2003



*Aldizkari hau ARCEko kidea da*  
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)

---




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura  
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*

---



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



*Zenbaki honetan*

---

► 7

*Gai nagusia*

---

Euskal kultura 2003

ALBERTO BARANDIARAN ► 11

MIKEL BUJANDA

ANDOLIN EGUZKITZA

PANTXOA ETCHEGOIN

TERE IRASTORTZA

RITXI LIZARTZA

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS

ALLANDE SOKARROS

ANDRES URRUTIA

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

*Gaiak*

---

Europa: pertsonak eta herriak. Antropologian  
oinarritutako azterketa ► 77

EUGENIO ARRAIZA

© JAKIN

JAKINeko idazlanean inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)


---

2003ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X  
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

## Summary




### Basque Culture 2003

Twelve authors, professionals from the world of Basque culture, provide us with a critical commentary of the cultural events that have occurred in the year 2003. Nearly all of them—each one from their own point of view—make a reference to the event which has marked current cultural affairs this year: the closure of the daily newspaper *Euskaldunon Egunkaria* and attacks on the sector of Basque culture. Furthermore, Alberto Barandiaran also reflects on the circumstances surrounding the inauguration of the Museum and the House Workshop Jorge Oteiza; Mikel Bujanda focuses on criticism of cultural policy in Navarra and on the comparative analysis of two literary works; Andolin Eguzkitza criticizes the attitude of the church with regard to homosexuality; Pantxo Etchegoin brings us closer to cultural activity in the North Basque Country this year; Tere Irastortza, starting with the aforementioned events of this year, reflects on the individual and social scope of fear; Ritxi Lizartza assesses the cultural policy of the Basque Government; Xabier Mendiguren Bereziartu reminds us of the worrying data contained in the annual report by Behatokia (Watchdog of Linguistic Rights); Xabier Mendiguren Elizegi assesses literary production, both poetical and narrative; Juan Ignacio Perez Iglesias, Andre Urrutia and Josemari Velez de Mendizabal provide us with a personal diagnosis of the political-cultural situation existing in the Basque Country, by also considering possible strategies for reacting against the attacks received by Basque culture; and, finally, Allande Sokarros analyses cultural events in Zuberoa. ► *Various Authors*



### Europe: people and peoples. An analysis from the anthropological point of view

The writer Eugenio Arraiza provides us with a study—from the point of view of biological and social anthropology—of the cultural and political reality existing in Europe, by studying the following matters in depth: individual, social group and culture; identity of social group (town, nation, homeland); the difference between biological and cultural functioning (evolution, globalisation); adaptation of the social group to the new situation on the planet; cultural plurality; identity and difference in Europe. ► EUGENIO ARRAIZA



*e*skuetan duzun hau bigarren aldiko 139. zenbakia da eta 2003. urteko azkena.

Urteroko ohiturari jarraituz, urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzearekin gatoz azken zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean. Horretarako, urteko hiruzpalau gai hautatzea eta horiei buruz gogoeta eginenez artikulu arin eta freskoak egitea proposatu diegu hainbat idazleri. Hamabiren erantzuna jaso dugu. Mila esker, beraz, guztioi.

Iruzingile ia guztiek, bakoitzak bere ikuspuntutik, 2003ko euskal kulturaren esparrua astindu duen gertakari nagusiaz dihardute: euskal kulturgintzaren aurkako eraso (Euskaldunon Egunkaria-ren itxiera eta horren inguruko gertakariak, Martin Ugalde Kultur Parkearen aurkako operazioa...).


Gainera, Alberto Barandiaran kazetariak Jorge Oteiza museoaren eta tailer-etxearen inaugurazioaren inguruko gorabeherez ere egin du gogoeta; Mikel Bujanda Euskalerria Irratiko zuzendariak, Nafarroako Gobernuaren kultur politika aztertzeaz gain, *Larrepetit* eta *110. Street-eko geltokia* liburuen azterketa konparatiboa egin du; Andolin Eguzkitza idazle eta euskaltzainak Elizak homosexualitatearen aurrean duen jarrera kritikatu du; Pantxoa Etchegoin Euskal Kultur Erakundeko zuzendariak Ipar Euskal Herriko aurtengo hainbat kultur gertakizun aurkeztu dizkigu; Tere Irastortzak, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariak, aipatutako aurtengo gertakarietatik abiatuta, beldurraren

dimentsio indibidual eta sozialaz egin du hausnarketa; Ritxi Lizartza hizkuntz teknikariak Eusko Jaurlaritzaren kultur politikaren balorazioa eskaini digu, besteak beste; Xabier Mendiguren Bereziartuk, Kontseiluko idazkari nagusiak, Behatokiaren urteko txostenak dakarzkigun datu kezkarriak gogorarazi dizkigu; Xabier Mendiguren Elizegi idazle eta editoreak aurtengo literatur ekoizpenaren inguruko balorazioa osatu du; Allande Sokarros kazetariak Zuberoako euskalgintza eta kulturgintzaren inguruko gaietan jarri du arreta; eta, azkenik, Juan Ignacio Perez Iglesias irakasleak, Andres Urrutia notarioak eta Josemari Velez de Mendizabal Eusko Ikaskuntzako kudeatzaileak Euskal Herriko egoera politiko-kulturalaren azterketa pertsonala eskaini digute, gertatutako erasoei aurre egiteko bideen inguruan ere gogoeta eginez.

*Gaiak* sailean, bestaldetik, Eugenio Arraiza idalearen artikulua dator. Bertan, Europako errealitate kultural eta politikoa aztertzen du Arraizak, antropologia biologiko eta sozialaren ikuspuntutik abiatuta. Honako auzi eta kontzeptuak lantzen dira, besteak beste, artikuluan zehar: gizabanakoa, giza taldea eta kultura; giza talde identitarioa (herria, nazioa, aberria); funtzionamendu biologikoa eta kulturalaren arteko ezberdintasuna (eboluzioa, globalizazioa); giza taldea planetako egoera berrira egokitze bideak; aniztasun kulturala; identitatea eta ezberdintasunak Europan. ¶



# Euskal kultura 2003



ALBERTO BARANDIARAN ▶ MIKEL BUJANDA  
ANDOLIN EGUZKITZA ▶ PANTXOA ETCHEGOIN  
▶ TERE IRASTORTZA ▶ RITXI LIZARTZA  
XABIER MENDIGUREN B. ▶ XABIER MENDIGUREN E.  
▶ JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS ▶ ALLANDE SOKARROS  
▶ ANDRES URRUTIA ▶ JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL ▶ *11*



## Alberto Barandiaran

### Giltzarrapoa buruan

Urte «horriblea» izan dela irakurri diot Gorka Ameseri, eta ez zait bururatzen, benetan, beste izenik. Tira, batzuk bai —luzea, gogorra, trinkoa, gorabeheratsua, agigarria, erabakigarria...—, baina ez Gorkaren hori bezain adierazgarria. Eta oraindik ez da bukatu!

*Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera barrutik bizi izan dugunok, Martin Ugalde Kultur Parkearen egoitza ixten duen giltzarrapoa buruan daramagu, halako kate puska, dilin-dalan egiten duena mugitzen garen bakoitzean.

Ez da zaila azaltzea. Nik uste dut berdin sentituko zirela asko, baldin eta egun batean etxea arras hutsik aurkituko balute. Deus ez. Paretak baino ez. Berdin pintore bat, pintatzen hasi zenetik gorde zituen artelan guztiak hondatuko balizkiote. Berdin artisau bat, lanabesak —tartean ofizioa erakutsi zion agureak oparitutako mailua— txikituta topatuko balitu goiz batez, horrela, tupustean. Txikituta, eta zartatuta.

Euskarari, eta euskal kulturari egindako kaltea azpimarratu da hainbat eta hainbat aldiz. Erasoa izan da hitz errepikatuenena. Ni, hemen, nerekoizango naiz: langileoi egin zaiguna nabarmendu nahi dut. Atxagak aipatu zuen Joan Mari Torrealdairen irudiaren garrantzia, guardia zibilen artean, urrats txikitan eta ia arrastraka, bere etxetik Madrilerako bidea hartuko zuen autora eraman zutenean. Ni, Martxeloren irudiarekin gelditu naiz. Espetxetik atera, negarrez. Madrildik itzuli ondoren egoitzari —giltzarrapolari— ostikoa ematen. Gelditu naiz bere begiradarekin.

Gelditu naiz lankideen keinuekin, operazioa oraindik zabalik zela jada dena antolatzen, lehen *Egunero* kalera ateratzeko. Gelditu naiz ordezkarietzako erregistroak jasan behar izan zituztenen gogoetekin, bakarrik, dozena bat polizia inguruan begi zirrikituetatik zaintzen, lankideen agen-

dak eta urteetako lana nola altxatzen zuten lekuko. Gelditu naiz besarkadekin, gelditu naiz itxieraz geroztik gure atean e re sortu diren bikoteekin, izan diren maitasun gauekin.

Eta oraindik ez da bukatu.

Ni, aukeratzekotan, langile haren eskaintzarekin geldituko nintzateke, polizia operazioaren hurrengo eguneko kontzentrazioan, berak Mac bat zuela eta hurbildu zitzaigunean. Ez dirurik, ez elkartasun mezurik, ez borrokarako deirik: berak bazuela Mac zahar bat. Hartzeko.

Geldituko naiz, betiko, gau zoro batekin, dena galduta ikusi genueneko. Geldituko naiz lagunena laguntzarekin. Geldituko naiz atzerriko deiekin, galderekin, interesarekin.

Geldituko naiz bi akzio inoiz irakurriko ez duen egunkariaren alde erosi zuen Mallorcako drogazale taldearen eskuzabaltasunarekin. Bi akzio: haietako bati botikak edo zigarroak urtebetez erosteko dirua bai. Bi akzio: bigarren etxea kostatik gertu erosi duten funtzionario askok hartu zutena baino gehiago.

Geldituko naiz Zaragozako anarkisten amorruekin, Santiagoko gazte abertzaleen gaztetasunarekin.

Egunkari berria kalean da, eta sendo gainera. Badago sentsazioa horrelakoetan aurrera egiten ohi dela, produkzio betean jartzen dela jendea, eta halako saltoa emateko balio izaten ohi duela inarrosaldiak. Uste dut gure kultur mundu txikiak ere edan duela aurtengo gertaeretatik. Entzun dira mezuak. Ruperrek eta Natxo de Felipek onartu dute ateratako disko berriek asko dutela amorru horretatik. Gertatu dena gertatu ez balitz, ez zituztela atera dituzten lan horiek aterako.

Baina ni gelditzen naiz Martin Ugalde Kultur Parkean dagoen giltzarapoarekin. Iñaki Uriari gure artean itzultzea galarazten dionarekin. Horiek biak zartatu arte ez gara gure onera itzuliko.

## **Ezta garaipen bat ere zaharrarentzat**

Aurtengo beste irudi bat: Jorge Oteizaren museoaren inaugurazioarena. Kasualitate hutsa izango da noski, baina harrigarria nolanahi ere: bera hil eta hilabeteetara za-

baldu dira bai museoa bera, bai tailer-etxea. Ez lehenago, eta ez beranduago. Ezta garaipen bat ere zaharrarentzat.

Hori baino garrantzitsuagoa da, ordea, eta ekitaldi arrandiosoen izaera eman arren, bietan falta izan zirela artistaren izaera orotarikoa errebindikatzen dutenak. Falta izan ziren bere artearengandik hurbilen zeudenak.

Museoa ofizialki zabaldu zen egunean, Iruñean aurkeztu zen Oteizaren Adiskideak elkarte. Hor zeuden lagunak, jarraitzaileak, miresleak. Kultur eragileak ziren, oro har. Izen oso ezagunak euskal artearen munduan. Altzuzan politikariak gelditu ziren.

Urriaren amaieran, tailer-etxea ireki zutenean, hara-tago joan ziren arduradunak. Irekiera ofiziala Espainiako Elena Borboikoak egin zuen, senarrarekin. Beste garaietako kiratsa izan zuen inaugurazioak, goitik behera, eta no-rekin eta Oteiza intimoenarekin. Oteizaren izena lehen aldiz entzungo zuten erret etxeko bi pertsonaiek ikusi ahal izan zuten, beraietzat propio prestaturiko bisitaren barruan, artistaren tailer berritua, bere liburutegi apailatua. Bulegoa, utzi zuen bezala. Itziarri dedikatutako poema, eta bien logela. Udako arratsaldeetako makala.

Ezagutu nuen etxe hori askoz lehenago. Hango isiltasun, soiltasun eta pareta bakoitzari zerion historiarekin txoratuta gelditu nintzen. Erraz irudikatu ahal nuen bikotea, elkarri begira, eguzkia Etxauriko mendizerran ezkutatzen zenean. Irudika nitzakeen biak ohe oteizazale horretan lo. Itziar, kexu, Jorgek hamabosgarren aldiz piztu duenean argia, buruan duen ideia hori apuntatzeko. Irudika dezaket biza zuria goizeko seietan bere bulegoan eserita, lanean. Tarteka, inguruko zelaiak zuriz pintatu dituen lantxurdari begira. «Udaberri honetan», dio ohe ondoan utzi duten ohar txiki batek, «kasu egingo dizut. Jorgek, Itziarrentzat».

Borboikoen bisita, niretzat, profanazio bat bezalakoa izan zen.

## **Eta historia ez da ahazten**

Lizarrako Gumersindoren memoria liburuaren argitalpena urteko notizietako bat izan da. Nahiz isilpean igaro den.

Zaragozako kuartel militarrean, hiru urtez, presoei airtortza hartzen egon zen kaputxino nafarraren testigantza 36ko gerrari buruz idatzi diren lazgarrietakoa da dudarik gabe. Kasu honetan, gainera, liburuan kontatzen dena ez ezik, liburuarekin gertatu dena oso adierazgarria da. Oso adierazgarria, frogatzen duelako oraindik ez dela posible askok aldarrikatzen duten isiltasuna. Ez dela posible ahaztea, orria pasatzea.

Gumersindo Zubeldia familiakoa zen. Familia euskaltzalea, eta, seme-alabei gagozkiolarik bederen, jeltzalea. Nestor Zubeldia teologian doktore izan zen Iruñean, eta Nafarroa osoan ezaguna, eta estimatua. Emiliana, berriz, emakume ausarta eta, gauza askotan, aitzindaria, eta piano jole famatua, gehiago New Yorken eta Mexikon bere herrian baino. Gumersindo Iruñeko kaputxinoen komentuan zegoen gerra piztu zenean. Oso kritikiko izan zen, hasieratik, faxistek erabilitako bortizkeriarekin, eta ezinegon horrek arazoak ekarri zizkion kaputxinoen nagusiekin. Azkenean, Zaragozara bidali zuten, beste kaputxino kritikiko askorekin egin zuten bezala. Han, kuartel militarrean, hirurehun preso baino gehiago artatu zituen azken orduetan, fusilatu aurreko uneetan, eta den-dena bildu zuen bere koadernora. Ondorioa gerra ren krudeltasunaren eta zentzugabekeriaren adibide argia da: jende asko eta asko inbidiagatik, gorrotoagatik, ezinikusienagatik hil zen. Hil zuten. Frogarik gabe askotan, lekukotasun bakar batekin askotan, jende askok bizia galdu zuen horman.

Liburu lazgarria da. Apaizak xehetasun gogo batere xalo ez dena darabil detaile guztiak kontatzeko, tiroak jaso ondoko azkenak barne. Batzuetan makabro irudi lezakeen arren, nago Gumersindok heriotza gupidagabearen gordintasun guztia utzi nahi izan zuela idatzita, apaingarririk gabe. Erakusteko.

Liburua gordeta izan zuen urteetan, baita Ameriketara egon zen garaietan ere. Hil hurren, kaputxino lagunari eman zion, agindu birekin: argitaratzeko, eta kaputxinoen nagusien esku inoiz ez uzteko. Egon ziren saiakerak liburua argitaratzeko, tartean Txalapartarena, baina azkenean zapuztu eta kaputxinoek beraiek atera dute orain, Zaragozan.

Gai batek ez nau bakean uzten. Lekukotasun asko eta asko ezezagunak dira egun bizirik dauden senideentzat. Gumersindoren berri izan ez zuten bezala, liburuaren berri ere ez dute. Are gehiago: aita, ama, anaia, osaba zenaren berri galdu zuten askok, hura atxilo eraman edo borrokatzera abiatu zenean. Desagertutzat daukate ia. Eta liburuan ageri dira, xehetasun guztiz, haien azken orduak. Tartean badaude euskaldunak ere. Lekukotasun ikaragarrienak beraienak direla esango nuke.

Iruditzen zait ez dela historia beltz horren orria sekula pasatuko, senide bakoitzak desagertutako bakoitzaren azken ordu horiek nola izan ziren jakin arte. Nik, gutxienez, ezingo nuke pasatu.

## **Soinujolearen ordua**

**S**oinujole maitagarri gisa heldu zaigu Bernardo Atxaga bere azken lanarekin. Lau urteko emaitza: ez da makala.

Iruditzen zait Atxaga dela benetan herri honetako idazle bakarra. Galdetuko baliote: «lanbidea?», «Idazlea» erantzungo lukeen bakarra. Eta ez jarreragatik bakarrik. Atxaga da unibertsoa osatzen duenetakoa. Bere bizitza idaztearen inguruan eraikitzen duenetakoa, eta ahalegin guztiak horretara jartzen.

Nago urduri dagoela liburuarekin. Inpresioa da, noski. Baina mezua ere ausarta izan da: aurreko liburu guztiak sartu nahi izan dituela honen barruan, hemendik aurrera ezin duela bide beretik jo, Bernardo Atxaga bera bukatu ote den, Joseba Irazuren garaia hasten ote den aurretzean... Aurkezpena ere ez da txikia izan. Jose Angel Irigaraiak konparatu zuen *Soinujolearen semea* literatura handiek mugarri dituzten liburuetakoa batekin.

Liburua, behintzat, zoragarria da. ¶



## Mikel Bujanda

### **Kultura. Turismoa**

Denbora tarte txikian, hilabete laburrekoan, gertatu da. Nafar agintariak Kulturaz mintzatzean zertaz ari diren agerian uzteko programatua dirudi. Itoitz inguruko herris-kak (Artozki, Muniain, Nagore, Ezkai, Itoitz bera) suntsitu, xehetu, ezereztu dituzte. Ez dute harririk harri gainean utzi. Eliza, jauregi, zubi, dena txikitu dute. Mendeetan eraikia hautsi eta eraitsi.

Hori eginik, *Baluarte* eraikin enblematikoa inauguratu dute, Iruñeko Kongresuen Jauregi eta Auditorioa. Egitasmo kutuna gauzatua, distira. Ponpa eta hots handiz.

Errituala izan da: Kultura modernoaren tenpluak herri eta harri zaharren suntsiketa behar zuen.

*Antzinako denboretako oroigarrik* ez dagoela idatzi zen aspaldi. Ez zuen arrazoirik orduan. Arrazoi eman nahi baliote bezala jokutzen ari dira Nafarroako agintariak. Nahiago halakorik ez balego. Traba dira, ez du interesik. Bada bestelako lehentasunik. Kontserbatu, zaharberitu, hori diru-xahutzea litzateke. Ez da produktiboa. Edo, oroimen historikoa arrisku iturri izan daitekeela dirudi.

Aurreko urtean, Gaztelu plazaren lurpeko ondarea zakarretara bota zuten moduan, bandalismo kultural ofizialaren segida ezagutu dugu aurten, beti progresoaren izenean. Historiaren lekuko zitekeena, autoen gordailu; Itoitz inguruan, pantanoogatik. (Ez zuten egin beharrik ere. Urpean egon zitezkeen. Gain errepresentazioa izan da, enfatizatu beharra, inor oharkabean geldu ez dadin zenbateraino diren suntsitzaile.) Lizarrarako autobidean, aztarnategi batzuk agertu dira. Burdin arokoa bat, Brontze arokoa bestea. Erromatarren denboretakoak. Zer izan da horietaz? Bazter ohar txiki batzuk prentsan. Erresistent-

ziarik gabe desegin dituzte. Hondeagailu, induskailu, zapalgailuen erreinua da.

Ez da kasualitatea Nafarroako Gobernuaren antolaketan administratibo berrituan, Kultura eta Turismoa biak loturik Departamentu berean bildu izana. Bi kontzeptuen fusioari *Kulturismoa* esaten diote batzuek.

Kultura Turismoaren zerbitzura, gastronomia eta ostalaritzaren pare, Garapen Ekonomikoaren azpisektore. Amaitu dira kultura berezko balio goren zela zioten erretolirik. Eskertu behar al diegu horren zinezko izatea, disimuluan ibili gabe pentsatu bezala gauzak esatea?

Beharbada beste edonongo agintariak gustuz eginen luketela hori bera; baina ez dira ausartzen, zuzentasun politikotik ateratzea litzateke. Kolkorako gordeta dute. Hemen ez dago konplexurik ez, gauzei bere izena emateko lotsa galdua dago. Nafar izaeraren erakusgarri. *Singularitatea* esaten zaion hori.

Halakoetan zilegi da galdetzea zer gertatuko litzatekeen Nafarroakoak ez, baizik eta Kultura eta Turismoa lotu dituen Administrazioa beste bat balitz, euskal nazionalismoa agintean duena. Zalaparta sortuko lukete kazetari, politikari, tertuliano eta erregimeneko intelektual konspikuoek.

Hemengoek Bula dute. Egiten dutena eginda ere, dena barkatua. Hori ere *singularitatea* da.

*Hemen jendeak ez du atzera begiratzen.* Egia ote da? Ez beti. Asmo handiak dauzkate historiari buruz. Antso Handia erregearen milurtekoak handikiro ospatuko dituzte, Tuteran! Nahiz eta Antso Iruñeko errege kristau zen garaian, Tuteran islamaren lurralde izan. Gezur historikoa da. Baina zehaztapenak gogaikarriak dira, doikeria deserosoa. Balio duena ez da egia, baizik eta historiak emandakoa egungo estatus politiko instituzionalaren eustarriak sendotzeko erabili ahal izatea. Historia, manipulazio ideologikoaren jostailu. Pertsonalitate historikoen instrumentalizazioa (bide batez, prestatzen hasi 2006an Xabier Frantzisko santuaren bosgarren mendeurrenerako). Beraz, historiaz jabetu, patrimonializatu, baliatu. Helburu nagusia, identitate propioa, beti UPNren araberakoa, hemen eta mundu zabalean sustatzea da, *singularitatea*. Gubernuko



Komunikazio Saileko arduradun Alberto Catalanek —Correllakoa hau ere— jakitera eman du: Kultura eta Turismo Sailarekin *sintonian* ari da lanean, Nafarroaren irudia gure mugetatik kanpo ezagutua izan dadin, bere singularitateetan. Bestela esanda, kontrol eta propaganda ideologikoa kulturgintzaren tresna instituitu du Gobernuak.

Kultura eta Turismoa, bere deitura lotsagabekoarekin ere, maskara da, estalkia. Barruan propaganda aparatua-  
ren kiratsa sumatzen da. Gaitz erdi litzateke Kultura ekonomia-  
ren zerbitzura jartzea. Proiektu ideologizatu sekta-  
rioaren tresna da. Kultura, Idearioaren zerbitzura. Totali-  
tarismoaren antza du horrek.

2003, *Baluartea* zabaldu zen urtea; horrela gogoratu nahi lukete Anuarioetan. Baina nago horrek baino hobeki sintetizatzen duela Nafarroako Kulturak aurten emandakoa Arazuri doktorearen monumentuak. Iruñeko historia-  
lari kronista hori ohoratzeke, goreseteko, giza-irudi bat eraiki dute; ez oso gora. Karikatura egin diote gaixoari. Berez ez zen gizon tamainaz handia, baina hortik ipotx  
ñaño bihurtzera bada puska.

Ezer ez dago Arazuri jaunaren aurka. Ez bada, hiri honen historian, merezimenduen araberako hurrenkeran, balegokeela sorta bat bere aurretik. Erregimenerako eroso-  
a. Brontzezko irudi errealista, ttiki, itsusi egin diote. Gainera, egile eta eragileek horrela nahi ez bazuten ere, interaktibo bihurtu da, betaurrekoak jarri-kendu jolasean. Ondorioz, eskuan duen liburuari begirada miopea ematen ikusten dugu; bistan da horrela irakurtzerik ez duela, itxura besterik ez duela egiten.

Baluarde harroa bera baino sinbolikoagoa da Arazuri bere oinarri apalean, pairatzen dugun politika kulturala-  
ren ikurra. Karikatura.

### **Larrepetit eta 110. Street-eko geltokia**

Gutxitan gertatzen da Literatura gertakari sozial bihurtzea. Liburuaren lehen edizioaren aurkezpen saioa izaten da albiste. Edo urtean behingo Azoka. Hortik gora oso

noiz edo noiz bakanduetan. Ez ohikoaren mailako bi albiste literario —denbora tarte laburrean— eman digu 2003ko udazkenak.

Pello Lizarralderen *Larrepetit* 2002an argitaratuak, Kritikaren saria hartu zuen lehenik, Euskadi Saria orain. Adituek emaniko aitorten eta errekonozimenduak. Sortzaileak eskatu gabeko sariak, kalitatearenak.

Aste gutxi batzuk lehenago, jakin genuen Iñaki Zabaletaren *110. Street-eko geltokia* nobela 28garren aldiz berreditu dutela. Idatzi zuen garaian, duela hogeitau urte, Azkue Lehiaketara aurkeztua. Ez saritua. Urteotan zehar irakurleen eta merkatuaren saria irabazia du. Euskaraz sorturiko salduena. Marka hori *Kutsidazu*-k kendu ez badio behintzat. Eleberriaren arrakasta soziala da. Kantitatearen saria.

*Antipodetan* dauden narrazioak dira, nonahitik begiratuta ere, bata bestetik urrun mami eta azalean, kokapen, planteamendu, teknika, helburu eta emaitzan.

Agerikoenetik hasita, giro urbanoa da Zabaletaren gertalekua, mendebaleko metropolien antonomasia, New York.

Hiririk ez, ez handi ez txiki, Lizarralderenean; ez herriarik, apenas mendiarteko auzo ia galdua, eta batez ere mendia, oihana. Naturaren domeinua.

Jendarte ugaria da batean bizi giroa, urruti exotikoa, baina zehazki identifikatua. Bestean, bakardade fisikoa, geografian hurbil, gure lurretako paisaian, baina gertutasuna paraje zehaztugabekoetan lausoturik.

Bien alderaketak argazkiaren positibatu-negatiboaren arteko simetria erakusten du. Izan liteke kointzidentzia hutsa, sortzaileen ikuskera literario dibergenteen emaitza, edo langai berarekin zeinen urrun irits daitekeen frogatu nahia. Irakurketa konparatua egiteko mentura, posibilitate bat.

*Bi bidean*. Narrazioak itinerantzian emanak daude. Bi bidean doaz. Bietan. Abel eta Joxe *Larrepetit*-en. Joseba eta Angie *Geltokia*-n.

Honetara etorrita, adierazia dago izenen kidetasuna, Joxe eta Joseba. Biak dira iheslari.

Gertaera dramatikoek erabakiko dute akabera. Tresna akabatzailea bietan bera da.

Denboraren joana, lineala da bietan. Hasitako puntuan hartu, jarrai eta segida batean bukatu arte. Linealitatea ia erabatekoa Pellorenean; noizbehinkako *excursus* batzuk tartekatu ditu Iñakik. Abiapuntua bietan aratsa da; ilunabarra batean, gau iluna bestean.

Denbora tartea, laburra: hiru gauetan eta hirugarrenaren biharamunean ikusi ditugu Abel eta Joxeren ibiliak. Aldi luzeskoagoan New Yorkekoan. Hilabete gehienez ere, eta tartean, hamar egunetako jautzia, errelatutik kanpo utziak.

Noizko gertaerak diren, gutxi gorabehera garaikide: Lizarralderenean, testuan zehar emandako datuetatik atara daitekeenez (automobilen markak, zinema artisten erreferentziak...), 1965 ingurua da. Betiere telebistak bazter zoko guztiak inbaditu aurreko garaia. Zabaletaren kontakizuna urte gutxi batzuk beranduagokoa, 1973 espreski ageri da une batean.

Noiz izatea, *Larrepetit*-en, modernitateak oraino hautsi gabeko bizimodu bakartua erabakigarria da.

Bietan bada hirugarren beharrezkoa: Lainez bidaiantza *Larrepit*en. 110. *Street-eko geltokia*-n erabakitzailerik da Catherine anderea.

Osagai gutxirekin antolaturiko tramak dira. Ez dago azaleko konplexutasun argumentalik.

Narrazioa garatzeko eskema parekoa da: Abel eta Joxeren sekuentzia baten ondotik, bestelakoa dator (ia beti Lainez), berriro Abel eta Joxe, horrela txandaz txanda (1.A, 1.B; 2.A, 2.B..., bederatzi aldiz errepikatzen den hurrenkeran).

Puskaz puska, atal baten protagonismoa Josebarena da, hurrengo Angierena, txanda batak besteari emanez antolatua du kontaketa Zabaletak.

Paralelismoen jokoaren segida eman lezake testuetatik kanpoko informazioak. Idazleen biografiatik jakina dugu narrazioetako giro eta jendeez ezaguera egin dutela bi-biek. Pello herriska txikiko eskola maisu izana da; Iñaki Amerikak bere gisara egitera joana.

Bizi izandako esperientzian ikasia, horren behaketa zorrotza funtsezko hornigai izan du nork bere eleberrian.

*Lehengaiak berberak, tratamendua bestelakoa.* Lehengaiak berberak izanik, horien konbinazioa, tratamendua eta funtzioa arras desberdinak dira, alderantzizkoak, kontrajarriak.

*Mugimenduan* dabilta bi bikoteak. Joan-etorri lasterreetan metro eta autobusetan, ziztuan, azeleraturik hirian, beti aterpe eta ohe goxora itzuliz. Goizean goiz berriro helduko diote ibilerari.

Ibilian, besteak ere, hauek zango nekatuen gainean, puntu batetik hasi eta handik beti urrunduz, atzera egin gabe, ustez. Gaua emateko zer topa, hantxe kuxkurturik. Goiztar ibili beharra dute horiek ere.

*Norabide* dibergenteak dira. Hasieratik elkarren ondoan doaz Joxe eta Abel, ihesi; halabeharrak bildu ditu, biderik gabeko ibilera neketsuan noraezean nahiz baduten jomuga, frontera difusoa. Ez dira bereiziko amaitu artean.

Joseba eta Angie aldiz, nor bere lekutik abiatu dira, elkarganatzea dute jomuga. Elkarren bila doaz, inoiz topo eginen ote duten da intrigaren lerroa. Saialdi batzuek huts egin ondotik doi-doi lortuko dute aurrez aurre biltzea.

*Ihesak* eraman du Joseba metropolira. Han kokatzeko justifikazioa da. Gero bere jokaeraren baldintzatzaile. Baina gertaerak beste batzuk dira. *Larrepetit*-en ihesaldia bera da gertaera.

*Botere harremana*: nagusi-morroi harremanak errebel-dia ekarri du eta honek Abelen ihesa. Testua aurreratua dagoenean jakinen dugu hori, hitz-erdika adierazia. Baina gertaeren abiatzaile da.

Nagusi-menpeko lotura xantaia da New Yorken. Narrazioan esplizitatua dago, begien aurrean garatzen da. Tramaren bi lerro nagusietako baten abiatzaile da.

*Komunikazioa*, protagonistetako baten lanbidea izateaz gainera, ardatz agerikoa da *110. Street-eko geltokia*-n. Komunikatu nahi, eta ezin; oztopoak gainditzeko ahaleginean dabilta Joseba eta Angie. Alderantziz, Abel eta Joxe ihes-

lariak behartuta daude komunikatzera, nahi ez badute ere.

Joseba eta Angie hitz jariokoak dira, berritsu, harremanetarako erraztasuna duen jende atsegina. Elkarrizketa luzeskoetan tratatzen dira. Badute konfidentziak nori egin.

Hitzetan labur dira Joxe eta Abel. Denbora gehienez isil, ia mutu. Galderei galdera motzekin erantzuten diete, uzkur. Hitzez esatekorik gutxi. Begiradak, keinuak, hotsak dituzte komunikatzeko era.

Entitateko gaia, agian gai nagusia, da bi eleberrietan komunikazioarena. Erabat dibergentea ikuspuntu guztietatik.

*Hirugarren* pertsonaiaren zeregina aurkia eta kinberra dira. Bat hasieratik da akzioaren eragile; bestea ez. Biak amaieraren erabakitzaile dira, baina norabide kontra-jarrarian jokatu.

Bietan agertzen da paketeen *garraio* klandestino. Funtzio desberdinekin eta zer eta zertarako garraioa den testuan aditzera emana batean; enigmatikoa bestean.

Edo nolabaiteko *mestizajea*; larruazal ilunekoak badi-ra. Bestelako kultura eta jakintzak. Maila diferenteko agerpenak dira: kategoria da batean; bestean anekdota.

Iñaki Zabaletaren testua gardena da. Dena agerian, espreski esana. Ezer gorde gabe, informazioak borborka emanaz irakurleari. Pertsonaiak xaloak dira; ez dute sekreturik, tolesgabeak dira. Gaiztoak gaizto. Dena esplizitua dago. Intrigarako jakin-min moduan gordeak salbu, irakurleak dena emana du. Narrazio konbentzionala da.

Pello Lizarralde informazioa ttantaka, dosifikaturik, neuri-neumian ematen du. Gorde egin ditu datuak, eta behar duenean eman, minimoan utzirik, komeni zaionean, hitzik bat bera ez dago sobera, ez bat bestea baino ozenagorik, dena kalkulatu dago. Hitz bakar batez identifikaturik agertu berriak. Nor diren, zer ari diren pertsonaiak, iradoki, xuxurlatu egiten du. Irakurleak eraikitze lana egin behar du. Gertatuaren zergatia, gertaera bera lausotua dago.

Abiadan, bizi eta arin mugitzen dira hirian Zabaletaren pertsonaiak, zurrunbiloan, joan-etorri etengabe,

batera eta bestera, etxetik lantokira, elkarren bila, gehienetan gupileen gainean, metroan, autobusean, berandu iritsi nahi ez.

Bidea nekez urratzen dute Abelek eta Joxek. Bidea bera egin eta aurkitu beharrez. Ibilaldi neketsu eta geldoa da horiena. Lizarralde denbora gelditzera jokatzen du. Astiro, oso astiro doazela behin eta berritro gogoratuz. Maiz gelditzen dira: bideari heldu, gelditu, lotu ibiliari, berriz gelditu. Hamaika bider errepikatutako sekuentzia da. *Gelditu*, horra hitz klabea.

*Bi mundu literario. 110. Street-eko geltokia*-n badira hotsak, zaratak, ke usainak, zalaparta urbanoa. Zertzeladetan emanik, gertalekuen paisaia margotuz.

*Larrepetit*-en soinuk marmarrak dira, txioak, durundak, klaskadak, ziztuak, ezkil hotsak, arnasa. Isila urratzen dute. Argi ilunak, itzalak, distirak, islak, margulak... Usain sarkorrek, eztiak... zentzumenak erne, sentsazioen mundu poetikoan gaude. Oparo zuhaitz, landare, heskai eta gainerako elementu botanikoen presentzia. Hor bai, ugaritasuna, zehaztapena, dentsitatea. Mendiak hezur-haragizko pertsonaiak inguratuak ditu. Inguru horren handitasuna, bere baitan noraezean dabilzanen parean. Basoa Joxe eta Abelekin protagonismoaren lehian. Arima errari baino zertxobait gehiago dira iheslariak. Oihanak itzal huts bihurtuko ditu gutziz irentsi arte.

Erantzunik gabeko jokaerak eta portaerak, azalpenik gabeko aurkikuntza lainopean. Enigmak antzinako elezahar bihurtzen du *Larrepetit*. Frontera aldeko elezaharra.

*Ura eta olio bezala*. Antipoda literarioan dauden idazlanak dira. Istorio bat kontatu du Zabaletak. Intriga, urruti dagoenaren exotismoa, gardentasuna, arreta foko ebidenteak, dira osagaietako batzuk. Emaitza, sinplea bezain efektiboa. Irakurte rraza. Erakargarria, idazleak berak pentsa ez zezakeen arrakasta eta onarpen soziala izan duena. Euskarazko literaturan *best seller*-a. Horrela atera zitzaion, merkatuan funtzionatzeko kalitateak dituen eleberria. Literatura popularra. 1983an egina. Geroztik ez du

Iñaki Zabaletak beste nobelarik idatzi. Aurrez ere ez zuen prosaz ezer argitaratua.

Lizarraldeko bestelako exigentziak egin dizkio bere bu-ruari eta irakurleari. Ez da istorio bat kontatzearekin kon-formatzen. Agerikoaren atzean sinbolismoa dago. Protagonismoa ez da pertsonaiena, inguru mena rena baizik. Helmuga berri ro abiapuntua da. Estiloa, aurreko bere idazlanetan jorratua, estilizatua, minimalismoa, esperimentazio estetiko.

*Larrepetit*-ek oztopo eta hesiak ditu bidean. Inork baino hobeki daki Lizarraldeko hesi arantza dun horiek gainditu ezin eta txarrantxan trabatuta geldituko direla irakurle- gai asko.

Horrela egitea hautatu du.

Irakurleak, aldiz, tentazioa izan lezake, zuhaitzaren adarrera iristerik ez duen azeriak bezala, gereziak berde daudela esateko.

Parnasotik gertu bizi diren adituen tentazioa bestelako da: gozoki fina astoaren ahorako eginga ez dela esatea.

Bi autoritatek saritutako lanak dira. Irakurleen merkatuak bat; aditu kritikoen epaimahaiak bezala.

Dentsitate, zapora eta koloreagatik, eta euskal literaturgintzan duten funtzioagatik, erabat desberdinak dira *110. Street-eko geltokia* eta *Larrepetit*. Olia eta ura bezala, analizatu daitezke, eta konparatu, baina nahasi ez. ¶



## Andolin Eguzkitza

### **2003. urtea: luze eta malkarra**

0. 2003. urteko gertakariei begiratzen hasi naizenean *Jakin*-en mandatua betetzearren, bi izan dira tupustean neure begien bistara agertu zaizkidan fenomenoak, bata Euskal Herrikoa zuzen-zuzenik, bestea mundu osoari dago-kiona. Batera eta oldar izugarriaz, Espainiako gobernuak eta espainiar hedabideek euskal abertzaletasunaren kontra darabilten gurutzadan, Euskal Herriko abertzaleen ezintasun ia patologikoa erantzun hitzartu eta komun bat ematekoa da lehenengoa. Bigarrena, ostera, hainbeste teologo eta apaiz eman duen gurea bezalako gizartean, eta filosofian aditu, Ratzinger kardinalak munduko homosexualen eskubideen kontra jaurtikitako azken bonbardaren ondoren gure eliz jende eta enparauen isiltasun absolutua, nik dakidanez behintzat. Baina gatozen pausorik pauso!

1. Gertatuak errepikatzea ez du merezi («Egunkaria», «Martin Ugalde parkea», «amaitu ezinezko atxiloketa eta torturen segida», «Batasunaren ezlegeztatzea», «Eusko Legebiltzarraren aitaitiko mugimenduak», «Ibarretxeren planaren kontrako erasoak», «jasanezineko presio mediati-koa...»). Merezi ez duen bezala, urtearen amaierara helduta, ostera ere aipatzea oraindik orain ETAk su-etena egin ez izana, edo Gasteizko hirukoaren eta ezker abertzale ofizialaren arteko gutxieneko egijune eta akordiorik ez lortzea. Ez dio ardura zein beharrezkoa den, edota guztiz neurtezi-na den presioa zein heinetaraino heltzen ari den. Ez dio ardura, ezta kanpoko hersturaren ondorioz, Gasteizko legebiltzarrean Atutxa, Knörr eta Bilbao alde batetik, eta ezker abertzaleko kideen artean bestetik, gertatzen ari den *de facto*-ko aliantza. Lehenengoak, Eusko Legebiltzarraren autonomiaren alde, bigarrenak ezlegeztatze legal, baina guztiz injustuaren kontra. Ez dio ardura zein garrantzitsua



den Udalbiltza, baina ez moralki, ez eta politikoki ontzat jotzekoak ez diren zenbait zinegotziren hilketen kontra ez protestatzeagatik, den-dena pikutara bidaltzeko borondate itsua. Eta ez ote dago konponbiderik? Eta erantzuna, nire aburuz behintzat, guztiz argia da: bai, badago bidea egiteko modua. Horretarako, ordea, arazo bat konpondu behar dugu behin betiko eta alde zurretik: utopia eta errealismo/pragmatismoaren arteko dialektika, zulo horretan sartuta baitauzka, nik uste, hainbeste arazok bere sustraiak.

Itaunak argi daude: estatutua defendatzeak independentziaren kontra egotea esan gura du? Ibarretxeren planaren alde egiteak, hots, «estatutu berriaren» alde egiteak, Euskal Herriaren autodeterminazioaren kontra egotea dakar berarekin? Azken hogeita bost urteotan Eusko Jaurlaritzak egindakoek ez dute ezer lagundu kontzientzia nazionalaren osaketan? Ezinezkoa al da, azken helburuei uko egin gabe, oraingoz dagoen administrazio-banaketa kontuan hartzea aurrera egin ahal izateko?

Nire erantzunak, susma daitekeenez, ezezko boro bilak dira kasu guztietan, argi baitaukat, inori zalantzarik sor ez dakion, abertzaleen arteko gutxieneko eta alde zurretiko hitzarmena, eta ETaren su-etena beraz, beharrezkotzat jotzen dudala PSOEkoengana negoziatzekotan joan ahal izateko. Hori gabe ez dut uste aurrerapen handirik egingen dugunik, ez eta PSOEkoek inongo urratsik egingen dutenik Euskal Herriaren eskubideen onartzearen bidean, h.d., tradizioz izan diren kolono-alderdia, apur bat baino ez bada ere, aldatzeko eta euskaldunen eskubide nazionalik kontuan hartzeko bidean. PPkoenganako hurbilketa-  
ren esperantzarik, bestalde, ez dut bat ere, espainiar nazionalismo franquista ez dago eta, nik uste, ezertan Euskal Herria ontzat jotzeko prest: ez dute Euskal Herriari buruzko beste burutapenik, gorrotozkoa bakarrik ez bada. Haien burutapenean Euskal Herria asmakizun hutsa da, eta erabil lezaketen politika linguistikoa ezagutzen dugu dagoeneko, franquismoan erabilitakoa, edo gaur egun Nafarroan behin eta berriro inongo lotsakizunik gabe defendatzen dutena.

2. Ratzinger Kardinalak Erroman izenpeturiko agirian, bestalde, zera dio, «homosexualitatea fenomeno moral eta sozial kezagarria» dela, eta «are kezagarriagoa herrialde horietan» gaineratzen du, «non homosexualen arteko ezkontzak legez ontzat jo diren, edota jotzekoak diren, kasu batzuetan, bikote homosexualen aldetik umezurtzen hartzea ere legezatzeko prest daudelarik». Sarrera horren ondoren, Erromako Fedearen Dikasterioko dokumentuak lau atal ditu («ezkontzaren naturaz eta ezaugarriez», «ezkontza homosexualen aurreko jarrerak», «bikote homosexualen onarpen legalaren kontrako argudio razionalak» eta «bikote homosexualen aldeko legeen aurreko politikari katolikoek portaera»), ondorio orokor batekin amaitzeko: «Elizak irakasten du, pertsona homosexualekiko errespetuak ezin dezakeela inor ezelan ere *portaera homosexuala* ontzat jotzera behartu, ez eta bikote homosexualen onarpen legeletara bultzatu». Izan ere, azken puntu horrekin hasi gurako nuke, dirudienez ba ei dagoelako «portaera homosexual» deritzon zerbait, bide batez, askatasunaren izenean Euskal Herriko hainbat homosexualek defendatzen duten jarrera bera.

Hori entzunda zera datorkit burura baina, baldin eta «portaera homosexuala» izeneko zerbait badago, alegia, askatasunaz moldatzen den portaera bat, baitezpadakoa dela «portaera ibiltaria» egotea, edo «jaten dutenen portaera», edo «begiratzen dutenen portaera» edo zer dakit nik. Kardinal alemanak eta enparauek oraindik ez dutelako ulertu homosexual izatea ez dela 'portaera' bat, naturaz, alegia, homidura genetikoan markatua, datorkigun zerbait baizik. Zehatzago berba eginda, inork ez duela «homosexual» izatea aukeratzen, «homosexualen modura portatzea» hautatzen, gorra den norbaitek gor izatea, eta beraz gorren modura ibiltzea aukeratzen ez duen arrazoi berberagatik. Hori egia balitz, ulertezina izanen litzateke sistematikoki belau-naldi guztietan eta munduko txoko eta ertz guztietan homosexual kopuru bera agertzea gutxi gorabehera, eta gainera sado-masokismoarekin lotuta legokeen joera edo jaugina izan beharko litzateke beste edozer baino gehiago, homosexualek pairatu eta jasan izan dutena eta oraino ere

sufritzen dutena kontuan hartuta, ulertezina litzatekeelako halakorik etengabe «aukeratzea». Nire ustez, azalpen razional bakarra dago: lehenago esandakoa, gizakien horniduraren ondorioz *izaten dela* norbait homosexual.

Jarrera honen oinarrian elizaren historian hasiera-hasieratik egon den, eta betidanik elizan borrokatu den gnostizismoaren beste zantzu bat da nire ustez, alegia, gizakia-  
ren gorputza zerbait txarra eta arriskugamia delako ideia faltsu eta arbuigarria, alde batera utzi behar dena Jainkoagana hurbiltzeko. Francoren garaiko elizan hezi ginenok badugu horren ezagutza zoritxarrez: «zeintzuk dira gizakiaren arerio nagusiak?» itauntzen ziguten, eta erantzuna laburra eta zorrotza zen, «mundua, deabrua eta haragia». Halakoetan ibilitako Elizak, galdetuko nuke nik, nolatan espero du gazte-jendea erakartzea?

Bada, Ratzingerrek honela dio, «inongo ideologiak ezin dezake alde batera utz, ezkontza sexu desberdineko jendeen arteko lotura delako segurtasuna», baina ahaztu egiten zaio hori ez dela ideologiaren gaia, naturarena berarena baizik. Giza naturak eskatzen duela hori, aurrera segitzeko gizon-emakumeen arteko loturak beharrezkoak direla, baina horrek ez duela baztertzen gizakiak maitasunez lotzen direla elkarrekin, eta maitasun hori sexu bereko pertsonen artean ere gerta daitekeela, naturaren legeak, espeziearen iraupena, ezertan ere arriskutan jarri gabe. Kardinalak, ordea, gehiago dio, «ez dago inongo funtsik analogiarik egiteko, ezta urrunik ere, bikote homosexualen eta Jainkoak ezkontzaz eta familiaz duen diseinu eta xedaren artean». Oraindik orain —gaineratu beharko genuke— berarentzat, argi esan ez arren, ezkontza «irrika eta lizunkeria» erremedio baino ez delako», espeziea iraunarazteko bidez gain. Zeren honela baitio berak homosexualak errespetuz eta errukiz erabili behar direla esan eta gero, «halakoak, beste kristau guztiak bezala, kastitatean bizi izatera deituak dira. Baina jaugin homosexuala *objektiboki desordenatua* da, eta praktika homosexualak *kastitatearen kontrako bekatu larriak dira*».

Ostera ere, ikus dezakegunez, goian gnostizismoaz esandakoa. Salbuespena dena, kastitatea, eta askatasunaz

aukeratzekoa, helburu bihurtu; eta naturala dena, maitasunezko elkarrekikotasuna, sexualki ere adierazia, eta horregatik gehienetan espeziearen iraunkortasunaren oinarri, mespretxatua, eta gehienez ere «besterik ezean» ontzat joa. Hemen dago benetako arazoa. Esate baterako, Elizak mediku guztien aholkuen aitzia, burutapen guztiz «antikristau» horretan oinarri eginda, gure mendearen izurrite nagusiaren kontrako borrokan, hiesaren kontrako gatazkan, kastitatea proposatzen duenean, eta preserbatiboen kontra egiten duenean berba, nahiz eta badakien hori eginda hainbat eta hainbat jende hiesak kutsatua gertatuko dela. Ikuspegi horretatik begiratuta horregatik, ez litzateke desegokia izanen Eliza «gizateriaren areriotzat» joko balitz. Baina Eliza zorionez ez da hori bakarrik.

Dokumentuak, gero, hasierako oinarri desegokitik abiatuta —«homosexualitatea portaera libre bat delako oinarritik abiatuta»—, eta legeek gizakiaren bizitzan duten garrantzia kontuan harturik, zera ere dio, «bikote homosexualen onarpenak ezkontza-erakundearen oinarritzko balio moralen iluntze eta baliogabetzea eraginen lukeela». Eta sexuarekiko mesfidantza berriro adierazita, «bikote homosexualetan ez dela ezkontideen dimentsioa agertzen, harreman sexualen ordezkapen gizatiar eta ordenatua dena».

Ikus daitekeenez, nire aburuz behintzat, benetan tamalgarria. Hainbeste gizakien kontrako arbuio sakon pentsatugabea eta ezgizatiarra. Neurriak desberdinak direla kontuan hartu arren, Rouco espainiar kardinalaren lor e -  
-buketa bezain sentikorra euskaldunen eskubideekiko, edo 1936an, antikomunismoaren izenean Francoren alde egin zuen Gomà kardinalarena, edo zeharka, isiltasunaren bidez, Pio XII.arena aleman nazien alde. Fededunengan, zorionez, hainbeste eraginik izanen ez duen «Erromako beste bat», eta inteligentziarako eta hainbeste gizakien eskubideen kontra beste eraso bat. Eta galdetu behar dugu: noiz arte horrela? ¶



## Pantxoa Etchegoin

Hi ruzpalau gai hautatu ditut 2003. urtean iparraldeko Euskal kultur erakundeak garatu edo lagundu kultura ekintzen aipatzeko: sorkuntza artistikoa, artisten sustengatzeko lanpostu berria, Euskal kultur erakundeak Eusko Jaurlaritzarekin izenpetu hitzarmena, eta azkenik joanago eta gehiago euskal diasporarekin bultzatzen ditugun egitasmoak munduan zehar.

### Sorkuntzak

Sorkuntza andana bat ekoiztua izan da aurten ere Iparraldean eta oro har sendi da, alde batetik artistek beren lana ahal bezain baldintza onetan eraman nahi dutela, adibidez antzerki batentzat zuzendari profesional bat hartuz, eta bestetik aniztasunaren koloreak aurkitzen direla obretan. Eredu bezala, aipatuko ditut lau sorkuntza desberdin: *Gaua*, *Zamaltzain*, *Gure baitako ilargiak*, eta *Isiltasunaren ortzadarra* euskal kantata.

*Gaua* ikusgarria, Hazparne aldeko «Lagunarte» elkar-teak alhan ezarri du udaberrian. Hor baziren nola artista profesionalak, hala amateurrak, batzuk Euskal Herrikoak, bertzeak Korsikakoak eta Marseilla hiri ingurukoak. Gaurer gaia hartuz, Christophe Hiriart proiektu honen eramaileak aztertu nahi ukan ditu, iluntasunaren aurrean eta kulturaren arabera, norberak dituen jokoera desberdinak.

Akelarre ere sartu du zati batean, hor oitarazten zuela XVII. mendean Pierre de Lancre inkisidorea Euskal Herrira etorri zela hemengo jendearen ibilmoldeen epaitzera. Hitza, musika, argi jokoak...: *Gaua* ikusgarria emana izan da hiru aldiz Iparraldean, aldi batez Korsikan eta Marseilla hirian ere azkenik.

*Zamaltzain* ikuskizunak, aldiz, oinarri gisa 1930eko urte haietan Aragoi aldetik Zuberoara zetozen langileen inguruko giroa du, garai hartan espartinak biziarazi baititu Mauleko eta inguruetako familia gehienak, orain, zorigaitzez, ogibide hori desagertzeraz baldin badoa ere. Hirurogei bat kantari, dantzari eta antzerkilari, horien guzieren zuzendari, Pier-Pol Berzaitz, Xiberoko idazle, ereslari eta kantari paregabea. Ikuskizunaren berezitasun handiena da Zaragoza aldeko dantza eta kantari talde batekin lan egin dutela, eta amodiozko historia baten bidez, behialako bi komunitateen arteko kezka eta arazoak erakutsi dituztela.

Bertzalde, Howard Buten-en *Quand j'avais cinq ans, je m'ai tué* eleberriaren egokipena eginez, Traboules txotxongilo taldeak *Gure baitako ilargiak* deitu sorkuntza hedatu du aurten, iparraldean eta hegoaldean ere. Konpainia gazte honek hautatu du usaiako bideetatik ateratzea, gehiago gizakiaz, jendearen intimitateaz mintzatuz, eta hori txotxongiloen bitartez. Traboules elkarte muntatu dute iparraldean profesionalizatzeko asmoarekin eta jadanik antzerkilan berri baten sortzeko xedea badaukate.

Azkenik, aipatu nahi nuke aurten zabaldua izan den euskal kantata berria, *Isiltasunaren ortzadarra*, Ipar Euskal Herrian ekoiztua izan dena.

Euskal kultur erakundeak eta Baionako kontserbatorioak antolatu sorkuntza-egonaldiari esker, Nicolas Bacri frantses musikagile garaikide handienetarikoak hogeitabost minutuko musika obra bat ondu du, JosAnton Artze gure poeta ospetsuaren olerkiak harrointzat hartuz.

Kantata hau sartua izan da disko bikoitz batean, Nicolas Bacriren beste obra batzuekin batera, eta egun hauetan Marseillako Empreinte Digitale disko argitaratzaileak hedatzen du munduan zehar. Gehi daiteke ere mugaz bi aldeetako lankidetzaz bat izan dela, lan honetan, bertzeak bertze, Tolosako *Kea* eta *Hodeietz* korok parte hartu baitute.

## Artisten laguntzaile

Ohar gaitzkeen bezala, talentuak eta kemenak baditugu euskal kulturaren hazteko eta hedatzeko.

Ber denboran, onartu behar da lan handi bat badugula egiteko, bereziki sortzen diren obrak gehiago zabalduak izan daitezen, bai Euskal Herrian, bai Euskal Herritik kanpo.

Horregatik, Euskal kultur erakundeak lanpostu bat ireki du bereziki artisten laguntzeko maila guzietan: sorkuntzan, formakuntzan eta hedapenean.

Alabaina, ohartzen gara iparraldeko artista batzuek gero eta gehiago profesionalizatu nahi dutela, eta horretarako prestakuntzak edo formakuntzak eskatzen dizkigute.

Azken urte hauetan, kanpoko artisten egonaldiak antolatu ditugu *Kantuketan* programaren babesean, bereziki Europa ekialdeko herri zenbaitetakoekin. Aurten berean, Sao Tomé uharteko musikari batzuek hamar bat egun iragan dute Euskal Herrian eta sorkuntza bat eraiki, iparraldeko kantari eta musikariekin. Azkenik Danyel Waro Réunion uharteko artista famatuak ikusgarri eta formakuntza bereziak eskaini ditu Polo Beyris deitu Baionako auzoan, Euskal Herriko Beñat Achiary kantariarekin batera. Postu berri honi esker, horrelako ekintzak ugalduko ditugu ondoko hilabeteetan. Halaber, Euskal kultur erakundearen, bizpahiru urtetan kultura egitasmo berri bat abiaraziko dugu, eta hor artistak zuzenki inplikatuak izanen dira. Ondorioz, espero dugu Euskal Herritik kanpo ere gure artistak ezagutuagoak izanen direla. Horretarako, lan partaidetzak garatu behar dira, sare berriak eraiki, bertzeak bertze ikusgarri programatzaileekin.

## **Eusko Jaurlaritzarekilako elkarlan hitzarmena**

Euskal kultur erakundea sortu zenetik, beti lan harreman sendo eta jarraikiak ukan ditu Eusko Jaurlaritzarekin, bereziki hizkuntza alorrean. Adibide gisa, azken hamar urte hauetako inkesta soziolinguistikoak (azkena ez ezik) guk eraman ditugu iparralderako, hizkuntza politikako zerbitzuen partaidetzarekin.

Baina enetzat urriaren 18an izenpetu dugun hitzarmen hau oso garrantzitsua da: alde batetik, gure ekintza komunak nolabait ofizializatzen baititu, eta, beste aldetik, hizkuntzaren alorraz gain, kultura egitasmoak ere gehiago garatzen ahalko baititugu mugaz bi aldeetan. Aurten bertan, hainbat ekintza obratu dugu hegoaldean, adibidez Getxon eta Laudion *Kantuketan* erakusketaren bitartez, nolaz ere Donostiako Koldo Mitxelena zentroan lau ikuskizun berezi antolatuz urte hastapenean. Aldi guziz, Iparraldeko artistek parte hartu dute. Gure xedea da Hegoaldeko artisten gomitatzea ere iparraldera, trukaketa artistikoak bultzatuz.

Halaber, hitzarmen horren bitartez lan partaidetzak sortzen ahalko ditugu, teknologia berrien alorrean, informazio trukaketak eginez eta zubiak eraikiz, internet sargia desberdinen artean.

## **Euskal diasporak munduan gaindi**

Uda honetan, suerte handia ukan dut Saint-Pierre-et-Miquelon uharteetara joateko, hango Kontseilu orokorrak antolatu ikasketa-bidaia baten bitartez. Nirekin batean, bazen ere ekonomia, turismoa eta prentsa ordezkatzan duten jendea.

Harritua egon naiz hango jendearen abegi onaz, eta oroz gainera euskaldunentzat duten atxikimendu ezinago barnakorraz.

Neurri batean ezagutzen nuen, bertzeak bertze, Euskal Herriko, Britainiako eta Normandiako itsasturien historia uharte horietan: Saint-Pierre eta Miquelon XVI. mendean jadanik edo lehenago, Ternuan, Labradorren, Quebecen, besteak beste... baina gauzak hobeki senditzen dira toki horietan zangoa pausatuz liburuetan irakurtuz baino. Adibidez, berehala asma dezakegu hara zihoazen arrantzaleek zenbateraino pairatu zuketan momentu batzuetan, hain dira, nahiz ederrak, toki gogorak, oroz gainera negu minean.



Euskal arima badabil portuan, karrketan, etxeetako parretan, nolaz ere 1906.ean eraiki frontoian, non ere pilotak, euskal dantzak eta indar jokoek beren lekua baitute.

Argi da hango jendeak ezagutu nahi duela gaurko Euskal Herria, euskaldunak maite baititu. Bilatzen dituzte harreman iraunkorrak. Euskal kultur erakundeari doakionez, proposatu dugu jadanik datorren urterako kontalari bat hara joan dadin, halaber kantari eta musikari talde bat.

Funtsean, gure bidaiari segida eman nahian, hango delegazio bat etorri da azaro hastapen honetan bai Euskal Herriaren hobeki ezagutzeko, bai Saint Pierre eta Miquelon uharteen aurkezteko. Guhaurek Euskal kultur erakundeetan sortu dugun euskarri multimedia bat *Euskal Herriko aurpegiak* izenekoa eta lau hizkuntzatan egina (euskaraz, frantsesez, ingelesez eta espainolez) aurkeztu diegu eta oso interesatuak dira hango liburutegi eta turismo espazioetan horrelako lanabesaren ezartzeko.

Bertzalde, joan den udaberrian, Euskal Herriko ordezkaritza bat izan da Quebecen: oro har, hamabi artista, sukaldari, ostalari eta arno ekoizleak.

Bidaia honek ere (gertakizuna *Euskaldunak argitan Quebecen* deitua izan zen) frogatu zigun euskal kulturaren, ekonomia~~ren~~ eta gastronomia~~ren~~ arteko lotura hertsia, bai eta ere lotura honek Euskal Herriak kanpoan duen itxurari ekar diezaiokeen garapena.

Gaingirki baizik ez ditut aipatu gai hauek; izanzen beste asko ere. Niretzat, euskal kultura lehen-lehenik euskararen oinarritua da. Berritzaile inkestek baieztatu digute euskararen egoera oroz gainetik kezagarria dela iparraldean. Orain ordu baino orduago da hitzetarik obretara pasatzeko. Adibidez, lan handi bat badugu eramateko hurrekin, lehenik etxean barnean, transmisioaren hobeki segurtatzeko, bai eta ere eskolan edo eskolatik kanpoko aisialdian euskararen sarrarazteko. Baina adierazpen artistiko desberdinetan ere, forma berriak ediren beharko ditugu, euskararen baloratzeko eta, ber denboran, ahal bezain publiko zabalarari gure hizkuntzaren eta kulturaren maitarazteko. ¶



## Tere Irastortza

Pio Barojak 1940an Loiolako Inaziori buruz idatzitako artikulu batean azpimarratzen zuen santu haren *Espirituzko Jarduera* haien errealismo eta materialismoa. Ezaugarri horien harira gogorarazten zuen Stalinek askotan irakurtzen omen zuela liburua, Stalinek ere «psikologia praktikozko» eskuliburu eraginkorren bat beharko zuelako, agi danez.

Gure aurreko askok, modu laburragoan bederenik, ondo probatu dituzten Ejerzizio hauen jenialtasuna ez datza inolako dogmaren azterketan sakonera jotzeko eskaintzen duen metodologian.

Izan ere, R. Mackenney-k ondo adierazi zuen bezala, garai hartarako Erreforma aurrera aterea zen ez Aita Santuaren itzalagatik, ez bada ere Aita Santuaren aurkako joeren erdian, protestantismoak erakutsi zuen aniztasunaren eta iritzi malgutasunaren ordeztan, Eliza Katolikoak autoritatez ezarri zituelako bi ez bada hiru dogma. «Argi geratu zen —dio— protestantismoa heresia zela eta deserrotu eta hondoratuta geratu behar zela, 1564an —hara zein aldea protestanteekiko— ez zegoen zalantzarik kristau batek sinistu behar zuenaz.»

Giro horretan, berriro diot, *Espirituzko Jarduera* haien berritasuna ez datza inolako dogmaren azterketan sakonera egiteko metodologian, baizik eta norbanakoen sakonera baliatzeko metodologian. Alegia, norbere planteamendu eta bizimoldeak aztertze gaitasunean, norbere beldur eta izuak —egun mamu eta traumaz ari gara— adimen bilakatuz, norbere buruari eusten ikasteko zeukaten praktikotasunean.

*Infernuan* zen, nola ez, balizko eta egiazko beldur guztien egoitza. *Infernuan* zen segundo, minutu, ordu, gau eta egun, aste, hilabete, urte eta mendeen errota amaiezi-

na, etengabea. Eta irudi bizidunetara txertatzea lortu zuen kontra-erreformak Infernua. Han ziren bekatu guztien betherako zigor, penitentzia eta ordainak, analogikoki egituratuta eta hedaturik. Analogiaren indarrez baliatu zen kontra-Erreforma eta analogia bidez eta irudikatze eta dramatizazioaren bidez lortzen zuen Loiolako Inaziok *Es-pirituzko Jardueretan*, gau eta egun, hilabetez aritu ondoren, gizakion arima eta burua zailtzea; Inazio Loiolakoak ederki dio: beste batzuek kirolaren bidez gorputza zailtzen duten bezala.

### Beldurrarenean

Arrazoiketa analogikoa, guztiarekin, arrazoiketa hutsa da. Eta lirikarako garai txarrak bizi baditugu, ez nuke esango arrazoiketaren urrezko aroan egokitu garenik.

Arrazoiketa hori adimen bilakatzeko dramatizazio-bidea jokarazi zien Inaziok Jardulariei zein Jardunaldien zuzendariei. Geroago, Bataillek barne-bizipen edo esperientziari buruz idatzitako liburu hartan Loiolako Inazioz egiten duen aipamen laburrean, dramatizazioaren garrantzia du hizpide.

Arestian aipatu dudan bezala Inazio Loiolakoaren jennialtasuna norbanakoen sakoneraz baliatzeko metodologian datza. Arrazoiketa hori sentimenduekin konbinatu zuen. Gizakiaren adimenean eragin handiena duten sentimenduen artean beldurrarena dugu.

Ez naiz ni, hala ere, batere Inazioren metodologiaren zale, beldurra eragitearen eta beldurra barneiatzearen bideak arakatzek, beti guztian, boterea ezartzeko sistemak oinarritu dituenek. Ez dut beldurra aipatu nahi besteak beldurtzeko eta ikartzeko metodo bezala, mina sozializatzeko tresna bezala, bake eta guda garaian modu guztietara frogatua dagoen beldurraren apologia egiteko.

Beldurra aipatu nahi dut, hala ere. Lehen beldur guztien etxea Infernua baldin bazen, orain askatasunaren eta demokraziaren esparruan beldurraz ezin hitz egin da. Tocquevillek oso ondo adierazita utzi zuen, hala ere, beldu-

rrak Amerikako demokrazia eraikitzeke izan zuen garrantzia. Baina euskaldunon historian —erlijio eta estatuen hazi behar honen ondorioz— beldurrak jokatu duen papez gutxi mintzatu gara. Eta orain ere euskaldun askok izendatu nahi ez dugun beldurra sentitzen dugu kurubilkatzen erraieran egunez egun.

Beldurra aipatu nahi dut, gehienok ez garelako heroe ausart sentitzen. Beldurra aipatzen dut euskaldunok isiltzen dugun beldurraz hitz egiteko. Nahiago dut Ramon Etxezarretari Arantxa Urretabizkaiak elkarrizketa gihartsu batean igarri zion beldurraz aritzea. Nahiago dut Martxelo Otamendik gizonki adierazi zuen beldurraz aritzea. Nahiago dut Agurtzane Juanenak hogeitabost urteren ondoan bakarrik adierazi ahal duen izualdiaz aritzea.

Beldurrarenean isiltasuna da, gehienetan, nagusi. Beldurrarentzako ez dago hitzik. Isila da ia beti. Gogoan dut azken Galeuscan nola katalan batek aipatzen zuen Pirinioetako muga pasatzeko herrestan zihoazen errefuxiatu familetan deigarrien egiten zitzaiena isiltasuna zela. Burura etorri zitzaidan Gernika bonbardatu osteko isiltasunaz Trabuduak zioena. Herio hurren bizi denaren isiltasuna. Izan ere, beldurraren gai honetan zail da isiltasunetik garrasira ez pasatzea.

Galtzeko beldurra dugu. Areago, besteak noraino etor daitezkeen pentsatu ezinaren beldurrak izutzen gaitu. Erreformazale eta kontra-erreformazale, biek, pentsamenduz, hitzez eta obraz egin zitezkeen bekakua gainetik kendu ezinak sor zezakeen beldur huraxe dugu gaur ere kiribilkatua.

Gure baitan beldur hau isiltzera eramaten gaituen beste hori geureganatu behar dugu. Dramatizatu egin behar dugu. Beste bat balitz bezala hitz eginaraziz. Beste bihurtu gaituelako beste bat balitz bezala hartu behar diogu hitza. Hitz emanda eutsi ahal zaio beldurrari, beldurrari hitza emanez egin baitaiteke arrazoiketa adimen. Beldurrari aurre egin behar diogu, galdu-irabazien balantzan bakearen beharra aldarrikatzeko, izan nahia aldarrikatzeko, izateko, euskaldun izan beharra aldarrikatzeko eta horretarako gure itxaropen hori analogikoki pentsatuz itxaropenaren ortzimuga gerturatu behar dugu.

## Arrazoiketa analogikoaren eraginkortasuna

Analogikoki gara daitezkeen arrazoiketak, argudioak, egitura bat, etxe bat, alde guztietatik ikuska daitezkeen errealitateak sortzen ditu.

Analogiaren azpian aurrena definizio baldintzatua dago, hipotesia nahiago baduzue, nahiago baduzue konparazioa. *X ... bada, gainerako guztia ... bera da*. Zailena, noski, aurreneko analogiazko irudia adimenean txertatzea da —adimenaz ari naiz eta ez buruaz bakarrik—. Horretarako modu askotara errepikatu behar da irudia (horretan, p redikariez geroztik oso iaio dira komunikabideak). Egoera askotan errepikatu behar da, guztiek esatearen poderioz, izatera iragan dadin. Guztiek egoera guztietan errepikatzearen poderioz, kausazko bihurtzen da esaldia. Eta orduan, zera geratzen zaigu: *X ... denez, gainerako guztia ... da*.

Abertzale eta nacionalista arteko teman, abertzaleak, orain-oraingoz, erreformazale haiek bezala ikusten ditut. Nacionalistak, autoritatea darabiltenak bezala. Eta patua elkarrekin ez denean elkarren ondoan bizitzeko, guztiok aldatu beharko dugula, gure patua elkarrekin bizitzea bada.

Nik uste dut on genukeela —politikariak erratzen badira ere— geure bidea egiten hastea, eta honako Espirituzko Jarduerok proposatzea, aurrena gure buruei eta gero gure politikariei:

*Denok bakea nahi badugu, bakea nahi dugun guztiok batera joan behar dugu bakerantz.*

*Batera joanda bakea lor badezakegu, batera joan gaitzkeen biderik luzeena batera egin behar dugu.*

*Orain arte, eskusio sistema erabilia bakea ez bada lortu, aurrerantzean ez da eskusio sistemarik erabiliko bakea lortzeko.*

*Orain arte, besteak izan badira bakea ez lortzeko aitzakia, bakea lortzeko aitzakiarik jarriko ez dugunak geuk izan beharko dugu.*

Baldintza horiek denek (gehienek) onartzen dituztenean, inperatibo kategoriko bilakatuko dira, zerbaiten eragile:

*Denok bakea nahi dugunez, bakea nahi dugun guztiok batera joan behar dugu bakerantz.*

*Batera joanda bakea lor dezakegunez, batera egin behar dugu.*

*Orain arte, esklusio sistema erabilia bakea lortu ez denez, aurrerantzean ez da esklusio sistemarik erabiliko bakea lortzeko.*

*Orain arte, besteak izan direnez bakea ez lortzeko aitza -kia, bakea lortzeko aitzakiarik jarriko ez dugunak geuk izan beharko dugu.¶*



## Ritxi Lizartza

### **Euskalduna izatea delitu**

*Euskaldunon Egunkaria* ixtea erabaki zuten espainiar epai-leek. Nahiz eta aurretik *Egin* egunkaria itxi —eta 1998tik urte luzeak pasatu diren arren, ez epaiketarik eta ez ezer, horra erabakiaren zilegitasuna—, ordura arte sinesgogor zirenek ere ulertu egin zuten herri baten nortasuna diren hizkuntzaren eta kulturaren aurkako erasoan ez zegoela mugarik. Eta muga ezaren seinale, operazio hartan bertan atxilotutako kulturaren eta gizartearen langile apal eta umilak, gu denontzat maisu eta eredu direnak, lotsarik gabe jendaurrean jipoitu eta ziegetan torturatu izana, beste kate-begi bat besterik ez bide luze horretan. Horiekin batera, beste hainbat enpresaren arakatzea, atxiloketa gehiago... Azken batean, betiko lepotik burua, jatorri inperialista eta kolonialeko —nork pentsatuko zuen XXI. mendean hitz horiek erabiltzen jarraitu beharko genuenik, eta arrazoia ren indarraz, gainera— kultura handiek, bizirauteko, antza, enfrentamenduan jarri behar dute beren lekua aldarrikatu baino egiten ez duten «kultura peri-

feriko, txiki, arkaiko eta menditarrekin». Txikitasunak, ordea, ez du adierazi nahi inoren periferia direnik. Hori izango da bekatua.

Eta bitartean, euskal gizartea konmozio larri batek jota. Espainiarren botere guztiek lotsarik gabe eta diktaduran erabili ziren metodoak onartuz, betiere demokrazia-  
ren galbahe arriskutsutik pasatuta, herri oso bat jarri dute susmopean, euskararen edo euskal kulturaren alde egiten duen edonork sortzen dizkie susmoak. Eta lotsarik gabe jokatu dute eta jokatu dute horrela.

Balio positibo batzuk, ordea, agertu ziren egun haie-  
tan, eta bere horretan jarraitzen dute oraindik ere. Haste-  
ko, kalte zuzena jaso zuten —eta tamalez horietako bat-  
zuk jasotzen ari diren— atxilotu eta torturatuekiko elkar-  
tasuna erakutsi zuen gizarte osoak. *Egunkaria* oso baliabi-  
de urriekin egunero argitaratzea delitu bakarra zuten lan-  
gileak lanik gabe geratzeak ere elkartasuna ekarri zuen.  
Eta, azken batean, euskaldunei eguneko berriak egunero  
eskaintzea helburu bakarra izan duen proiektu bakar ho-  
netara ordura arte beste bide batzuetatik gauzatu nahi zi-  
ren beste proiektuak sortzearekin fribolizatzen ere ibili zi-  
renak bildu ziren. Eta *Egunkaria*-ren proiektua edo Egun-  
karia Sortzenen proiektua, euskal gizarte osoaren babesa  
jasota, berriz ere kaleratzea lortu zen *Egunkaria* itxi zute-  
netik lau bat hilera. Eta *Berria* proiektua gauzatu zenean,  
produktu duin horretara euskaraz bizi nahi duten boron-  
date guztiak bildu ziren.

Euskal erakunde publikoek ere heldutasuna erakutsi  
zuten, berek jasotako eraso balitz bezala, egunkariak ja-  
sandako bidegabekeria salatuz eta proiektu berria hasieratik  
sostengatuz. Ezin ahaztekoa da Kataluniatik eman ziguten  
lezioa. Eta laguntza, eta elkartasuna. Tristeza, kezkarria, si-  
nestezina, espainiar pentsalari eta idazle gehien-gehien  
isiltasuna, pentsamendu bakarraren helburu ez izateko.

Halako urte latzaren ostean, eta joera inboluzionistak  
eta erreakzionarioak nagusitzen ari diren bolada honetan,  
aldarrikapen bakarra: errespetua.

Eta hausnarketa hauek egiten ari den hau harituta  
dago, hainbat eta hainbat urtetako lanaren ostean, kultu-

ra sortzen eta aurrera egiten egon beharko lukeen gizarte batek bere onenak besteen erasoetatik defendatzen eman behar dituelako. Eta aspaldi ahaztuta behar luketen diskurtso beligeranteak jasan behar dituelako, izateko esku-bidea ere ukatu nahi zaion honetan. Okerrena, gainera, etorriko direnen beldur egon beharra.

Prentsaren esparru honetan, udazken honek bi berri on ere ekarri dizkigu. *Aldaketa16* astekaria sortu zen Euskal Herrian. *Cambio16* aldizkari historikoaren babes jaso duen produktu hau astekarien artean bere lekua aurkitu nahian iritsi da kalera. Oso berri garrantzitsua da hau, eta sona handiagoa izan behar zuen (mesfidantza gutxiago ere bai, seguruenik), lehenengo urratsa baita denon inbidia den katalan ereduaren bidean, hau da, euskara bizi tresna izan ez duten gizarte sektoreek ere euskal produktuak kontsumitzera erakartzeko, gizarte oso bat (ideologia edozein izanda ere) herri honetako hizkuntza ere erabiliz bizitzeko. Balio beza euskaraz irakurtzeko aukera zabala goa izan dezagun, eta, gainera, orain arte kontu ideologikoengatik-edo euskaraz irakurtzen ez zuten hainbat eta hainbat sektorek ere zer irakurri izateko. Bidean erakutsiko du asmo horretarako izango duen balioa.

Bigarren berria, *Asteon* telebistari buruzko aldizkaria kaleratu izana. Egoitza estreinatu duen Durangoko Azoka arrakastatsuan jaso dugu lehen zenbakia. Topagunearen itzalean kaleratua, ehun mila ale dohainik banatzea helburu dutela esan dute proiektuaren arduradunek. Telebistari dagozkion berriekin batera, noski, pentsatzekoa da komunikabide horrek ospetsu egiten dituen aktore, kantari, esatari eta abarren berri ere izango dugula. Normalizazioaren bidean, euskal prentsak bere ez zituen esparruak jorratzeko aukera paregabea.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak urte luze eta nekeza izan du, ia derrigorrez defizitarioa den kultura honi laguntzak emateko politikak birplanteatu, aztertu eta gauzatzan. Asmo nagusia, kulturgintzari laguntza benetan baliagarriak emateko irizpideak egokitzea izan da. Ez urte honetarakoak bakarrik, aurrerantzean ere hartutako erabakien arabera jokatzeko baita Kultura Saileko arduradu-



nen gogo. Profesionaltasunaren onerako. Udaberrian egin ohi diren deialdiak udazkenara atzeratu dira. Diru-kopuruak, banatzeko moduak eta baldintzak aldatu egin dira. Kritika batzuk ere entzun dira dagoeneko, antzerkiaren sektoreak nagusiki, epaimahaiak aurreko irizpide beren arabera osatuta baitaude, epaimahaikide askok ez baitakite euskaraz, eta, gainera, lanak euskaraz sortzearen balorazioa hutsaren hurrengo gelditu delako. Goiz, ordea, la-guntzak banatzeko politika berrien balorazio sakonetan hasteko. Baina bizirauteko espainierazko bertsioa (gehienetan originala) egitera derrigortuta dauden taldeen berri-ze ere militantismoaren esku uzten da euskarazkoaren abenturan sartzeko erabakia. Eta euskaraz egin edo kalitatezkoa egin (harrigamia) oraindik ere aurkaritzat hartzen diren honetan, litekeena da euskarazko bertsio gehienak desagertzea, eta zinemagintza jasaten ari den basamortua handiagoa hedatzea.

Zinemagintzaz ari garela, batek baino gehiagok galdetu beharko lioke bere buruari Euskal Herrian sortzen diren lan urri-urriak, *Al final de la noche* adibidez, espainieraz grabatu behar izatearen arrazoia, batez ere, kasu honetan gertatu zen bezala, lantaldea kontratatzekeo garaian denak euskaldunak izatea derrigorrezkoa izan zenean. Hurrengo urterako asmorik ere bada filmik euskaraz egiteko. Ea oraingoan proiektu berriak behar adinako babesak jasotzen duen.

Kulturgintzan diru aldetik defizitarioak garen eta izango garen gure egoeran, zalantzarik gabe babestu beharko lukete Euskal Herriko erakunde eta komunikabide publikoek euskaraz sortzen den lan oro, gutxienezko kalitate bermatuta noski. Eta garaia litzateke FORTAn egiten diren lanez aparte (espainieraz), Kataluniako ereduari berriro ere jarraiki —laurogei film egiten dira telebistarako urtero katalanez, TV3en babespean—, gure artean ere telebistarako filmak egiten hasteko. Bide horretatik, zinemarako filmak egiteko abiapuntu bezala izanik, lana eta babesa emango litzaieke hemengo euskal produkzio-etxeei, are gehiago Euskal Telebistan kanpoko produkzio-etxeen lanak hobesten hasi diren garai hauetan. Koloka larrian da-

go hemengo zinema-industria, eta sinestezina da Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren zalantzarik gabeko laguntza ez jasotzea. Gainera, Donostiatik hurbil eraikitzen hasi diren Zinealdeak sektore honetako hemengo azpiegiturak sendotuko baditu, tristeza da pentsatzea bertakoak ez diren produkzio-etxeentzat eta bertakoak ez diren telebistentzat ikus-entzunezko produktuak egiteko baliagarri izango denik.

Ea hurrengo urterako balantzean esan daitekeen Eusko Jaurlaritzaren kulturgintzarako laguntzak banatzeko irizpide berriek arazo hauek denak bideratzen lagundu dutela. ¶



## Xabier Mendiguren Bereziartu

### **2003: erasoen aurrean indarrak bildu**

2003ko balantzea egiteko garaian bi data azpimarratu beharko genituzke: otsailaren 20a eta urriaren 16a; lehenengoan *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta bederatzir lagun atxilotu zituzten. Bigarrean, berriz, Martin Ugalde Kultur Parkearen kontrako operazioa burutu zuten. Lehen kasuan atxilotutako batzuek tratu txarrak salatu zituzten epaitegian eta gizartearen aurrean. Bai lehen kasuan eta bai bigarrean bost eguneko inkomunikazioaldia pairatu behar izan zuten bahituek. Gerora fidantzak ordaindurik irten diren arren, oraindik Iñaki Uriak, *Euskaldunon Egunkaria*-ko kontseilari delegatua zenak, kartzelan jarraitzen du. Gertakari horien aurrean, atxilotuei elkartasuna erakutsi eta neurri horien aurka protesta egiteko, Kontseiluak deituta, bi manifestazio jendetsu egin ziren berehalako erantzun moduan, herritarrek egindako beste era askotako agerpenen artean.

Bi gertakari gogor eta salagarri horiek garrantzi nabaria dute aurtengo urte hau aztertzerakoan. Izan ere, euskararen gizarte erakundeek aspalditik aurreikusia zuten horrelako egoerak gerta zitezkeela. Horrela, Kontseiluak 2002ko otsailean ez ohiko batzarrean bere diagnostikoa egin zuen eta horren ondorioz idatziriko *Euskalgintzaen estrategia eta ekintza plana egungo une kritikoetan* dokumentuan esaten zen eraso koiunturala ez baizik estrategikoa zela, eta estatua bere esku dituen bitarteko guztiak erabiltzen ari zela behin eta berriro.

Erasoaldi horren helburua, esaten zen, euskarak bereganatu duen estatus legala aldatzea da; nahiz eta urteak daramatzagun adieraziz daukaguna ez dela nahikoa, hala ere, euskararen etsaiarentzat gehiegizkoa da eta prozesu hori atzerarazi nahi dute. Eta, jakina, horrekin batera, euskararen normalizazioak duen babes soziala eta pertzepzioa murriztu nahi dute, gizarteak euskara irudikatze duen moduari eta lotura emozionalari kaltea sortu nahi diete eta batez ere atzerapausoak ematea lortu. Begi-bistakoa da estrategia iraunkor baten zerbitzuan daudela helburuok: euskara tresna komunikatibo funtzionala izateko aukerak itotzearenean.

Zoritzarrez, 2001eko urriaren 27an onartutako testuaren gaurkotasuna argi eta garbi ikusi dugu aipaturiko bi erasoaldi horietan. Ez da kasualitatea *Euskaldunon Egunkaria* eta Martin Ugalde Kultur Parkea helburutzat hartzea. Hizkuntz normalizazioaren ikuspuntutik euskarazko komunikabideen garrantzia handia da; zer esanik ez egunero argitaratzen den egunkariaren kasuan. Euskara sustatzen eta indartzen diharduten erakundeen arteko sinergia lortzeko eraiki den Kultur Parkea ere inportantea da bi arrazoiengatik: batetik, sinergiak lortuta, erakundeek euskararen normalizazioari bultzada bikaina eman diezaioketelako eta, bestetik, gizarte erakundeek sortutako azpiegitura delako.

Egoera eta testuinguru larri horretan beste datu kezagarri batzuk ere publiko egin dira, hots, Inkesta Soziolinguistikokoaren datuak. Kasu honetan normalizazio prozesuaren moteltzearen aurrean gaude. Arrazoi desberdinak direla medio, normalizazio prozesua geldotzen ari da eta

normalizazioa lortzea berez prozesu zail, luze eta neketsua bada, argitara eman diren datuak ikusi eta aztertuta, esan dezakegu normalizazioaren helburua lortzetik urrun, oso urrun gaudela oraindik. Nafarroako zein Iparraldeko egoera kezkarriak ezin dira pantaila gisa erabili, EAEn gertatzen ari dena ezkutatzeko; hogeitertan eginiko bidea laburra da oso, hizkuntz eskubideen urraketen aurrean jarriera epelak ikusten dira eta bertako instituzioek erantzukizun handia dute Osakidetza, Ertzaintza, Justizia eta abarretako hainbat urraketa kasuan.

Gainera, erdal komunikabideek eta aisiarako baliabideek lehia gogorra egiten diete euskarazkoei. Eta hor daude euskarazkoek jasaten dituzten erasoak ere: *Egunkaria*-ren kontrako polizia operazioa, Euskalerria irratia, *Jakin*, *Argia* eta abar daude, alde batetik, eta ETB-1eko programazioa aski mugatua da euskaldun guztion nahiak asetzeko, bestetik. Azkenik gogoan izan behar da erdal komunikabideek euskara ez dutela ia erabiltzen, ezta euskaldun kopuruaren neurrian ere, eta horien arduradunekin egindako gestioek ez dute emaitzarik ematen. Ez ote legoke komunikabide horiei euskararen proportziozko erabilera gutxienez eskatzerik, ugalduz doan euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen?

Eta hizkuntza eskubidearen gaia aipatu dugunez, aurrean ere Hizkuntza Eskubideen Behatokiak bere urteko txostenean aurkezten dituen datuak kezkarriak direla aitortu beharrean gaude; iazkoan lehen aldiz hautemandako egoera aurtengoan berretsi eta sendotu egin da eta honako ondorioak atera ditu:

1. 2002ko txosten honek 2001 urteko txostenak eman zituen ondorio nagusiak guztiz berretsi ditu. Eta berretsi ez ezik, zenbait alorretako egoera larriago ere agertu du.

2. Euskal Herriko herrialde guztietan urratzen dira hizkuntz eskubideak, nola Iparraldean hala Hegoaldean. Arazoa ez da soilik Euskal Herriaren gehienguan euskarak ez duela bertako administrazioen legezko babesa. Legezko babesa duenean, euskarari ofizialtasuna legez aitortzen zaionean, ofizialtasun hori ez da hizkuntz eskubideen bermea ez bada politika eraginkorrez gauzatzen.

3. Euskal Herriko administrazio maila guztietan urratzen dira hizkuntz eskubideak. Estatuak sistematikoki egiten dute. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola, osasun, justizia eta herrizaingo alorrak bereziki larriak agertu dira.

4. Hizkuntz eskubideen urraketa kasu gehien-gehienetan lege urraketa dugu: administrazioek beraiek ez dute eurek indarrean jarritako hizkuntz legedia bete.

5. Kasu batzuetan, hizkuntz eskubideaz gain oinarriko eskubide batzuk ere urratzen zaizkie herritarrei: berdintasunez hartua izateko eskubidea, informatua izateko eskubidea, etab. Bestalde, administrazioaren aldetik delitu zehatzen zantzuak dituzten kasuak ere aurkitu ditugu: bereizkeria, prebrikazioa, etab.

6. Estaturaz gaindiko arauak ere urratzen dira: *Erregioe-tako edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Ituna* (2001ean Espainia estatuak berretsia, Frantziako Errepublikak ez du oraindik berretsi) eta *Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa* (Espainiak 1995ean berretsia, Frantziak sinatu ere ez du egin).

7. Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politika Europako kontraeredua da. Europako Kontseilutik eta Parlamentutik Europako bertako hizkuntz aniztasuna babestu eta sustatzeko heldu diren irizpideen guztiz kontra ari da Nafarroako Gobernuak, bertako hizkuntz komunitate bati haren hizkuntz eskubideak legez ukatzen, urratzen eta murrizten dizkiola.

8. Frantziako Errepublikak gutxiengoen eskubideei dagozkien nazioarteko estandarrak betetzearen berebiziko premia du.

9. Hizkuntz eskubideen bermerako mekanismo juridiko administratibo berezitu eta azkarra ezarri beharra dago, gertatutako lege urraketei aurre egin eta haiek zuzentzeko. Agerian gelditu baita zer tresna edo mekanismo eskasa dagoen ohiko prozedura juridiko administratiboan hizkuntz eskubideen urraketa horiei erantzuteko.

• Hizkuntz eskubideen urraketa zabal eta sistematikoak euskal hiztunek euren hizkuntz eskubideez duten pertzepzio subjektiboan du eragina. Euskal Herrian, eus-

kaldun jendeak luzez bizitako legezko gutxiagotasun eta menpekotasunak egungo egoera *naturalizatzea* ekarri baitu. Askotan, herritarrek euskaldun gisa oinarrizko eskubiak ukatuak izatea ohikotzat hartzen dute eta, ondorioz, bigarren mailako herritarra izatearen buru hautemate edo autopertzepzioa bere egiten dute.

Hori dela eta, Kontseiluak hizkuntz normalizazioari bultzada berria eman nahi dio eta horretarako gizarte osoaren konpromisoa beharrezkoa dela errepikatzen jarraitzen du; norbanakoen konpromisoak euskara ikasteko, erabiltzeko, euskaraz bizitzeko; gizarte eragileena beren erakundeen baitan euskararen presentzia eta erabilpena ziurtatzeko eta alderdi zein sindikatuena normalizatzeko neurriak hartu eta euskararen gizarte erakundeak babesteko. Babes neurri horiek ekonomikoak (diru kalte zuzenak konpentsatzea, erasoaren kostu judizialak ordaintzea...), sozial eta komunikatiboak (egoera nazioarteratzea, arduradun instituzionalen babes bisitak, onura publikoko aitortzak, ohiko babes agerraldiak...) eta juridikoak izan behar dute. Era berean, egokia litzateke auditoriak Europako babesarekin egitea eta nazioarteko jurista talde batek hemengo prozedura judizialen segimendua egitea euskal instituzioek ordainduta.

Kontseiluak hiru arlo horietan bereziki eragin nahi du, zeren gizarte osoaren konpromisoen bidez bakarrik lortuko baita euskararen normalizazioa.¶



## Xabier Mendiguren Elizegi

### Lagun artean

Urteroko errepasso hau egiteko inoiz baino gogo gutxiago aurten. Ez zer esana falta delako baina bai esan beharrekoa dagoeneko esana dagoelako, zuek nik bezain ondo ezagutzen duzelako joan den 2003an zer gertatu den, funtsean, euskal kulturari. Hala ere, *Jakin*-eko lagunei ezetz esaten jakin ez-eta, isiltzea etsitzea litzatekeela-eta, gure arteko hartu-emanen eta betiko langintzari eustea inoiz baino premiazkoagoa dela-eta, baietz esan eta hemen naukazue, zuek bezala esku-hutsik, zuek bezala begiak gorrituta (negar egin dugulako edo negargurari eutsi diogulako); ohartzan naiz komunikazioa baino gehiago komunioa dirudiela honek, ez zentzu erlijiosoan baina bai bat egitearenean, komunitate izate horretan alegia. Ezinbestean beharko du horrela, zoritxar kolektiboetan gertatzen den bezala, baina saia nadin sumindura arintzen; hortzak eta ezpainak estututa eduki ordez zabal ditzagun apur batean, lagun artean.

### Madarikatua

Joan denekoa urte madarikatua izan dela esan beharrik ere ez dago. Otsailaren 20koa lehenik, sei hilabete geroagoko jarraipena ondoren... Aurreko urteak ezin esan onak izan zirenik, panorama orokorra marraztean txarretik txarrogarako zirriborro bat ateratzen zitzaidan beti, etorkizunerako perspektiba argirik gabe gainera. Eta orain? Behea jo dugula eta aurrerantzean gora joan beste erremediorik ez dagoela esango du baikorren batek; okerrenak ikusteko gaudela iritziko dio ezkorren batek. Harako esaera hartan bezala: tunelaren amaieran argia sumatzen hasi bai, baina

izan litekeela aurrez aurre etorri eta bertan zanpatuko gaituen trenarena ere.

## **Trenak**

**T**renaren metaforak joko handia eskaintzen du: trenetik jaitsi, Maltzagarainoko trena, trena bere bidetik uzkailezea, bide itsuan sartzea, abiada bizian talka egitera doazen trenak... Azken hori izan liteke sasoi politiko berri hone-tako izarra, aurreko guztiekin nahastuta eta aldaera berrie-kin batera: makinista egokirik ez dagoela, balazta nork sa- katuko ote duen... Alegoria horiek denek hutsune bat daukate, ordea, gu guztiok trenaren barruko bidaiari egi- ten gaituela, baina egiazki gu geu gara ibilgailu hori mugit- u behar dugunak, abiadura handian edo astoaren mart- xan, bideko koxkak saihestuz edo ero moduan bultzatuz. Asmatuko ahal dugu!

## **Testua eta testuingurua**

**U**r handitan sartu naiz eta natorren berriz neure espa- rrutxora, euskal letren errepublikara. Aurten bi saltsa ibili dira komunikabideetan arlo honi dagokionean, biak elka- rri lotuak. Bata, belaunaldien sailkapenaren ingurukoa, eta, bestea, belaunaldi horietako bat baztertuta, gutxietsia, frustratua ote dagoen. Ez daukat zer erantsi handirik, ezta interes berezirik ere. Beste zerbaiten zantzua ematen digu eztabaida horiek pizteak, ordea: marketinak eta promo- zioak gero eta indar handiagoa dutela gure artean.

Idazle gazte batekin bazkaltzen ari nintzen halako batean, eta nola gure gremioan ere endogamiko samarrak garen, gure arloko kontuak genituen mintzagai. Beste idazle gazte bati buruz ari zela, halaxe esan zidan nire ma- haikideak: «Horren problema da, testu hutsa dela». Ale- gia, idazle horrek ez duela lortu irudi publiko bat: zutabeak idaztea egunkarrietan, bere argazkia edozein aitzakiarekin agertzea aldizkari eta gehigarrietan, elkarriketak eskatzea



irratietan... testu hutsa da beraz. Printzipioz, egoera ideala izan beharko luke horrek (garai bateko) idazle serio barentzat: testuaren eta irakurlearen arteko harreman zuzena, interferentziarik eta manipulaziorik gabe; tamalez, baina, gaur egun ez da erraza, nahi izanda ere, Salinger izatera iristea (Montoiak ahaleginak egiten dituen arren), eta testu huts gelditzen denak arrisku handia du testu izatera ere ez iristeko, alegia, banitatearen ferian sartu ezean inork ez duela ezagutuko idazlea, eta inork ezagutu ezean liburua ere ezkutuan geratuko dela betiko.

Bertsolaritzaren ikerlariak aspaldi honetan horrekin ari dira: bertsoa behar bezala ulertzeko ezin gaitezkeela testua bere hutsean aztertzea mugatu, kontuan izan behar direla bertsoaren ingurumaria eta bere zertzeladak. Literaturan ere bide beretik joan beharko dugu, itxura denez. Kontuan hartuta, gainera, gure kritiko inportanteek ez direla ibiltzen testu on, sekretu, ezezagunen bila, ezpada dagoeneko kanonizaturik dagoen idazleari intentsua bota eta bota.

## Poetak

**O**rain dela hamar bat urte, aldizkari honetan bertan idatzi nuen hemen egiten ari zen poesia ez zitzaidala gustatzen: maxkala zela oro har, belaxka salbuespenak salbuespen... Polemika koxkor bat piztu zen, haserretu egin zitzaizkidan poeta batzuk, arrazoiarekin seguru asko. Gaur berriz idatzi nahi dut gai horretaz, kontrakoa esateko: alegia, gustatu egiten zaidala gaur egun euskaraz egiten ari den poesia gehiena.

Egunotan Interneten dagoen posta-zerrenda ugarietako batean norbaitek zioen paradigma-aldaketa bat gertatu dela azken urteetan, eta Kirmen Uriberen liburua jartzen zuen zedarriztat. Egia da *Bitartean heldu eskutik*-ek, obra guztiz ederra izateaz gain, irakurle askorekin konektatzea lortu duela, poeta gutxik bezala; baina, nire ustez, errealitatearekin lotuago eta formalismotik urunduago dagoen poesianzko bidea aspaldi samarretik ari zen egiten, eta gure poeta handien lanak izan dira prozesu ho-

rretako bultzagile nagusi, nire ustez: Izagirrerren *Balitzko erroten erresuma*, Sarrionandiaren *Hnuy illa nyha majah ya - hoo* eta Atxagak azkeneko dozena urte honetan han-hemen atera dituen poemak.

Interesgamiena, dena dela, hauxe da, nire aburuz: ez dela estetika jakin bat nagusitu besteen gainetik, are gutxiago ideologia jakin bat. Poeta guztiengan antzematen da komunikaziorako gogo handiago bat, soberazko hitz-litsen biluzte bat eta muinera jotze bat, edozer dela ere muineko hori. Udazken honetan ateratako hiru poema-bilduma eder aipa nitzake esandakoaren frogagarri: Gerardo Markuletaren *Batak ez du bestea kentzen*, Pako Aristiren *Libreta horiko poemak* eta Mikel Peruarena Ansaren *Eguraldiaz hizketan*. Hirurak ere idazle desberdinak, nor bere estilo, gustu eta pentsaerarekin, hiru argitaletxe diferentetan, baina hirurak ere indartsu, egiazko, hunkigarri eta gomendagarri.

## Historia hurbila modan?

Poesiaz esan dugunarekin lotu daiteke, beharbada, aurtengo narratiban nabarmena gertatu den joera bat, hots, XX. mendeko gatazka gordinen presentzia: Franco hilez geroztiko trantsizioaren argi-ilunak batetik, 36ko gerrako gazi-gozoak bestetik, eta Francoren aldiko gorabehera sigi-sagatsuk azkenik.

Multzo honetan sartzeko modukoak izan litezke izenburu hauek denak: Xabier Montoiaren *Denboraren izerdia*, Jokin Muñozen *Bizia lo*, Joxe Belmonteren *Hamar urte berru*, Jon Alonsoren *Hodei berdeak*, Edorta Jimenezen *Kilkerren hotsak* (eta Hemingwayri buruzkoa ere bai, neurri batean), Agurtzane Juanenaren *Esan gabe neukana*, Joseba Sarrionandiaren *Kolosala izango da*, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea...* Baten bat faltako zait, seguru, Durangoko Azokan ateratako nobedade guztiak ez baitira neure eskuetara iritsi.

Ez dut esan nahi joera bakarra denik, edo interesgarriena, edo indartsuena. Besterik gabe hor dagoela eta kontuan hartzekoa dela aipatu nahi nuen. Historia hurbi-

larekin egiten dugun literatura ez baita eleberri historikoa, ezpada gure gaurko zaurietan arakatze bat, gure arazoan aztertze bat. Konponbideak beste bati eskatu behar.

Edo, telebistako igarle kaxkarrak bagina bezala, hemendik hogeit urtera egingo den literatura irakurri, hantxe agertuko delakoan gaurko gure minen sendagarria.¶



## Juan Ignacio Perez Iglesias

### **Herri normal bateko herritarrak izango bagina...**

... aztergai izan beharko genuke hemen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak prestatu duen Kulturaren Euskal Plana, edo Ikus-entzunezkoaren Liburu Zuria. Normala izan gabe, normalizazio bidean dagoen herri bateko herritarrak izango bagina, bi kontu horiez gain, III. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzez ere aritu beharko ginategi.

Baina ez gaude herri normal batean —edo estatu normal bateko herri batean—, ez eta normalizazio bidean dagoen herri batean ere, eta tamalez, aurtan, euskalgintza-aren inguruan izan diren epailetza erabakiena izan behar dugu, ezinbestez, gogoetarako gai nagusia.

Joan den urtean, 2002ko balantzea egiterakoan, pozteko moduko gertakizuntzat hartu nuen Martin Ugalde kultur parkearen irekiera. Orain, 12 hilabete igaro direnean, eta Kultur Parkean egiten den lanarekin zerikusirik izan gabe, oinazea da sentipen nagusia, aurtan parke horretan inolaz ere ezin itxaron genezakeen zerbait gertatu baita. Gertaturikoa aski ezaguna da eta ez dut idatziko hori deskribatzeko lerro bat ere. Gertatutakoaren arrazoiak, ondorioak, eta ondorio horiei aurre egiteko bidea da orain axola didan bakarra.

Zenbaiten aburuz, gertakizunok azaltzeko ez da ezkurtuko asmorik bilatu behar, terrorismoaren aurkako ekintzatzat hartu behar baitira. Beraz, ez dira hartu behar euskara eta euskal kulturaren aurkako ekintzatzat. Irakurketa horren alde agertu dira espainiar alderdi nagusi biak eta horien ideologia oinarria sustatzen duten Espainiako hedabide talde handien iritzigile gehienak. Egia da multzo horren barruan desberdintasunak izan direla, baina oro har, euren buruzagi, bozeramaile, hautetsi eta inguruko hedabideek ez diete eragozpen handiegirik ipini epaileek hartu dituzten erabakiei.

Euskararen aurkako erasorik egon ez dela aldarrikatu dutenek askotan leporatu diete abertzaleei —eta batez ere ezker abertzaleko kideei—, euskara eta euskal kultura bere egin dituztela, hau da, abertzaleen ondare gisa ikusten dutela eta ez euskal herritar guztiena. Pentsamendu ildo horren arabera abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna berdintzen dituzte abertzaleek, eta, beraz, helburu politiko jakin batzuk lortzeko tresnak bihurtu dituzte euskara eta euskal kultura; areago, euskara bera ere helburu politiko bihurtu dute. Pentsamendu lerro hori segituz gero, euskara eta euskal kulturaren alorrean aritzen diren enpresak eta erakundeak abertzaleen ondare dira, eta arrazoibide hau muturreraino eramán dutenentzat, soilik abertzaleen ondare. Jakina, kontuan hartzen badugu ezker abertzaleak euskal kulturaren esparruan duen pisua, eta, gainera, egun ezker abertzale osoa eta ETaren artean egiten duten berdinketa, berehala sortzen da lehertzeko moduko koktel bat. Eta horixe gertatu da, koktel hori lehertu egin dela, leherrarazi egin baitute.

Argudio lerro horrek ez du ez hankarik ez bururik, noski, baina hori gutxienekoa da bizi dugun egoera honetan. Nik ez dut esango nolabaiteko euskararen patrimonializazioa egon ez denik. Hau da, hainbat euskaltzalek uste izango dute eurak direla benetan euskararen alde dauden baka<sup>ra</sup>ak, eta, gainera, euskararen aldeko politika egoki baka<sup>ra</sup> gisa hartzen dute eurek proposaturikoa. Bestalde, uste dute euskararen etorkizuna euren egitasmo politikoaren arrakastaren menpe dagoela eta, era berean, euskararen

aurrerapena egitasmo politiko horren osagai nagusietakoa dela. Ezker abertzaleko hainbat euskaltzalez ari naiz, noski.

Baina era horretako patrimonializazioa egon bada ere, egia da politika alor horren kanpotik elikaturikoa izan dela patrimonializazio hori, neurri handi batean behintzat. Hau da, espainiar alderdi nagusi biek eta lehenago aipatu ditudan hedabide talde handiek ez dute erakutsi inoiz euskararen aldeko inolako jarrerarik, egiazko jarrerarik esan nahi dut. Nik bederen ez dut horrelakorik ikusi, bannako zenbait salbuespen aipagarri batzuk alde batera utzita, noski. Garbi-garbi esanda, ezker abertzaleak euskara eta euskal kultura bere ondare propiotzat hartzen duela ozenkien adierazten dutenak dira, hain zuzen ere, patrimonializazio hori neurri handi batean elikatu dutenak, zeren zilegi eta bidezkoa baita norbaitentzat besteek libre uzten duten eremua lantzea.

Baina euskararen garapenaren aurka daudenak ez dira lehen aipatu dudan patrimonializazio hori elikatu duten bakarrak. Nire aburuz, abertzaleen artean ere, askok landu gabe utzi dute eremu hori. Edo hobeto esan, herri erakundeek bakarrik utzi diete ardura hori sarri askotan. Izan ere, herri erakundeek egin duten lanari ez zaio batere garrantzirik kendu behar. Egia da, era berean, abertzale horiek esku hartu dutela euskararen aldeko herri ekimenetan, batez ere hezkuntza munduarekin lotuta dauden ekimenetan eta ikur eduki handia dutenetan. Baina ideologia alor horretan gabezia esanguratsuak daude kultur ekoizpenaren aldetik.

Laburbilduz, gustatu zein ez, ezker abertzalearen inguruan sortu da kultur ekoizpen handiena, eta euskaraz egindako prentsaarena da, seguru aski, azaldu dudanaren adibiderik nabarmenena ere. Gauzak horrela, espainiar herri-iritziaren aurrean aukera paregabea izan dute euskalgintza eta terrorismoaren arteko loturarik egon ez arren lotura bat dagoela argudiatzeko.

Bestalde, gertatutakoa balioztatzeko orduan kontuan hartu behar da oso txikia dela kultur eragileen dibertsifikazioa, eta horrek ahuldu egiten du euskalgintza osoa. Hau da, euskarazko lau hedabide talde indartsu egongo

balira, baten aurkako ekintzek ez lukete ondorio suntsigarri orokorrik izango, eta, beraz, egin ere ez lirateke egingo ekintza horiek; hau da, ikusi ditugun erasoak, eraginkorrak izan daitezkeelako ikusi ditugu, eta, besteak beste, kultur eragileen dibertsifikazio eskasagatik izan daitezke eraginkorrak.

Gertaturiko epailetza ekimenek badute, seguru aski ere, ezkutuko helburu bat. Nik behintzat, hala uste dut. Baina kontu horren gainean egin daitezkeen hausnaraketak kulturgintzari zuzen ez dagozkionez, ez naiz hemen horietaz arituko. Hori bai, aurrera jarraitu baino lehen, bi kontu azpimarratu nahi nituzke. Batetik, nekez sinets daiteke alferrikako ekimenen aurrean gaudenik. Eta bestetik, bistan da terrorismorik ez balego nekez izango luketela aukerarik terrorismoa eta euskalgintza zorro berean sartzeko. Hau da, lehenago aipatu ditudan baldintzapenak direla-eta, terrorismoak kalte handia egiten dio gaur euskalgintzari berari ere.

Tamalez, egin da euskal kultura erasota izaten jarraitzeko arriskua handiegia dela. Eta gainera, ez du ematen gauzak erraz aldatuko direnik; azken batean, lehenago aurkeztu ditudan argudioek berdin balioko dute egoera politiko orokorra aldatzen ez den bitartean. Eta egoera horren aurrean berehala sortzen dira galderak: zer egin daiteke? Zer egin behar dute herri erakundeek zein euskaltzale diren herritarrek edota gizarte eragileek euskalgintzari babesa emateko?

Hainbaten aburuz, adosturiko estrategia orokor bat prestatu eta abian ipini behar da, eta horren barruan, akordio soziopolitiko zabala egin beharko litzateke. Eta bestalde, gehiago egiteko eskatzen zaie Eusko Jaurlaritzari eta, oro har, herri erakundeei. Proposatutako diren botika edo sendabelarrei dagokienez sinesgaitz naiz ni, ez baitut mirarietan sinesten.

Alde batera utziko ditut politika kutsua duten kon-tuak, zeren azterketarako interes handikoak badira ere, horiek ez baitira orain landu nahi ditudan ikuspegiak. Kulturgintza bera eta bere ahuleziak dira gehien interesatzen zaizkidanak.

Lehenago esan bezala, kultur eragileen dibertsifikazio txikia da, nire ustez, kulturgintzak duen ahulezia larriena. Hori horrela bada, akordio soziopolitiko zabal batek nekez egingo dio aurre egoerari. Hainbaten ustetan, euskararen erabileraren normalizazioan aurrera egitea da irtenbidea edo irtenbideetako bat, baina ez zaigu esaten zer den horretarako egin behar dena. Lehen esan bezala, eszeptikoa naiz kontu horiekin, eta are eszeptikoagoa proposatu diren bestelako indar-neurriekin.

Bidea, nire iritziz, bestelakoa da. Sendo izateko, kultur eragileek behar dute, batetik, kultur produktuen ekoizpenerako baldintza egokiak izatea; eta hori, neurri handi batean, erakundeei dagokien herri politiken azpian dago. Bestetik, are garrantzitsuagoa da kultur produktuekiko eskari sendoa egotea, eskaririk gabe eskaintzak nekez iraun baitezake. Baina hori euskaldunon azpian dago, ez dago beste inoren menpe, herritarrok baikara, herritar euskaldunok, euskarari balioa eman behar diogun lehenak, euskal kulturaren produktuei balioa eman behar diegunak. Baina euskaldunok gutxi gara, gutxiago kultur produktuak kontsumitzeko moduan gaudenok, eta are gutxiago kontsumitzeko moduan egonik, hala egin nahi dugunok.

Gauzak horrela, euskarazko kultur produktuen eskaria indartu nahi bada, hiru alor horietako baten, biren, edo hiruren gainean ekin beharko da. Azter dezagun kontu hau. Hezkuntza sistemaren eraginari esker, batez ere, euskaldunen kopurua gora doa Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, euskaldunon %80 bizi garen eremuan. Dereduan matrikulaturiko haurren ehunekoei erreparatzen badiegu, erraz ikus daiteke haur eta gazte guztien %60 euskaldunak izango direla laster. Izugarritzkoa da harrobi hori, baina zaindu beharra dago, harrobi guztien antzera. Hortaz, etorkinen ehunekoa gora doan neurrian, baliteke hemendik gutxira D ereduko matrikulen ehunekoak behera etortzea. Beste zenbait mehatxu daude, baina etorkinena da, seguru aski ere, mehatxurik larriena. Bestalde, ez dut uste hezkuntza sistemaz kanpoko beste bide indartsurik dagoenik euskaldunen kopurua neurri esanguratsuan emendatzeko. Izan ere, helduen euskalduntze programak,

garrantzitsuak izanik ere, ez dira hezkuntza sistema bezain emankorrak.

Kontuan hartzen badugu euskaldunen kopuruaren emendiorik handiena hezkuntza sistemaren eraginari dagokiola, lehen alorrean barruan dago bigarren alorra. Hau da, hezkuntza sistematik irteten diren gazteak kultur produktuak kontsumitzeko moduan daude, edo egon beharko lukete, behintzat. Izan ere, euskaldunen kultur soslaiaren aldaketa bat gertatzen ari da. Estatistiketan agertzen diren euskaldun asko, adinekoak batez ere, alfabetatugabeak dira euskaraz, eta beraz, ez dira kultur produktuen kontsumitzaile handiak. Horien ordeztan, beste belaunaldi bat iristen ari da, hiritarragoa oro har, kulturaren jantziagoa, eta ikus-entzunezko, liburu eta berripaperak kontsumitzeko ohitura handiagoa duena. Lehen aipatu dudana bigarren alorrari dagokionez kontu bakarra datorkit burura: bermatu beharra dago hezkuntza sistematik irteten diren gazte euskaldunen hizkuntza gaitasuna —hizkuntzaren kalitatea barne— eta, ahal dela, hizkuntzarekiko atxikimendua ere.

Hirugarren alorra kulturaren berezko esparruari dagokio. Hau da, kultur produktuen kontsumitzaile potentzialak baldin baditugu, azken urratsa ematea eta produktu horiek erabiltzea bakarrik falta da. Jakina, produktuen kalitatea beti izango da funtsezko eragilea, baina ez dut uste alde horietatik kezkatzeko arrazoi handiegirik dagoenik. Euskaraz egiten den kultur ekoizpena, nire aburuz, kalitatezkoa da ia esparru guztietan, eta guztiz homologagarria beste edonon egiten denarekin. Baina zerbait gehiago behar da, produktuen kalitatea bera nahikoa ez baita. Euskaldun askok, bai eta kultur maila garaikoak ere, ez dute ohiturarik euskaraz sorturiko produktuak kontsumitzeko. Askok ere handiagoa da erdarazko produktuen eskaintza eta, beraz, produktu desberdinen artean aukeratzeko orduan, erazagoa da erdarazko zerbait aukeratzea. Azken batean, probabilitatearen legeek kontu honetan ere jokatzeko dute. Zinema da adierazten ari naizenaren muturreko adibide bat, baina produktu guztiekin gertatzen da neurri batean. Alor honetan, ezinbestekoa deritzot herri erakundearen sustatze lanari, merkatuaren legeak, nonbait, neutralizatuko badira.



Izan ere, uste dut herri erakundeei aitzindaritza egokitu beharko litzaiekeela kultur sustapenaren eremuan orokorki. Hau da, bestelako herri politiketan egiten den bezala, herri erakundeek gertu dituzten tresnak erabili beharko lituzkete euskal kulturaren eragileak ugariagoak, sendoagoak eta dibertsifikatuagoak izan daitezen. Azken batean, egia da eskaria ezinbestekoa dela eskaintza mantendu ahal izateko, baina egia da, era berean, eskaria eskaintzak berak elikatzen duela askotan.

Amaitzeko, azken hiru kontu txiki ekarri nahi nituzke gogora. Hona lehen a: kultur eragileen dibertsifikazioa aldarrikatu dut lehenago, baina berriro adierazi nahi dut dibertsifikazio horren osagai bat jatorri geografiko-kulturala izan beharko litzatekeela. Hau da, joan den urtean bezala esan behar dut periferiak periferia izaten segitzen duela. Uste dut Bizkaia dela euskaldun gehien duen herrialdea baina ez du ematen hori horrela denik, eta bai, geure errua da, baina ez geurea bakarrik.

Hona bigarrena: herri komunikabideak urratzen ari diren bidea oso interesgarria eta emankorra da. Hor dugu aldarrikatzen dudana dibertsifikazioaren adibide bat, eta nire ustez eredu garria ikuspuntu askotatik. Zabalduta eta sendotu behar den bidea dela uste dut.

Gogoetarako datu bat da hirugarren hau: hezkuntza sistemaren D ereduaren eta unibertsitate sartzeko hautapenaren zenbakiak adierazten duten bezala, gazte euskaldunak kontzentratzen ditu Unibertsitateak. Hau da, gazte erdaldunek lanbide heziketa nahiago dute, edo batxilerra amaitzean, lan merkatura iragaten dira zuzen. Euskaldunek, berriz, unibertsitate ikasketak hobesten dituzte. Horrek, ez dut zalantzarik egiten, aurreikus ezin ditzakegun ondorioak izango ditu, gizarte mailakoak batzuk eta kulturaren esparrukoak besteak. Hausnarketarako kontua da ikuspuntu askotatik, baina kultur eragileen sendotzearen eta dibertsifikazioaren ikuspuntutik hori ez da berri txarra. Eta Unibertsitateak ere kontuan izan beharko luke hori.

Herri normal bateko herritarra izateko itzaropena galdu ez baitu. ♪



## Allande Sokarros

### **Agosti Xaho, laiko eta ezkerria, kristaude- mokratek eta eskuindarrek omendua!...**

Agosti Xaho, Atharratzen 1810ean sortu eta Baionan 1858an hil zen idazle, kazetari eta politikari laiko, errepublikano, ezkerriar, euskaldunak, ez zuen, segurraz ere, gustukoa izango iragan azaroaren 23an gertatutakoa. Egun horretan, Atharratzeko bere sortetxe aurrean eta barruan —gaur egun Trinketea taberna dago— Xahori gorazarre egiteko elkartu ziren EAJko kristaude-mokrata batzuk eta, duda barik, gehienak eskuinean sailka daitezkeen Xiberoko Zohardia elkarte folklorezaleko zenbait. Egia esatearren, haatik, beste parte-hartzaileak bazen, hala nola Xahori buruz tesi baterako ikerlan sakon bat egiten ari den Fermin Arkotxa edo, 1988an, Urdiñarbeko herriak eman zuen *Agosti Xaho* pastoralaren idazle eta süjet izan zen Jean-Michel Bedaxagar. Hala eta guztiz ere, sustrai kristauak dituen alderdi bateko jarraitzaileek eta euskal nortasunari folklore hutsa besterik ikusten eta onartzen ez dioten zenbait lagunek Agosti Xaho ohoratzeak araugabezia itxura zuen. Gertakari arraro honen abiapuntua da jeltzaleak dauden Bilboko Agosti Xaho kultur taldekoek eta folklorezaleak diren Zuberoako Xiberoko Zohardia elkartekoek elkar topatzea eta elkarrekin Xahori gorazarre egiteko asmo bat lantzea. Horra, hain zuzen ere, froga bat gehiago, beharra balitz, Hego Euskal Herriko euskal, euskaltzale edo abertzale munduko askok —gehienek?— Ipar Euskal Herriaz oso ezagutza eskasa, desitxuratua, estereotipoz hazia eta, azken batean, okerra ere daukatela. Berehala aitortuko du, hargatik, Ipar Euskal Herriko bizilagunetatik gehiengo zabal batek —baita euskalgintza eta abertzaletasun munduetan murgildutakoek ere— gutxi dakiela Hego Euskal Herriko gizartearen izaeraz. Alabaina, bi egoera hauen ar-

teko ezberdintasun handia da, ordea, Ipar Euskal Herriko euskaltzale eta abertzale jendeak behintzat ez duela Hego Euskal Herriaren alderat tamalezko esku edo sudur sartzerik egiten... Orogen buru, Agosti Xaho kultur taldeko jeltzaleak Xiberoko Zohardiako folklorezaleekin eskuz esku ibiltzeak penagarri egiten zuen. Alta bada, elkarrekin ongi konpontzen zirela ematen zuen, harreman berbatsuak zeuzkatelarik... erdara hutsean, haatik. Oro har, ez dut uste iragan azaroaren 23ko omenaldi egun hura preziatuko zuenik Xahok eta seguru nago, ordea, euskaltzaletasunarentzat eta Hego zein Ipar Euskal Herriko bizilagunen arteko elkar ezagutzarako erabat hutsalekoa izan dela.

Oraindik egitekoa geratzen da, beraz, Agosti Xahori, merezi bezala, agur eta ohore egitea. Ez dut esan nahi, haatik, ezker abertzalean sailkatutakoek egin behar lioketela. Hori ere ez litzateke inondik inora komenigarria, lehenik eta behin espiritu libro bat zen pertsonaia batez jabetze interesatua litzatekeelakotz. Xaho ahanzturatik irteteko moldeen bat asmatu behar litzateke, alderdikierietatik eta xelebrakerietatik kanpo. Kazetaria, idazlea eta euskalduna zenez gero, zergatik ez pentsatu kazetari edo izkiriatale euskarazko idazlan batentzako Agosti Xaho sariketa bat eratzea? Beste ideiarik egon daiteke... hoberik ere segur asko.

## **Pastoralaren arrakasta handiaren atzean, akatsak ikusi beharra**

Azken urte amaieraotan, *Jakin* aldizkariko irakurleekin daukadan hitzordu honetara natorren aldi oro, Zuberoako pastoralara izan dut hizpide. Barkatuko didazue aurten ere halaxe izatea, asko baita errateko gure euskal antzerki zaharraz eta azken garaiotan nabarmendu zitzaizkion aldaketan alde onaz ala txarraz. Hedabideetan eta herritar gehien artean ez badira sobera zabaltzen ere, eztabaidak badaude pastoralaz, adituen edo behintzat pastoralara apur edo aski ezagutzen dutenen artekoak egia esan. Joan zaigun urte honetan, Idauze eta Mendiko herritarrek agertu diguten *Ramuntxo* pastoralak hautsak harrotu egin dituela eratea ez da gehiegikeria. Pier-Paul Berzaitz musikari eta

kantariak idatzi eta moldatutako lan honek ahapeko edo botz ozeneko kritikarik sortu du, hala nola gaiaren arintasunaz, historiaren interes gabeziaz, testuaren sakontasun ezaz, musika aire batzuen izaera desegokiaz eta besterik.

Iritzi kritiko hutsez haratago joan dira Jean-Louis Davant eta Junes Casenave-Harigile, biak, beste obra askoren artean, pastoral idazleak direlarik. Jean-Louis Davantek *Herria* euskarazko astekarian eta Junes Casenave-Harigilek Zuberoako euskal kulturako jardule andana bati helarazitako oharrean adierazitakoekin bat nator erabat. Hauek bezala, iritzi diot pastorala dela, lehenik eta behin, testu bat, pertsonaia baten bizi-urratsen edo gertakari baten nondik norakoen kontakizunean oinarritutakoa. Junes Casenavek dioen bezala, pastorala idatzi bat da eta horrela denez gero, idazkera eta gramatika arau batzuen mendago. Gaiaren aldetik, berriz, pastorala ez da baitezpada egiazki bizi izan den edo benetan gertatu den norbaiten edo zerbaiten aipamenean mugatua. Hala, Junes Casenavek izkiriaturtako *Pette Basabürü* pastorelean, izen-abizen horietako inor ez da izan... edo hobeki errateko, Pette Basabürü izan zitekeen Euskal Herrian bizi eta lan egin nahi zuen edonor. Asmakizunezko pertsonaia bat egon daiteke, beraz, pastorala bateko gai, zerbait kontatzekoa izango den baldintzarekin, haatik.

Azken 10-15 urteotako pastoraletan ere, beti onak izan ez diren bilakaerarik egon da, hala nola arizale kopuruaren inguruan edo jautzien kontuan hazi egin den sasi-lehiaketarena. Mendeak zeharkatu dituen kultur gertakari batek milaka ikusliar erakartzearekin daukan arrakasta pozgarritzat har daiteke, dudarik gabe, alde batetik. Bestalde, haatik, gurpil zoro batean ez garenez sartuak gogoetatu behar ginateke, beharbada. Zuberotarrek pastorala odolean dutela ezin da ukatu, jakinez herri bateko bizilagunen artean taulada gainera igo nahi dutenak aurkitzeko nekerik batere ez dela. Alabaina, bide horretan zeingehiagoka batean bezala jokatzea komeni al da? Jantzien kontuaz, berriz, bilakaera oso ona bezala jo daiteke hauetatik gehienak pastorala egi ten duen herrian bertan eginak izatea. Hor ere, hartatik, nire iritzi xumean, dena da neurri kontu bat. Herri batek


emandako pastoral bateko jantziak baliagarri baldin badira beste trajeria batentzako, zergatik behar litzateke bakoitzak berea antzeko joko makur batean sartu?

Alabaina, gaur egungo pastoralen akats handiena gaitzeko diru gastuen eta sos biltze gehiegizkoen inguruan ikusten dut. Zinez araugabekoa deritzot publikitatez betetako plaketa bat osatzea eta, denbora berean, lekuak garesti ordainaraztea. Okerra ere, pertsonalitate bezala sailkatutako jende batzuk, kargu politiko handikoak esaterako, dohainik sartzerat gonbidatzea (nahiz eta askok dirua nola edo hala ematen duten) eta diru gutxi dutenen mesederako, aldiz (ikasle, langabetu eta beste), ezer ez pentsatzea. Are lotsagarriagoa, pastoral egunean, edarien salmentarekin egiten den merkatu onartezina. Pastoralean salduta izatea nahikoa arrazoia bada prezioak bitan edo hirutan biderkatzeko?!? Lapurreta hutsetik hurbil den jorkaera bat dela esango nuke eta oso ulergarri eta bidekotzat iritzi diot ikusliar gero eta gehiagok euren edariak eta beste ekartzea. Gauzak bide makur honetatik aurrera joanda, ez nintzateke harrituko, haatik, egun batez pastoral antolatzaile bat ausartzea norberak ekarritako edari edo freskagari hauek sarreran debekatzea. Garaia balitzateke antzeko zerbait gertatu aurretik, 'aski da' ozen bat aldarrikatzeko... baina nork egingo duen eta nola, hara galdera. Euskal nortasunaren ukatzeari, euskararen atzera egiteari, Zuberoaren jendez husteari orain arte behintzat gogor egitea lortu duen pastoralak ez luke, azken batean, diruaren lege nardagarrien eraginez desagertu behar.

## **Euskara eta euskal kultura gatazka politikoaren gatibu izateari ez**

Euskalgintzako jardule ororentzako bezala, oso mingarria izan zen niretzako otsaileko ostegun beltz hura, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten egunekoa. Gogorak ere ondorengo egunak, hamabi urte haietan biziarazi eta hazitako baliabide batean esku-hartzaile izan ginenon egoera personaletatik askoz ere haratago joaten ziren kezka eta

antsiaz betetakoak. Bihotz altxagarria, aitzitik, bi egun beranduagoko manifestazio alimalekoa, herri baten ihardukitze gaitasuna sekulako indarrez erakutsi zuena. Jendolde gaitz horren haserre oihuen artean penagarri izan zitzaidan, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko agintarien aurka airera botatako gaiztakeriak. Nik dakidanez, Madrillgo agintearen eskupeko epaile bat eta guardia zibila izan ziren *Egunkaria* itxi zutenak, ez ordea, Gasteizko Jaurlaritza eta Ertzaintza. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ez zela manifestazioan? Eta orduan zer? Madrilen oldar egiteari zerbait eragozpen ekarriko zion Ibarretxe bertan izateak? Galdera hauek egitean, haatik, ohartzen naiz, nola edo hala, euskararen, euskal kulturaren, euskarazko hedabideen kontua bera ere euskal herritarren arteko gatazkabide ezarri nahi dutenen jokoan sartzen naizela. Hargatik, ez dut esango, inondik inola ere, euskalgintzan jarduten dugunok euskara politizatu egin dugula, euskal munduko jende ezagun baten hitzetan irakurri dudana bezala. Euskararen biziarazi nahiaren, normalizazioaren alde izatea eta zerbait egitea, berez jarrera politiko bat da. Horrekin konforme nago, argi eta garbi. Ontzat jotzen ez dudana da, ordea, euskararen alde izatea eta jokatzeko alderdikeriarat eramatea. Euskararen zaintzeak, sustatzeak, bultzatzeak, garatzeak, ohartze eta jokatzeko politiko bat behartzen duela onartzen dudana puntutik, euskaltzale izatea abertzale izan gabe ezinezkoa deritzot, baina, horretatik haratagoko ondorioztatzerik eta eragin politikorik ez zait onegarria iruditzen. Euskarak, euskal kulturak, euskararen garatzeko baliabideek —irakaskuntzakoak kasu—, euskarazko hedabideek ez dute 'eskuineko' ala 'ezkerreko' abertzaletasunen gatibu izaterik. Hori bai politizazioaren makurbideetan ibiltzea litzatekeela zinez. Euskaltzale denez gero —eta, nire iritzian, abertzale denez gero— edonork badu zereginik gure Euskal Herri honetan. Litekeena da, ameslaria naizela, aingeruen mundu batean bezala gauzak ikustean murgilduta nagoela, baina euskara alderdikerien gaineratik jarri beharri sinesten diot. Euskara ez da inoren jabetza, Euskal Herri euskaldun bat gurako dugun guztion arteko ondasuna baizik. Hala izan behar luke behintzat. ¶



## Andres Urrutia

### Jose Mari Satrustegiren itzalpean...

Larritu dira, dagoeneko, lerro hauen irakurle batzuk, Jose Mari Satrustegi nafar euskaltzale gartsuaren heriotza euskal kulturaren goiburuan jarrita 2003. urte honetan. Joanaren zaporea, bistan da, ahaztuxea izaten da pil-pileko azken boladen aurrean. Izatez, aldako txoriak dira nagusi orain, kultura eta herrigintza mailan. Funtza, pisua eta zentzua erakusten dutenak, aldiz, iraganaren gatibu aurkezten zaizkigu, behinolakoa izan zena gaurko egoera paradisutsuak arras gainditurik izango balu bezalaxe.

Sobera ditugu halakoak. Sobera ere, beharbada, boladako gehiegikeriak. Ukaezinak, bestalde, egokitu eta gaurkotzeko premiak, betiere, euskarri sendo eta irmoak, euskararen gintza erro-errotik jar dezaketenak, Euskal Herriaren lurraldeetan.

Tankera horretakoak asmatu eta praktikan ezarri zituen Satrustegi zenak, Nafarroan ez ezik, euskararen geografia osoan ere. Hartara, gero euskaldun baten haziak erein eta artez desberdindu zituen lan horren eskakizunak, maila teorikoan eta ikerketan —horra haren gidaritzapeko *Fontes Linguae Vasconum*—, nahiz zeregin egunero-koagoetan —*Suplemento en Vascuence de la Institución Príncipe de Viana*, bestelako liburuak, hitzaldiak, artikuluak, hamaika ikastola eta ekimen euskaltzaleren sustapen-lana—. Luze joango litzateke, ezbairik gabe, hark ondutako emaitzen zerrenda plazaratzea.

Emaitza horiek, haatik, ezin ezkuta haren aldarte eta tenore eragilea. Hagiografian amildu beharrik ez dago, nafarraren giza tenorea aipu goienetan jarri ahal izateko. Jakin izan zuen Satrustegik, euskara eta Nafarroa zirela eta, aldiari aldiko eta tokian tokiko inguruabarrak neurt-

zen eta zertzen, beti-beti euskararen aurrerakada lortzeko. Dohain bereizi zitzaion hori, eta, jakina, esku onez erabili zuen.

Erantzukizunak aurrez aurre hartzekoa zen, ihesaldiei muzin eginez. Ahoan bilorik gabe aldarrikatu zuen, Euskaltzaindiak hala erabakita —bera ere tarteko, noski—, euskararen batasuna ezinbestekoa zela euskara aitzinatze-ko. Era berean, Euskararen Akademian ardurak bereganatu zituen, zuzendaritzaren zereginetan partaide izanik. Euskaltzaindiaren norabidean, ezin aitzi, zerikusi handia izan zuen Satrustegiren ekinak.

Sarri-askotan izaten dira eztabaidagai gure artean euskararen oraina eta geroa. Arrangura latza izaten dugu hori, eta bakoitzak berea plazaratzen du, saiakera luze, artikululu mamitsu nahiz iritzi-kontu xumeetan. Aldazale zein egongura izan, gure hizkuntzaren nondik norakoak artegatzen ditu euskaltzaleak. Egingarria da politika bera euskal herrialde guztietan edo bakoitzak bere xehetasun propioak al ditu? Kinka larri horretan eredugarri Satrustegiren jokamoldea, egundo ere Nafarroako izaera zokondoratu ez zuena.

Nafarra zen, eta nafar izate horrek ematen zion hari euskalduntasuna. Harrabots handiko adierazpenik gabe, hark erakutsi zigun guztiz egingarri zela Nafarroaren nortasuna aintzat hartu eta osterantzeko euskal lurraldeetan euskararen aldeko langintza gauzatzea.

Itzali zaigu Jose Mari Satrustegi, beharren genuenean, Nafarroako eta Euskal Herriko euskalgintzak bera lema-zain ziur eta heldua ikusten zuenean. Hura zen belaunaldien arteko estekadura eta lotura, berriagoen makurrak eta lerrakerak zuzentzen zekiena, ekinak ematen duen ja-kinduria ezaugarri zuela.

—Euskaltzalea eta euskaltzaina—. Halaxe esan diote Satrustegiri, bi horiek barne-muinean loturik baitzituen berak. Euskaltzalearen eta euskaltzainkidearen gorpuari Arruazun agur egin genionean, jakin bagenekien, hura itzali arren, haren itzala babesleku eta sorospide genuela, luze eta zabal balia dezagun.

Adiorik ez, adixkide!



## ... eta justiziaren atzaparretan...

Horazioen *Beatus ille* gogoangarria dator burura euskal kulturaren 2003. urteko giro judiziala gogoratzean. *Orixe*-k jarri zizkion euskal hitzak latindar idazleari, nor noiz den zorionduna agertzeko. «... Auzilari eta aundizuen jauregira ez da beñere joango...» laburbildu zuen olerkariak bere nahirik kutunena eta barrukoena, jendaurrean eta gatazka itsuetatik ihes egiteko.

Tamalez, behin baino gehiagotan egokitu zaie azken garaiotan euskalgintzan ari diren frankori justiziaren jau-regira agertu beharra. Ez, bistan da, euren nahiaz, ezpada epaileen eraginez. Halaxe zabaldu da susmoaren hodei beltza euskararen alorrean. Aurreko terrorismoaren salaketak ekarri du oraingoan zerga-iuzurraren ezpata euskaltzale batzuen izenetara.

Bakea nahi zuen olerkari erromatarrak bere bizi-jorretan jarduteko. Bakea ere behar du kultur giroak, hitza eta iritzia elkarrekin trukatzeko eta gizabidean aitzinatze-ko. Bat-bateko zurrunbiloak, hala ere, zirikatu eta harrotu ditu euskalgintzaren bazterrak. Inon direnak eta ez direnak entzun, ikusi eta irakurri ditugu, euskalgintzaren barnekoak gogor astinduz.

Sinestezina bada ere, berriro sortu da betiko planteamendua, eta justiziaren izenean aldarrikatu zaizkigun sarekadek asaldatu egin gaituzte. Legea eta antolamendu juridikoa aipatu zaizkigu ostera ere, epaileek egin behar dituzten ikerketak eta azterketak zurrizteko. Bego. Ez dut nik hori aurkaratuko, are gutxiago legea bera egunero aplikatu behar dudanean. Bai, ordea, urte askotako erakutsia duten hainbaten espetxeratzea kritikatu, gerogarenean funts eta ganoragabekoa izan ohi dena, sekulako kalteak —pertsonalak nahiz bestelakoak— alfer-alferrik sortu dituen.

Zilegi bekit, hortaz, atxilotuen alde agertzea, eraz eta moldez eska daitekeelako kontu-ematea, eurotako askok argi esan duten moduan. Amorrua, herra, gorrotoa eta higuina dira horren emaitzak, hain zuzen ere, Euskal Herrian sobera ditugunak. Beste horrenbeste, gorroto eta erdeinu hutsean oinarritutako teinkada eta ahari-topekak.

Luze joko du euskalgintzaren epaiak. Beldur naiz, halaber, ez ote den ezerezean geratuko. Axola zait, bestalde, euskalgintza bera ez ote dugun zalantzapean jarriko, ustez sarekaden aurkako bulkada horiek bideratuko dutela soil-soilik euskararen geroa.

Zernahi gisaz, eginkizun ditu euskalgintzak bestelako esku-erakutsiak, inork bidegabe ezarri dion delituaren susmopetik ateratzeko eta gizarteari erakusteko berez dago-kiona, alegia, euskararena bultzatu eta garatzea. Eta hori, jakina, ezin gauza daiteke, amorruek eta herrak gorabehe-  
ra, pentsamendu bakarreko alderditik, aniztasunaren es-  
parrutik baino. Zin-zinezko aniztasuna, iritzi guztiak ber-  
din-berdin aintzat hartu eta bideratzen dituen eta aurrei-  
ritziak eta inoren bazterketak onartzen ez dituen, norbe-  
rarenari —eta ez bestearenari— beti ekin eta ekin jardun  
gabe.

### ... biziraupena bermatu gabe

**B**ada, nolanahi ere, zertaz kezka eta ardura non jarri eus-  
kal kulturen eta euskalgintzan. 2003. urte honek soka be-  
retik ekarri ditu halakoak.

Ispiluari begira jarri eta zilborreosteaz kanpoko zerbait  
gehiago ikusteko parada bilatuz gero, laster atzematen di-  
ra euskalgintzaren gabeziak eta deusezak, azaleko emait-  
zek eta ondorioek estali ezinekoak.

Norbaitek dagoeneko pentsatu du ea berriro nato-  
rren, ohi bezalaxe, hiltamuzko lantuek eta agolinako ne-  
garak erakustera. Krokodiloarenak izanik ere, uxa ditza-  
dan horiek nire asmoetatik. Etor bitez, gisa ez bertsuan,  
bestelako premiak, euskararen esparru estrategikoei heldu  
eta behar diren bezala lantzekoak.

Itzulietara nabilenik ere pentsa dezake beste batek,  
2003. urteko hau, eginaren bidetik baino, eginkizunaren  
alderditik baitarabilt. Fanfarroi ari izan gara, merkatuaren  
zati txikitxo bat hartuta, euskararen alorretik. Plazaratu  
beharak eraginda, isileko lana ahaztu zaigu, arian-arian  
zimentarri eta sendo habeak lurrean sustraitzen dituen.

Euskara noranahi zabaldu nahi eta euskara bera —gizartea lekuko— oztopo dugu, irakaskuntzatik kanpoko ogibideak erdiesteko. Etenak ditugu hainbatetan, euskaraz ikastolan hasi, euskaraz unibertsitatean jarraitu —ez be-ti— eta lanbidearena gauzatzeko orduan euskara bera baz-ter utzi behar dugunean. Arazoak zaizkigu eguneroko go-rabeheretan gaiak euskaraz landu beharrak, erdaren itsaso zabal bezain errazak aldamenean eskaintzen dizkigula at-seginak eta atsedanak.

Bestela ere, ardura barik bizi izan ditugu euskal kul-turaren erakundeek pairatzen dituzten baliabide ezak eta gabeziak, komunikabideetan arrakastatsu dabiltzan beste gertaera batzuetan inolako damurik gabe diru-parrastada ederrak xahutzen direla. Falta izan dugu 2003. urtean ere, salbuespenak bazter utzita, euskal kulturaren erakundet-ze-gogoa.

Horren truk, gero eta sarriago, mota askotako atxiki-menduak eskatu zaizkigu euskaltzaleoi, batzuen eta besteen egitasmoak jokoan direla. Itsumustuan goaz baten eskue-tatik besteen altzora, ondo-ondo jakin gabe zer eskatzen zaigun, zeren edo noren izenean eskatzen zaigun, euska-raren ala interes jakin batzuen mesederako.


Egitasmo baten berri izan dugu azken hilabeteetan. Horren ildo esanguratsuenak ere plazaratu dira Ibarretxe lehendakariaren eskutik. Haragoko urrats politiko baten tresna izan nahi du horrek, eta eztabaidagai datorkio eus-kal gizarteari, proposatzaileak ere hala esanda.

Euskararen ofizialtasuna da ageriko testu horretan. Horretarako esamoldea, aldiz, orain dela hogeita bost ur-tekoaren tankerakoa. Asmamen gehiago eskatzea, mentu-raz, ezinezkoa zen une honetan, politikaren nonzeberri horiek zoko eta zokomoko guztiak betetzen dituztenean. Nago ea euskarak ez ote duen gehiago merezi, ofizialtasu-naren aldarrikatze hutsaren gainera, berari aitortzeko Euskal Herriaren historian duen berezko izatea eta aiurria.

Berezkotasun horrek ekarri beharko luke, ezbairik ga-be, hizkuntza-araubide zabalago eta sakonago baterako aurrerapausoa, euskal kultura eta euskalgintza lotu-loturik baitaude euskal gizartearen etorkizunarekin. Zoritxarrez,

oso gutxi entzun eta irakurri izan da aurten autu horren inguruan. Hori ere, ezbaiaren errekan, adostasungai izan beharko dugu noizbait.

Susmopean hasi genuen urtea, eta halaxe bukatzea ere nahi digute batzuek. Euskalgintza aspalditik estali duen hegada beltza —togaduna nahiz gorbatarik gabekoa—, urte-hondarrean ere harroxko dator. Berori gainditzeko tenorean, ni neu behintzat, adoretzu jokatzeko prest nago, *obrak mintzo* titulupean. Adorekiderik bai?¶



## Josemari Velez de Mendizabal

### Balantze atipikoa

Auskalo Medemen zorioneko pelikula horrek muga-historiak kontatzen ote dituen —kritiko batek esan berri duenez— edo espainiar optikatik begiratuta diferentzia salbaezinak markatzen dizkigun espainiar sentsibilitaterako. Alde horretatik nahiko lasai nagoen arren, bada zailantza izpi bat arduratzen nauena: izango ote gara gai euskaldunak sarrarazi gaituzten zurrumbilo ero honetatik onik ateratzeko?

Txikitako adiskide batek arestian gogoratzen zidanez, bagenituen garai hartan joko polit pare bat, kaniketan ari ginenean, «Lekak» eta «Bizkarrekoak» deitzen genituenak (erdal Arrasate hartan «jugar a lecas y a bizcarreco» esaten genuen). Laguna ez zen inoiz oso trebe izan joko haie-tan eta berak zioenez, jokoan kanika mordoa galtzeaz gain, sekulako zartada galantak jasotzen zituen bizkarrean jolaskideek eskainita, jokoaren arauak markatzen zuten moduan. Beti makurtuta, beti jipoitua... eta kanikarik gabe. Horixe izan zen lagunaren patua, jolas haiei betiko agur esatea egokitu zitzaion bitartean.

Eztrebetasunak eragotzi zion lagunari jolas-miseria hartan burua altxatzea eta haurtzaroa aihen lastimosoan erre behar izan zuen, zigor hartatik ihes egin aurretik. Bertiko alde egin zuenean ume aroa zeharo galduta zeukan lagunak... bere zoritxarrerako. Eta haurtzaroko etsipenek geroko bizitza-bideak suzko hizkiz markatzen dituztelako, ezintasun errotu hark baldintzatu egin dio batzuetan besteekiko jarrera, adiskideak aitortu zidanez.

Euskal gizartea leka eta bizkarreko galantak pairatzen ari da aspaldiontan. Eta gu ez gara lekuko isilak gertatzen ari, nahiz eta batzuetan horrela irudi daitekeen. Horixe da geratzen zaigun altxorrik preziatuenetakoa, hots, erreakziorako dugun erraztasun paregabea. Oinazerako kapazitateaz gain, eraso jarraikiaren aurrean tinko agertzeko dugun mendetako iaioitasuna ez da gauerdiko ahuntzaren eztula. Ezta hurrik ere. Eta horri esker joan gaitzeko oraindik ere harro munduan zehar.

Mendira igotzen naizenean, gora noalarik atzera begiratzeak ez duela ezer onik iragartzen sinetsita banengo bezala, ez dut burua biratu ohi; mendi erpinetik jaisten naizenean ziur egoten naizelako, goraino iritsi aurretik atzera zein-nolako aldapak uzten ari naizen jakinez gero, ez nintzela inoiz tontorreraino helduko. Goranzko ahaleginean nire bizkarrean utzitako zailtasunei begira txundituta egoten naiz beheranzkoan, nire indarretan federik izango ez bainuen.

Euskal gizarteak, bada, Sisiforen mendi aldapatsuan ari balitz bezala, etengabeko saiakera zamatsuan du etorkizun, eta ez beste inon. Gero eta argiago dago geuri dagokigula biziraupenerako asmoaren behin eta berrizko erakuspena, inoiz amore eman gabe. Gora eta gora beti, goitik beheranzko bidea ostera hartu beharko dugun arren, eragozpen eta langa guztien gainetik. Indarrak sobera ala gainezka ote ditugun pentsatu barik. Lepoan harrira hartu eta tipi-tapa sinkronizatuan gora eta behera amaiera gabean eraiki behar dugu etxea, itxaropentsu, nahiz eta etxe ahula izan, lau haizeen arrisku bizi egokitu. Orain arte egin den legez, euskaldunak ez baitu sekula bere sinuaren lema askatasunez erabili ahal izan, eta

horrek eragotzi egin dio etxea ekai iraunkor eta sendoz eraiki ahal izatea.

Urteko kultura balantzeaz galdetu didate erredakzio-tik eta aurreko lerro horiek azaldu zaizkit lehen-lehenik orrialde zurira, balantzeko ordena-kontuak bailiran. Eta Medemen pelikula oroitu dut, urteko beste edozein ezbehar baino lehen. Ez dakit zergatik etorri zaidan aurrenik *La Pelota Vasca*-ren oroitzapena, *Euskaldunon Egunkaria*, Martin Ugalde Parkea, immigrante hitza, euskararen «demoak» eta abar baino lehen. Edo Donostiako Zinemaldia, Gasteizko Jazzaldia eta Altarribaren purrustada espainieraren aldeko aldarrikapen sonatuan.

Baina, otoi, neur ditzadan haserreak dimentsio egokian. Gaur goizean guardia zibil batzuei, Itziarko Errestopean, «kafesne bat eta huts bat» eskatzea entzun diet, euskara argian. Gauean, berriz, adiskide batek deitu nau telefonoz, sutan, Medemen pelikulan ERNEko ertzain batek «la ertzaina...» lasai asko bota duela entzun diolako, hura erakundeari buruz ari zelarik. Mundua hankaz gora. Eta gu erdi-erdian, hurrengo harribitxia zein izango den asmatu ezinik. Eta bidea sastarrez zikinduta, erratza behar bezala pasatzeko egokiera noiz emango zain.

Ni konbentzituta nago, mundu osoan ematen ari den unifomizazio antzugarria dela eta, laster kultura planteamendu erdi ahaztuetara itzuliko dela gure gizartea. Euskal nortasunaren defentsan Franco diktadorearen garaian ikurrin gisa hartzen genituen praktikak berpiztuko direlakoan nago, azaleko manifestazioak izango ditugularik, berriz ere, bere ezintasunetik atera ezinik borrokatzen ari den herriaren sustrai-erakuspena. Eta, adibidez, euskal kantak itzul litezke bazkalondokoetara, dantza taldeen presentzia areagotu kale eta enparantzetan eta, seguruenik, txapelak ere lehengo bere espazioa berreskura lezake, kaikuarekin batera. Onerako? Batek daki! Dakidana, ordea, zera da, abiapuntu defizitario baterako txartel guztiak erosi genituela, eta horrek ekarri ditu gaur eguneko haize eraunsi franko.

Nondik abiatu beharko genukeen ahaztu gabe, beraz, bada beste erreferente bat ere zeharo inportantea geure ekintza planteamenduei begira. Ni, adibidez, Euskal He-

rrian munduratu ninduten eta beraz Europan. Espainian egin ote zuten ez dut hain ziur. Eta ni europar kulturara, euskal kultura eta espainiar kulturaren bitartez heldu naiz... greziar eta erromatar kulturek ere zipriztinduta. Europa da nire herria, Euskal Herritik iritsita. Eta orain hori ere ukatu nahi didate, indar ukatzaile ero eta zentzugabe batek aginduta. Jaiotzeaz dugun Europako Konstituzioak bide dioenez, estatuak eta gizabanakoak bakarrik existitzen dira. Indarraren arrazoiak inposatuta, Euskal Herria ez da etorkizunean izango. Esan nahi dut, laburbilduz, legez sustraitik ebatsi nahi dizkigutela gizabanakooi, hain zuzen ere, sustraietarako loturak. Eta nik dakidanez, hori go-goaren —arimaren— kontrako atentatu salagarria da.

Inguruari begira, espainiar gobernuaren kontserbadorismoak bere jatorria espainiar eskuindar-petoen zuztarretan jartzen duela antzematen dugu. Eta ez dago bueltarik. Abertzalekeria etnozentrikoaren paranoian eraiki dute euren estrategia. Erlijioa, patriotismoa, sendi-integritatea eta besteen ideietarako joera ezkor jarraikia aukeratu ditu alderdi eskuindarrak bandera gisa. Espainiar gobernuaren politika ofiziala da hori, estatubatuarren sostenguekin zuzendua, noski, eta europar estatu indartsuen indiferentzia zein laguntzarekin. Patriotismoa eta okupazioa, esparru politiko zein ideietan. Izan ere, debekatua dago pentsatzea. Ez zaio ideien balizko aplikazio okerrari jartzten, ideiak edukitzeari baizik!

Eta espainiar gobernuak, espainiar gizartea beldurtuta (eta engainatuta) eduki ahal izateko gezurra erabiltzen du noiznahi bere estrategian. Gezurrik handien dioena txapeldun! Horixe bide da joko. Ez da truku bat, beharkizun bat baizik, izan ere gezur bat beste baten ondoren jartzeak errealitate bat baieztatzen du. Eta hori badakite ongi. Gezurtia hanka-motz, ohi diotenez. Baina kasu honetan, ene irudiz, luze joko digu gezurtia oratzea, ardatz diaboliko baten inguruan ehuntzen ari baita munduko ordena berriaren eskema. Eta hor ez dugu ahalkeok zereginik, geurea arrazoiaren indarra baita, eta produktu hori aspaldi desagertu zen azoketatik. Geure gisakook betiereko zaintza sakonean dugu balizko susperketaren giltza,

inoiz uhin birrintzaile honetatik askatuko bagara. Ezin gaitzke, beraz, lotan egon, inondik ere.

Koldarrak beti jotzen du traizioan, eta koru lausengari baten premia baldin badu ez dio borondateak erosteari muzin egingo. Hemengoa jotzea hangoa beldurrarazteko. Eta koruak koldarraren merituak abestuko ditu, interesatuta. Stalinek horrela egiten zuen eta baita Francok ere. Bi satrapa horiek populazio engainatuan eragiten zuten beldurrarekin hazten ziren euren erokerian. Sistemaren motorra zen beldurra. Lehen bezala orain ere, euskal gizartea etsai bilakarazi dute eta espainiar herria eta bere agintarien arteko lotura sendoagotu da, geu garelarik euren amorruren helburua.

Kultura da gure alderik ahulena; eta hori dakitenak haren kontrako eraso kontrolatura pasatu dira. Bushek hain gustuko bide duen ekintza prebentiboa erabiltzen dute, eta ez zaio inondik ezelako balaztarik jartzen ari. Ezta oposizio aktiboa egin beharko liokeen psozialisten alderditik ere. Euskaldunok gutxi gara eta gainera zatituta. Horregatik gara «diferente», adibidez, katalanengandik: gutxi garelako. Ikusi, bestela, Kataluniako hauteskunderen ondoren gertatutakoa... Eta erreakzioak? Baina, gatozen geurera: kultura ahula bada, zer esan euskarari buruz? Boxeolari batek arierioaren gibela aurkitzen badu, hara zuzenduko ditu bere kolpeak, aurrean duena lonara botatzeko. Eta geure punturik debilena zein den dakitelako, jo eta ke ari zaizkigu erregimeneko boxeolariak, gibeletik hasita gorputz osoa txikitu nahian.


Baina gizakiak suntsituak izan daitezkeen arren inoiz ez dira garaituak izaten, eta horixe da kontuan eduki behar duguna: ahaleginduko diren arren, ez gaituzte bentzutuko. Nekagarri gertatuko zaigula? Bai, noski. Nazkagarri? Dударik ez. Baina, eragozpenak eragozpen, pizgarri bihur ditzakegu, bidean barrena lagun diezaguten. Guk ez ditugu hilerriko paretak eraiki behar, alferrekoaz gain gizartea konpartimentatu egiten dutelako, eta ez zaigu zatiketa komeni. Bideak ireki behar ditugu, berriak, nahiz eta gaur erabiliko ez diren, edo geuk bakarrik egin. Inoiz edo inoiz bidailaguna aurkituko dugu eta.



Kultura balantzeaz aritu behar nuela? Eta zer egin dut, bada? Ez al da kultura, gure herriaren —etxearen— defentsan, ditugun indarrak inbertitzea? Ez al da kultura, biziari indar osoz eustea, hodeiertz hobeago baten esperantzan? Ariketa ezatsegina bihurtu zaigu goizero munduari aurpegi ematea eta «Oker ibiliko al naiz?» gero eta ozenago batekin gosaltzen dugu amorrua. Eta nik, aitortzen dut, aberriaren gaineko sentsazioa indartsu sekula izan ez dudan arren, erresistentziarako deialdia egin nahi dut, geure gogoaren aldeko lehian. Nahiz eta kanikarik gabe, jipoituta eta makurtuta egon gaitezkeen. Uhina pasatu bitartean, bederen.

Egia esan, erredakziora bota dudan artikuluxkak ez du zerikusirik ordenadorearen aurrean jartzera eraman nauen asmoarekin. Ezina gertatu zait arretarik ipintzea urteko kultura gertaeren katean, eragile estrakulturalek inguratuta gauden giro lazgarri honetan. Eta aldez aurretik itxaroten ez nuen bide ilunetik eraman naute teklek, burmuinak zuzenduta. Barkamena eskatzen diet *Jakin*-eko lagunei eta baita balizko irakurleari ere, gainezkatzen nauen sentsazio higuigarriari egozten diodalarik nire ezintasunaren erroa. ¶

*Gaiak*



EUGENIO ARRAIZA

Europa: pertsonak eta herriak.  
Antropologian oinarritutako azterketa

77

---

# Europa: pertsonak eta herriak. Antropologian oinarritutako azterketa



EUGENIO ARRAIZA



*a* biapuntu bezala harturik bizitza kulturala *pertsonaren onerako* dela eta, horri loturik, gizarteari begira, *guztion onerako* dela, gehiago interesatzen zaigu ezagutza prozesuaren azterketa antropologikoa eta horrek gizartean duen isla, kultura hitzak historian barrena izan dituen adierak aztertzea baino edota eliteen interes sozialen, politikoen edo ekonomikoen arabera, kultura era askotan nola erabili den azaltzea baino, elite horiek globalizazioaren boterearen gaineko lehian ari baitira ezagutzaren gizartea esaten zaion horretan.

Testuinguru horretan, eta gizakiaren bilakaeraren bigegu rutze honetara, azterketarako elementuak ekartzeko asmoz, *pertsonaren* aberastasuna aztertu dugu gizabana-koa den aldetik eta gizarte taldean partaidea den aldetik. Ezin dugu itxurarik egin pentsatuta guk mundu mailako ordena harmoniatsurako eredia dugunik —ezta Europa mailakorik ere—; baina, nire iritziz, baditugu elementuak geure izaeraren onena berritzeko, gizakiaren garapen indibidualaren eta sozialaren azterketa eguneratu batetik abiatuta.

---

► **Eugenio Arraiza** kultur eragilea da eta, gaur egun, Euskokultur Fundazioko lehendakaria.

## Gizakiaren egoera

XXI. mendearen atarian, egungo egoeran gizakia galduta dabil, nahasia. Aro birtualean, ezagutzaren gizartea esaten zaion horretan, era askotariko kultur produktuak eskaintzen dira: aisiarako proposamenak, musika, telebista osoak dakarrena, behar gorrieneko produktuak eta abar. Baina, hiritar gehienek ez dakite nola funtzionatzen duen bere prozesu kulturalak. Bestela esateko, jendeak gutxiago daki bere garunaz bere autoaz baino. Gutxiago daki bere nortasunaz bere txakurraz baino. Komunikabideak, negozio hutsa diren aldetik, euren publizitate iragarriak eman eta eman ari dira, haratago joan gabe. Ondorioz, guztiontzako gaiak, beti funtsezkoak izaten diren gaiak, adibidez dela arnasketa, dela bizitza kulturala, ez dira albiste, ez dute behar hainbateko garrantzirik albiste gisa emateko. «*Ebentoe*k» baizik ez dute saltzen. Hau da, soilik produktuak dira errentagarri.

Homen ondorioak aurreikusteko modukoak ziren eta berehala agertu zaizkigu. Ikusi bestela nola dagoen mundua. Izan ere, baliabideak neurritz gora ustiatzeak arrisku gorria ekarri dio naturari: landaretza eta basoak soiltzen ari dira, animalien artean badira hil zorian dauden espezieak edota zooetan soilik kontserbaturiko ale bakanak, Hirugarren Munduko zenbait lekutan herri eta etnia osoak hiltzen ari dira, edo herri eta etnia horien nortasuna edo kulturak desagertzen ari dira. European eskulan merkea eskatzen dute, ez ordea etorkin eskubidedunik. Alde horretatik, eskubideak hitzarmen eta agirietan zehatz-mehatz islatu eta gorde izan dira, asko kostata, belaunaldi askok odol handia isurita, baina gaur egun, hara, eskubide horiek soilik balio dute aitortuak dituztenentzat eta ez benetan horien beharra dutenentzat. Terroristarik ez izateko, gerra egiten da. Beharrezkoa izan da uholdeek Alemania urpean utzi izana Schröder-ek AEBei arren eskatzeko Kiotoko protokoloa sinatzeko, eta ez dugu ahaztu behar AEBak direla munduan kutsadurarik handiena sortzen duen herrialdea, kutsadura osoaren %20, zehazki. Gauza jakina zen kutsadurak klimaren aldaketa eragiten zuela... gauza jakina zen

gizakion psikologiak etsipen mugak dituela, gauza jakina zen anaitasunean gizakia duintzen dela, gauza jakina zen bizitza kulturala aldi eta alde oroko bizitzaren adierazgarri rik gorena zela. Baina, gizarteari begira jarduterakoan, ez da halakorik aintzat hartzen. Horrek paradoxa dakar: eskuina zenbat eta indartsuago, gero eta eskubide gutxiago; liberalismo politikoa zenbat eta hedatuago, orduan eta liberazio pertsonal eta sozial gutxiago.

Diagnostiko hori jadanik XX. mendean egina zegoen. Ez da inola ere gauza berria. Eta ez da kontu berria ere eguneroko hondamenen zerrenda: bai hondamendi naturalak (naturak, agoantatzeaz haratago zerbait egin ahal izanen balu bezala), bai gizakiari zuzenean loturiko hondamendiak: mundu mailakoak nahiz norberarenak edota gure hurbileko taldeari dagozkionak. Diagnostiko hori benetan sendoa da, baina hori bezain argia da balizko aterabidearen iluntasuna. Zoritxarrez, gaur egungo gizakiak ez du behar hainbateko indarrik hondamenerako prozesua iraultzeko. Denon arteko ahalegina balitz, hau da, talde ahalegina balitz eta behar adinako masa kritikoa lortuko balu, orduan bai, orduan gauza berria litzateke, berritasuna, baina botereguneetatik datorren haizea ez da azken bolada honetan gizatasun kulturalaren alde jotzen ari.

Begien aurrean daukagu zein den kulturak egun duen egoera. Kulturak sekulako jauzi kualitatiboa eman du azken garaiekin alderatuta. Horregatik, garai horietan erabilitako kontzeptuak eta hitzak motz gelditu dira eta ez dute kulturari buruzko azterketa zorrotza egiteko balio. Izan ere, zientziaren alor guztietan aurrerapen azkar-azkarra gertatu da: astronomia, biologia, fisika... zulo beltzez, genomaren mapaz, fisio nuklearrez eta abarrez mintzo zaizkigu jende aruntoi, errealitatea nola ikusten duten azaltzen saiatzen direnean. Gure aiton-amonek landutako errealitate berbera da, baina haiek kanpotik ikusten zuten, eta, guk bitartean badugu huraxe barrenetik aztertzeke aukera.

Hortaz, batetik, ziztu bizian doan zientzialarien ikerketa dugu, baina, bestetik, oso bestelakoa da kulturari buruzko diskurtsoek diotena, gehienak betiko historia topiko erabili arren hutsak baitira. Kultura hitza mintzatoki

eta aho mihi guztietan ageri da. Kulturari buruzko edozein diskurtso, prediku edo plangintzatan, nekeza da *zer esaten duen* ulertzea, arrakasta handia litzateke *esalearen pentsamendua* sumatzea eta inola ere ez dago argitzerik *zein xederekin esana dagoen*. Azken hori, igarleentzako lana litzateke diskurtsoaren aurreko eta ondoko *ekintzek* argituko ez balute. Ekintza horiek baitira diskurtsoaren *xedea* salatzen digutenak. Edo eskolastikoek zioten bezala esanik, «*quid prodest qui*»-ren arrazoia edo diskurtsoaren zentzu funtzionala.

Alde horretatik, Beverlee Bruce-k horri heltzen dio «Working toward an Ethical Anthropology» artikuluan eta saiatzen da «*Where Do We Go from Here?*» galderari erantzuna ematen:

Gure burua etsipenari eman baino, beste hurbilketa bat gizarte zientziei oro har, eta antropologiari bereziki, giza nortasunari buruzko ezagutza bilatzeko modu gisa begiratzea da egin beharko dena, honako galderak eginez:

1. Zer ezagutzen dugu *giza jokabideari buruz* egungo egoera azalduko diguna?
2. Non dago giza jokabideari buruz ekoizitako eta egungo egoera azaltzeko moduko *ezagutza*?
3. Eta garrantzitsuena, ezagutza horrek nola hedatzen du giza jokabidearen gure ulerkuntza, bai auresate bai eta azalpen mailan, bide batez soluzio gisako *erantzun praktikoak* iradokiz? (*Ethics and Anthropology*, 189. or.)

Dagoeneko, lerrootara ekar dezakegu guk desiratutako aldaketaren ezaugarria, hots, *aldaketak kulturala izan behar du* (inolako iraultzarik ez, ez baitira naturalak, eta iraultza naturalek hondamendia dakarte). Eta zerbait gehixago aurreraturik, beste hauxe ere erants dezakegu, nire iritziz: egun indarrean dauden azterketa kulturaletan kultura merkantzia hutsa da edota agintean dagoenak kultura erabiltzen du besteak menderatzeko. Horrenbestez, jomuga bererantz aurrera joaten segitzen dugu eta bide beretik, gainera. Hori bai, gero eta azkarrago. Beraz, *tenez* eta *tren-bidez* aldatu beharra dago.

Gure helburuak osotara erabilgarri izan nahi du, guk geure egiten baitugu «*The future isn't out there. It's in here*»

(etorkizuna ez dago han kanpoan, hemen barrenean baikik) esaldian bilduta dagoen pentsamendua, ziur baikauden esaldi polit hutsaz haratago doala. Baina ikusirik ez dagoela kulturaren edo kultur prozesuaren esanahiaren ulermena bideratzerik indarrean dauden kontzeptuak argitu gabe, gogoeta honek kontzeptuzko elementuak ekarri nahi ditu kultur prozesuaren ulermenean sakontzeko, hori nahitaezkoa baita kultur proposamen egokiak egin eta, oro har, gizadiaren egoera, naturaren egoera eta norbanakoaren egoera hobetzeko, gizatasunaren balio guztiak barne harturik (hau da, Europako kulturak beti aintzat hartu izan dituen balioak. Nire ustez, ez baita hori aldatzeko beharrik), balioak ez baitira errespetatzen ari, eta ez daude gizon-emakume guztien eskura. Helburu hori lortzeko asmoz, ezagutzaren *modus operandi*-a gehiago interesatzen zaigu —horixe baita giza nortasuna edo izaera azaltzen duen giltzarria—, *opus operatum*-a baino, hau da, ezagutza edo jakintza guztien gauzapean kulturala baino.

## Ʒultura objektutik kultura prozesura

«Kulturaz» hasterakoan, gure garunean pizten den erregistro mentala «objektuari» dagokio. Egia da objektu konplexua dela. Izan ere, behin eta berriz sinplifikatu nahi badugu ere, ezagutza «*sorta*» batzuez osaturik dago eta, egokiago esateko, ezagutzak barne hartzen dituen kontzeptuzko mapa edo «*sistematzat*» jo dezakegu. Baina konplexutasun hori, azken finean, kulturak bere baitan hartzen duen munduaren armazoi estetiko hutsa da. Horregatik, segitzen dugu «*kultura*» objektuaren maila berean mantentzen: objektu konplexua edo objektu multzoa (eraikinak, produktuak, gertakarien kontaketa, artikulua, zernahi lanetako tituluen zerrendak, e.a.), eta, betiere, tamalez bazterrean uzten dugu objektuak sortu dituen prozesua, sormena, alegia (egilearena) edo errekreazioa sortu duen prozesua (hartzailerarena). Prozesuak berekin dakar gauzatu ezinak diren oihartzun sorta osoa: «*balio*» kulturalak, «*bizitza*» kulturala, ezagutzaren «*prozesua*», «*senti*-

*menu*» estetikoak edo etikoak, «*nortasuna*» eta abar, kultura eratzen dutenak gizatasunaren muin gisa. Beraz, *opus operatum*-ak *modus operandi*-a ezkutatu eta ordeztu du.

Hori ez da horrela gertatzen gu adimenez motzak izateagatik, ez horixe. Hori gertatzen da kulturari buruzko ikuskera hori gure aurrekoek eta, are gehiago, gaur egun, gure inguruan daudenek gudan eragin digutelako. Kultura gauza bihurturik dago eta, ondorioz, letren munduan apalki agertu zenetik (XVI. mendea), kultura hitzari ikuskera horretatik begiratu zaio lehenago gehiago erabiltzen ziren terminoekin batera —filosofia, humanitateak, artea edo zientzia, adibidez—, pentsamendu merkantilistaren eraginez, hain kaltetuak gertatu ez direnak.

Intelektualen artean ez zen hitz hori erabili Ilustrazioaren mugimenduak zabaldu zuen arte, Ilustrazioak kultura jo baitzuen Entziklopediaren eduki gisa. Horrela, kultura oso hitz egokia zen gizakiak orokorren duen jakintzaren edo dituen jakintza historiko edo posibleen multzoa adierazteko. Garai hartan, ez bazegoen argi *zenbat* ziren eza-gutza horiek, *zeintzuk*, eta, are gutxiago, ez bazegoen argi elkarren artean *nola* zeuden egituraturik, hitz horrek, behintzat, zientzia laikoaren bultzatzaileei balio izan die kultura eta erlijioaren alorrak elkarren artean bereizteko. Aldi berean, horrek etorkizun handiko eremua ekarri zien Europan sortzen ari ziren estatuei, hots, ministerioetako karguak, estatuak saiatzen ari baitziren euren egitura ezartzen, Frantziako Iraultzaren irizpideekin eta balioekin bat.

Lehen kultur arduradunak izendaturik, haiek ongi eta egoki erakutsi zuten zeinen garrantzi handia zuen euren ministerioak nazioaren mesederako. Horrenbestez, Hezkuntza eta Kultura (izan ere, benetako kultura, ofizialki homologatua dagoena, herriarengana iritsiko zen hezkuntzaren bidez), Ekonomia, Industria eta merkataritza berriuekin batera, elkarren artean harremanak izaten hasi ziren gizarteko goi mailetan euren merezimenduz, nahiz eta den-denek belarria tente izaten segitu zuten men egiteko Gobernazio Departamentuko iradokizun erabakigarriei.

Industria bultzatzaile haien hamaikagarren oinordekoa, hots, XX. mendearen erdian karguaz jabetu zen eko-



nomia ministroa, ohartu zen kultur ekoizpena errentagari izan zitekeela, ez bakarrik hiritarren osatera mentalerako, baizik eta baita ondasun gisa ere publikoari saltzeko —bai etxeko publikoari saltzeko, baina batez ere kanpokoari, turistei. Orduan, kulturari, «*ondasun*» (objektua) kulturalari, «*ondareari*» eta kultur «*produktuen*» sustapenari ekonomia-  
ren neurria ezarri zitzaion eta ez bakarrik erentagarritasun sozialarena. Hortaz, bizitza kulturalari berari ez dagozkion albo-eragin horiek eraginik, Europako Batasuneko erakundeetan kulturaz mintzo direnean, alarma guztiek jo eta Estatuak beldur dira horrek ez ote duen ondorioz izanen ekonomian, gizarte mugimenduetan eta politikan, eurek bere horren kontrola izaten segitu nahi dutelako.

Horrela, latindarrak «*colo-is, colere, colui, cultum*» aditz formaz baliatu ziren jarduera hartaz kontzeptu bat eratzeko. Zehazki, latindarrentzako, giza jarduera zen, gizakiek lurrian, erkidegoan edota erlijioan eginiko jarduera, beste hitz eratorriek adierazten diguten bezala: «*cultivo*» edo «*culto*» gaztelaniaz. Bada, Ilustrazioaz geroztik, lan intelektualak jarduera hura erabilia izan du, beste jakintza mota biologikoagoen, espiritualagoen, edota, besterik gabe jakintza «*gizatiarragoen*» kaltetan. XX. mendearen erdian, europar hiritarrak komunikabide eta garaio-bide autonomo ugari lortu zituenean, kultura hezkuntza-  
ren esku ere utzirik zegoen, baina jadanik seriean ekoizten hasi zen edozein produktu fabrikatzen den bezala, po-  
teetan sartua, edonori saltzeko. Hedatzen da. Hari buruzko publizitatea egiten da. Kontsumoaren kultura da. Eta are larriagoa dena, hori guztia gertatzen da politikaren eskutik helduta, eta, arestian esan bezala, horrek beti arriskua ekartzen dio bere birjintasunari.

Hain zuzen ere, politikak eginiko erabilera hartatik, jauzi kualitatiboa egin zen kulturaren interpretazioaren eboluzioan. Izan ere, XIX. mendearen bigarren erdian, erromantizismoa goraldian zegoen garaian, alemaniarrek kultur hitza egokitu zuten euren zentzu nazionalera, euren pentsamoldera, euren ohitura, hizkuntza eta herri gisa zituzten bizipenetara, erran nahi baita, euren kultur nortasunera egokitua. Horrela, kultura ulertzeko modu

ugarien artean, gaur egun zehaztu behar dugu bi ildo nagusi direla eta bi ildo nagusi horietan bilduta daudela hitzak izan dituen definizio ugari horiek:

- Frantziako ildo. Ildo horrek kultura hitzari ezagutza entziklopediko orokorra ematen dio.

- Alemaniako ildo. Ildo horrek kultura hitza erabiltzen du zentzu zehatzago batekin. Adiera horrek giza ezagutzak barne hartzen ditu, ez horren eruditua, baina bai garrantzitsuak gizarte taldeetan giza funtzionamendua ulertzeko. Baina, horrekin batera, ildo honek nahiago du etnien araberako kulturetara hurbiltzea, bazter utzi nahi duelako nortasun gabeko kultura orokorraren eskema irrealean kokatuta geratzeko arriskua. Alemaniako adiera, nazioari edo talde etnikoari lotzen bazitzaion, hurrengo mendearen gizarte eboluzioan adiera hori aplikatu izan zaio nortasun propioko beste talde batzuei: langileriaren kultura, gazteriaren kultura, kultura rockeroa, hippya eta abar. Beraz, esan dezakegu, adiera horretan, kultura dela giza talde baten berezko izaera, bizimodua, pentsamoldea eta jokabidea.

## Gure azterketen arloa eta helburua

Kultura ezagutza posible guztien metaketa hutsa izan da. Hala ikusi zuten, esate baterako, Entziklopediaren garaian (kultura laburbiltzeko bideak eta guzti: kartillak, historia ofizialak eta santuen bizitzak), eta aitortu behar da iraganak aberastu egin duela kultura hitzari buruzko ekarpen kontzeptuala; baina hori aitorturik ere, gaur egun beharrezkoa da kultur fenomenoaren eta prozesuaren orokorrean gaurkotzea bere abiapuntutik beretik, hots, gizabanakoarengandik abiatuta, helmugaraino iristeko edo kultur politika bururaino eramanez arte, hots, gizabanakoarenganaino. Horretarako, gure iritziz, hauxe guztia birplanteatu beharra dago: kultura hitzaren erabilpena, kultura aztertzeko erabilitako kontzeptuak, beste arlo batzuetara gertatu diren desbideraketak ezabatzea (ekonomia, ikuskizuna, engainua...) arlo horiek kulturaren bizkarroi edo parasitoak

baitira, eta, jakina, gure ondorio operatiboek ez dute zerikusirik Administrazioek, Komunikabideek eta kultur ekoizpenak, oro har, eginiko jokaerarekin, eta, herri baten kulturari buruz ari garenean bereziki interesatzen zaigun aspektua da kulturaren izaera pertsonala eta eskubide naturalak aintzat hartu behar direla herri horren identitate kolektiboan barneraturik, bere eskubide kolektiboaren iturri eratzailea izatera pasatuz.

Guk kulturaren arazoari ekin nahi diogu azterketa deskriptiboaz haratago jotzeko asmoz eta proposamen operatiboak zehazteko xedez. Horregatik, komeni zaigu *helburu* eta *bitarteko* egokiak definitzea, horrenbeste diziplinaren mendean egon behar izan gabe. Izan ere, diziplina bakoitzak badauzka bere barne-barneko xedeak eta bitartekoak, eta gure ikusmira barreiatuko lukete.

Kristautasunaren usadiozko ikuspegia gure jarreraren aurrekari historikoa dugu:

Kultura denaren bitartez, gizakia, gizakia denez gero, gizakiago egiten da, eta hartan jokoan dago gizakiaren destinoa bera. Are gehiago, bere benetako izaerari hurbiltzen zaio.

Joan Paulo II.ak esana da, Unesco erakundearen egoitzan, Parisen (1980.VI.02). Beraz, bertan aita santuak azpimarratzen du kulturak bakoitzarengan duen alderdia. Aldiz, gizarte isuriari dagokionez, halaxe dio: «kultura *herri bakoitzaren espirituaren bizitza* da, herrien *forma mentis*» (1981.1.12).

Baina, erro-errotik, argi eta zintzoak izan behar dugu, gure helburua definitzerakoan. Gure azterketak ez luke amore eman behar gure helburua halako kultur politikara moldatzeagatik, asmo eta borondate onekoa izan arren. Ezta inolako garapen plangintzatara ere, oso estrategikoa irudi arren. Era berean, ez zaigu zilegi argudio erlijiosoak erabiltzea, gure ikerlana asko erraztuko badigute ere, fedearen eta zientziaren mailak ezberdinak baitira.

Aitortu beharra dago kulturak garrantzi handia duela politikan, ekonomian edo erlijioan, baina guri behar-beharrezkoa iruditzen zaigu kulturari buruzko azterketa antro-

pologian oinarrituta egin behar dugula, bete-betean eta zuzenean, besterik gabe. Astia izanen dugu ikusteko zer den aplikagami jakintzaren alor horietarako. Aldiz, lehentasuna alderantziz jartzen badugu, hau da, gizakia beste parametro batzuen zerbitzuan jarriz gero, ez ginateke natura gure azterketaren oinarrian jartzen arituko, ezta gizakia ere, naturaren eta gizakiaren aurreko ideologia batean baizik.

Hora, besteak beste, zerk sortzen duen egungo segurtasunik eza, erreala eta formala. Gizakia galdua eta korapilatuta dabil, kultur erreferentzia gisa eskaintzen zaizkion ikuspuntuak eta eredu errealek nahasi egiten dutelako. Politika, ekonomia eta erlijioa ez daude elkarren artean loturik, ezta naturarekin ere, edota gizakiak naturaz ikusi eta ulertzen duenarekin ere ez. Hortik heldu zaio gizakiari nahasmena. Konponbidea ez da politika, ekonomia eta erlijioa artifizialki edo idealki lotzea, gizakia eta natura alde batera utzita. Gizakiaren onerako, eta haien guztien onerako, gizakian baitute hiruek esanahia, justifikapena eta azken xedea, gizakiarengan zentratu behar dugu, bere kultur bizitza aztertzerakoan, behintzat. Halaber gizakiaren naturarekiko elkar lotura zentratuko dugu, behin betiko kateatuta direla ikusten ari garenak, gero eta azkarrago gainera. Ekologikoki eutsitako naturarik gabe, gizakiaren existentzia bera, gaurdaino ezagutu dugun gisakoa behintzat, beste azpi «gizakietan» txikituta geratzea bideratuta izango baitzen.

*Arloa*, beraz, gizakia da. Eta lortu nahi dugun *helburua* gizakiaren *onerako* aritzea kultur prozesu osoan. Alde horretatik, komeni zaigu bereiztea zer den lagungarri edo kaltegarri *gizakiaren onerako*. Historiaren bilakaera goranzkoa izatekotan, baliokidetzat erabil genezake behin eta berriz entzundako esaldi hau, hots, «*gizakiaren aurrerapenari laguntzea*». Igoera hori, ordea, oso zalantzakorra da historiaren alde on eta txarren galbahean. Horregatik, zentzuzkoagoa iruditzen zait gizakiaren onerako hautatzea eta kito. Izan ere, aurrerapenak batzuei gauza onak ekartzen dizkie, baina ez dira horren gauza onak gizakien bizitzaren alderdi askotarako, hau da, guztiontzako. Hortaz, aurrerantz egin nahi dugu *pertsona bakoitzaren onera* -

ko eta haren hurbil egoteak balioko digu neurtzeko ona ala txarra izan den guk emandako pauso bakoitza.

Kontuan harturik gizakia ezin dela saio hodian bizi, ezta isolamenduan ere, pertsona bakoitzaren onerako aztertzearen xede horren osagarri, isuri soziala jarri behar dugu: *guztion onerako*, alegia. Filosofia klasikoak halaxe formulatu baitu, gizarte erkidegoen garapen harmoniat-suaren aipamena egin duenean. Eta denek, baita liberalik amorratuenean ere, aitortu behar izan dute horren balio morala, teoriarik, bederen.

Adibide grafiko batek lagunduko digu gure ibilbidea azaltzen: kultura aztertzeari helduko diogu erreka bat edo itsaso zati bat ikertzeko lanari helduko geniokeen bezalaxe. Funtsezko urratsetariko bat uraren osagaiak aztertzea litzateke eta hori laborategian egingen genuke *H<sub>2</sub>O molekula baten* bidez, bere gatzak, disolbaturiko substantziak, kutsadurak eta guzti. Ondoren, masa likidoa, olatuak edota itsas mareak eratzen dituen molekula *multzoari* helduko genioke.

## Bitartekoak: zientzia laguntzaileak

Zientziaren alor bik lagundu eta behar adina datu emanen dizkigute gure kultur azterketan. Horietako bat, *biologiaren antropologia* izanen da, oso baliagarria izanen baita norbanakoaren prozedurari begira. Izan ere, esan digu nola funtzionatzen duen giza garunak ezagutzak esku-ratzerakoan eta nortasuna eratzerakoan. Bestea, berriz, *gizartearen antropologia* da, gizarte taldeei buruzko azterketan diharduena.

Gehixeago zehaztearren, nire iritziz aipatu beharra dago New Yorkeko Zientzien Akademia —New York Academy of Sciences— hedatzen ari den pentsamendu ildoan, eta zehatzago esatearren, Akademiaren Urte-liburuetan, 925 liburukian, agertutako lan multzoa. Honatx hemen: *Ethics and Anthropology. Facing Future Issues in Human Biology, Globalism, and Cultural Property*, hala nola 935 liburukian bilduta daudenak.

Azken liburuki horretan, *Unity of Knowledge. The Convergence of Natural and Human Science* izenburuean, adituen ekarpenak jaso dira; bere bilakaera bio-psikologikoan, ezagutzaren prozesuak alor bakoitzean egiten duen bideari buruz, eta, gizabanako bakoitzaren kultura eskuratzeari, oro harreko tratamendu zorrotza eta argigaria ematen dio. Ildo horretan kokatuko dugu gure kultur ikuspegia, eta, bidenabar haren ekarpenez baliatuko gara.

## Gizabanakoaren ezagutza edo kulturaren prozesuaren azterketa

1. Datu esperimentalen arabera, kultur bizitza ezagutza-ekintzen sekuentzia bat da. Garunean milaka milioi prozesu kognitibo nahasirik daude, zentzumenen bidez haraino iristen direnak, beti sentsazioei lotuak eta, maiz, sentimenduei ere bai.

2. Gizakia, jaiotzerakoan, bukatu gabeko izakia da. Haurraren garuneko zirkuituak itxiko dira obulua ernaldu eta 22 hilabetera: jaio eta 13 hilabetera, alegia.

3. Beraz, jaiotzen garenean, gure adimena ez dago piztuta, loka dago, noiz esnatu zain. Biologiaren aldetik, jaio gara, jakina, baina gure bizitzaren goi maila, bizitza arrazoi-menduna, poliki-poliki iratzartzen da. Beraz, bizitza arrazoi-menduna esne mamitan eduki beharko dugu, babestu eta landu edo kultur-izatu. Horra gizakiak egin dezakeen zereginik ederrena, adimenari garatzen laguntzea, alegia. Jaio ondoko lehen hilabete horiek erabateko garrantzia izanen dute eta, janaz gain, maite giroa behar-beharrezkoa ere bada, garunak aldeko eboluzioa izanen badu.

4. Urtea iraganik, haurra bere kabuz ibiltzen hasten da, hori bai, ibilera moldakaitza izaten da. Sentsazioen bidez, bere gorputza ezagutuko du, bai eta inguruan dituen gauzak eta pertsonak ere. Ez ditu elkarren artean nahastuko. Ezta animaliekin ere. Ordurako, keinu eta hitz batzuk ulertzen ditu. Hasieran, inolako loturarik gabeko hitzak dira, baina gero, hitz horiek ehuntzen ditu. Hizkuntza sare garatu gabea da, oinarrizkoa, baina eraginkorra. Bere-

hala, familia hizkuntzaren giltzarriak eskuratzen hasiko da. Kontzeptuak bereizteko gauza ere bada: hau, hori, hura. Bestela hautematen du hurbiltasuna eta urruntasuna. Maitasuna, mehatxua, indiferentzia. Eskuragarri izanen zaizkio zu/ni, nirea/zurea, gurea/besterena bezalako kontzeptuak, familia hierarkiak ere eskura izanen dituen bezala lehenbiziko ahaideekin eta lagunekin harremanetan sartu bezain laster.

5. Ezin lerrootan aipatu gabe utzi hizkuntzak kultur osagai gisa duen garrantzia, erkidegoak haurrari eskainia, haren adimena garatzeko. Hizkuntza bakoitzak modu batera ikusten du natura, gizarte hierarkia, sexuen gramatika tratua, mitologia, zenbakiak, eta abar. Hizkuntzak, azken buruan, mundu-ikuskera dakarkio eta hori haurrari baliagarria izanen zaio mundua, bizitza eta gauzak erabateko koherentziaz ulertzeko, eztabaidagarria eta sinbolikoa dena, erreala edo zientifikoa baino gehiago.

6. Haurrak badu inguru babesgarri bat: familia, auzoa edo herria. Baina zoko horiek itsas zabalaren ur geldiak dira eta itsas zabal hori gizarte eta hizkuntza erkidegoa da. Erkidego horrek badu bere kultur ingurua eta haurrari, garatzeko behar dituen hitzak, kontzeptuak, gako sozialak eta funtzionamendurako protokoloak eskaintzen dizkio.

7. Urte horietako inguruak gugan arrastoa uzten du betiko, hil arte, eta funtsezkoa da gure bizitza kulturala antolatzeko. Aurrerago, esperientziak erakutsita eta behin gogoa edo adimena heldutasunera iritsi zaizkigunean, urrunago dagoen huraxe hautematen eta juzkatzen ikasten dugu, eta datu gehiago gordetzen ditugu. Baina hori egiten dugu dedukzioz eta hautzaroan ezagutu ditugun hurbileko elementuak kontuan harturik, elementu horiek baitira gure adimena egituratu dutenak eta haren funtzionamendurako behar den gako interpretatiboa ematen ditugutenak, bere *pasahitza*, alegia.

8. Alde horretatik, azpimarratu behar dugu, geroago gizarte kontsiderazioei begira, norabide bikoitz hau: gizabanakoa-taldea-gizabanakoa. Ezagutzaren prozesuak, gizabanakoaren ernamuin kultural gisa, linealki segitzen du urteekin batera, pertsona bakoitzaren jardueraren arabera,

eta segitzen du gainerako gizabanako helduekin batera bere giza taldearen talde-kultura osatu arte. Baina, garapeneren lehenbiziko urteotan, taldeak —bizidun berria talde batean sortua baita— haurrari oinarritzko osagaiak ematen dizkio bere kultur eraikina eraikitzeko. Delako osagairik ezean, historiaurrean jaioko litzateke.

9. Garuna heldu ondoko aldiari dagokionez, pedagogoen teorian eta praktikan aztertu dute ezagutzaren prozesuak kultura eskuratzeko duen zeregina. Joseph Novack, bereziki *Learning to learn* (Ikasten ikasiz) lanean, mintzatzen zaigu «kontzeptuzko mapak» eratzeko ezagutza «produktibo», «generatibo», horiek beharrezko ibilbideak direlakoan ezagutza motak sistema koherente eta praktikoa integratzeko, gizabanakoaren bizi-interesaren zerbitzurako eraginkorrak direnak, betiere. Multzo osoak egitura mentala eratzen du eta horretan ere sentimenduak, sentazioak, sentikortasunak... partaide dira, gure biologiak ez baitu ezagutza neutrorik onartzen. Horiek guztiek eurekin dakartzate euren inpresio on eta txarrak, eta pertsonak gogo handiagoz edo txikiagoz onartzen ditu, bere esperientziaren arabera. Dena dela, gure interesak atendi-tu ditzan, guretzat onak ala txarrak izan behar dute eta une horretantxe, gainera. Gure zentzumenek neutro gisa hautematen badituzte, garunera ere ez dira pasatuko.

10. Haurtzaroen eraturako garuna (herentzia genetikoa + garapena), inguruaren ezagutza, sentimen eta gizarte prozesuak osatua, gizakiaren muina da, pertsona, alegia. Gene batzuk herentzian hartu ditu, baina bere historia ere badu. Inguruabarrak bestelakoak izatekotan, beste nortasun bat izanen zuen. «*Nature and Nurture*» (natura gehi elikadura, biak kultur eta natur mailetan ulertuta) nortasun bat ematen digute, izaera bat, jite bat. Nortasun edo izaera hori hezi eta alda daiteke, baina gizakiaren onez izan behar badu, beti muga batzuen barnean eta lege psikologiko oso zorrotzei jarraikiz.

11. Nerabetasunaren garai intseguaren ondotik, gaztearen nortasuna errotzen da. Inguruan duen mundu errealari eta birtualari buruzko ezagutza zuzenak eta zeharkakoak etengabe erabiltzen dira bere pertsonaren onerako,



bere esperientziak esaten dionari jarraikiz. Errotua dago, jadanik, bizitzak eskaintzen dizkion estimuluak atenditzeko, onartzeko edo errefusatzeko modua, eta horrek «*noitasun*» bat erakusten du. Jokatzeko modu horretako ezaugarri batzuk bat datoz bere taldeak dituenekin, «*taldearen nortasun ezaugarriak*», baina beste ezaugarri batzuk ez dira taldearenak, ezta bere familiarik minenarenak ere, «*pertsonaren ezaugarri bereziak*». Gizaki bakoitza ezberdina da, errepikaezina. Izaki klonikoak ere ezberdina izan beharko du, esperientzia ezberdinak bizitzen dituen une beretik hasita.

12. Nortasunari tinkotasuna ematen dion bizkarrezurra edo hari gidaria *oroimena* da. Oroimena ezagutzaren katea da, ezagutzez osatua, eta oroimenik ezean, loturarik gabeko irudipenak lirateke. Oroimenaren ahalmenetako bat da datuak gordetzeko duen gaitasuna. Baina garrantzitsuagoa da datuak elkarren artean erlazionatzeko duen gaitasuna eta, are garrantzitsuago, datu interesgarrienak «*norberaren bizitzarako*» hautatzeko duen gaitasuna, eta horri adimena esaten zaio. Gure oroimena ez da objektiboa. Horren susmoa baguenen jada, baina orain saiakuntza bidez frogatu da hori. Beraz, oroimena ez da objektiboa, baizik eta hautatzen ditu iragandako gertaeraren irudipenaren ezaugarri batzuk. Hori ere bizitzaren legea da. Izan ere, izaki bizidunaren onerako, iraganaren presentziari perspektibaz begiratu behar zaio, eta presentzia horrek hotsa eta tamaina galdu behar du, espazioan eta denboran urruntzen den neurrian. Biziaren zentzu horretan, oroimenaren laburpenari esperientzia deritzo.

13. Biziaren katean, gizakia *eboluzioaren* mendean dago, izaki bizidun guztiak biologi lege horren beraren mendean dauden bezala, maila kualitatiboan dauden ezberdintasunak alde batera utzita. Eboluzioan *hautespen natural*eko prozesu bat gertatzen da norbanakoen artean, eta nabarmendu beharra dago hautespen naturalak, gizakiari dagokionez, bere baitan hartzen dituela esperientzia bakoitzak erantsita dakartzan kultur formak.

14. Pertsonak, izaki biziduna denez gero, bizi ibilbide mugatua du. Nahiz-eta erlijioak esan gizakiaren jomuga «*beste bizitza*» dela, perspektiba horretan oinarrituriko it-

xaropenak ez du funtsik zientzian, eta soilik dirau alego-riaren nahiz poetikotasunaren alorrean. Hala ere, gizabanako bakoitzak bere giza inguruan duen proiektzioak badu luzapena besteengan, bere giza ekarpena hartu dutenengan, eta berdin dio berarekin harreman zuzenetan sartu diren ala ez.

## Pertsonarengandik giza taldera

Gizabanakoaren ezagutzaren prozesua aztertzerakoan, ikusi dugu gizakia ez dela bere kabuz hazten. Izan ere, frogatua dago gizakiak giza taldearen laguntza behar-beharrezkoa duela, bere garapenaldian zehar. Alde horretatik, talde horren kultur ezaugarriak taldekideen berberak dira. Taldearen bizitza kulturalaren garapena eratuko da gizabanakoarena eratzen den modu berean, sentsazioak, kontzeptuak, ohiturak, gizarte protokoloak barneratu ahala. Taldeak kideei emanen dizkie multzoa eratzeraman duen loturaren ezaugarri konnotatiboak. Taldearen nortasun ezaugarri horiek kidearen nortasuna aberastuko dute eta, aldi berean, bi norabideko funtzio nortasun emaila beteko dute: batetik, talde nortasuna indartzekoa, eta, bestetik, ezberdintasuna indartzekoa. Ez dute balioko taldekideak elkarren artean bereizteko, *ad intra* komunak baitira. Baina, aldiz, *ad extra* bai, balioko dute taldekideak elkarren artean bereizteko, beste zereginenez edo zaletasunez loturiko beste taldekide batzuen aurrean. Soziologia garaikidean, esan daiteke, familiari, auzoari, lanari, jarduerari eta zaletasuneari begira, gizabanako guztiak partaide direla giza talde batzuetan, eta, taldeek haiei bizitzako jarduera bat egiten laguntzeaz gain, eman ere ematen dizkiete haien nortasuna eratzen duten ezaugarriak.

Beraz, gizabanakoaren nortasunaren kalitate genetikoak ez dira hutsean dagoen saiodian garatzen, baizik eta ontzen edo heltzen dira hainbat giza taldetan murgilduta, eta, aspektu batzuetarako, murgiltze hori oso erabakigarria izaten da (pentsa dezagun giza talde defizitarioetan hezitako pertsonen). Alde horretatik, psikologia esperi-

mentalak bere ñabardura eskaintzen du esaten digunean gizakia hipermetropia psikiko antzeko batek jota dagoela. Hau da, «*argiago ezagutzen dituela kanpoaldeko munduan dauden gauzak bere barneko bizipenak baino*». Bestela esanik, «*zer esanen ote dute?*» pentsatzeak edota «*zer dioten*» guztiz errealak gizabanakoaren nortasunean eragiten dute ez bakarrik era subjektiboan, baita objektiboan ere. Izan ere, neurri handi batean, kideak onartu beharko du taldeak hartaz egin duen irudia. Hori gertatzen da naturak gizakia prestatu duelako inguruan bizirik irauteko eta ez preseski bere funtsa eta barneko aukerak ezagutzeko. Gauza horiek ezagutuko ditu kanpoko bizitzarekin lehian eta lanean. Agian, bizitza guztirako eraman beharko du joko-kideek emaniko izengoitia. Taldean eta talde desberdinetan duen rolak kideari esperientzia emanen dio gizartean itzal handiko estatusa lortzeko.

Taldea da bizitzaren arlo guztiak hartzen dituzten dimentsio pertsonal batzuk komunean jartzearen ondorioa: adiskidetasuna, lana, dibertsioa, e.a. Taldearen eginkizuna da kideari laguntzea, taldea osatu duen topalekua eratzen duen aspektu bakoitzean. Talde horietako bat, gizabana-koari talde identitatearen izaera ematen diona, herria edo nazioa da, eta horixe da lehentasunez Europako testuinguruan aztertuko duguna. Hona hemen talde horrek bere kideei ematen dizkien aspektuak: giza elkartasuna, kohe-sio sozio-ekonomikoa, hizkuntza, berezko kultura (historia, legeak, ohiturak).

## Giza talde identitarioa: herria, nazioa, aberria

Horrela, ikusten dugu pertsona hazten den gizarte taldeen multzoa barne sartua dagoela dimentsio handia-goko gizarte instantzietan: herria, nazioa, aberria esaten diegu. Osaera zehatz puntual bakoitzak badu bere historia, eta ontze edo mamitze prozesu bat izan du. Giza erki-dego baten heldutasunaren ezaugarri argienetakoa hizkuntza da. Hizkuntzaz gain, «herria» tankerako erlazio sa-

rera ere irits daiteke, arrazoi ekonomikoak, sozialak eta politikoak direla medio, eta guretzat interesgamierna da batzen dituen sustrai kulturala. Herrien arteko «ezberdintasunak» aurrez aurre norgehiagokan jarri izana, eta ez preseski kirol zelaietan, erabakigarria izan da historia unibertsalean, protagonista izan diren «nazioen» izenekin idatzia. Baina, gaur egunetik ikusita, asko ñabartu behar-ko litzateke zehazteko zein neurritan izan ziren nazio horietako kide batzuk, asko edo denak, eragile aktiboak inguruabar bakoitzean. Zoritxarrez, argiagoak izan dira ondorio pasiboak, gehienetan kaltegarriak, eta halakorik eragotzi behar dugu etorkizunari begira.

Gaur egun, mendebaldeko Europan bederen, badirudi gizabanako gehien-gehienek argi pentsatzen dutela ez direla herri gisa dituzten interesak gerra bidez bilatzearen aldeko, baina, hala ere, oraindik bada indarkeria Euskadin, ez dirudi guztiz bazter utzi denik Irlandakoa, eta Kosovo, Txetxenia eta Palestinakoak ere gure ate ondoan daude. Zer dio edo zer du esateko antropologiak herri, etnia, nazioko bizipenei buruz? Kontuan haxe eduki behar dugu: nahiz-eta kulturaren identitateak ez diren indarrez edo biolentziaz agertzen, horrek ez du esan nahi ez dau denik etengabeko lehian bizirik irauteko. Nola heldu Europako kultur bizikidetzari kultur talde guztiak ase edo konforme edo pozik egoteko moduan? Nola bultzatu herritasunaren, naziotasunaren, aberritasunaren nortasun sentimenduaren balio positiboak, gehiegikeriak saihestuz? Eta gehiegikeriak, jakina, bai sentimendu hori ukatzeagatik edo neurritz gora puzteagatik, gaur eguneraino gertatzen ari dira, baita indarra erabiliz ere.

Kultur talde honetako kideen multzoak osaturiko kultura aztertzeke, pertsonarekin egin dugun prozesu paralelo bera egin genezake, taldearen beraren nortasuneraino iritsi arte. Baina, nire ustez, aski da aitortzearekin multzoa dela batugaien ezaugarrien batura. Horregatik, luzamendutan ibili gabe, talde dinamikan eragiten duten gizarte aspektuak aztertzeari helduko diogu, betiere interesatzen zaigun gaiari dagokionean, hots, nortasun ezaugarriak eta ezaugarri diferentzialak, bai barruari bai kanpoaldeari begira.

1. *Lurraldetasuna*. Lehenbiziko ezaugarri garrantzitsua da taldearen eraketan. Lurraldetasuna talde guztiei dago-kie, baina bereziki funtsezkoa zaio talde identitarioari. Giza taldea eratu da esparru zehatz batean kokatu delako. Toki fisikoa izaterakoan, gizabanakoak elkarren artean topatu ahal izan dira, eta, aldi berean, tokiaren geografia eta natura topatu, eta horien ezaugarrietara moldatu ziren. Gainera, denboran zehar, lurralde horretan egoteak, gehiago edo gutxiago mugituz, historia propioa ekarri die, herriak eta lurraldeak partekatzen dutena. Herriak lurralde hori hartu du. Jurisprudentzia tradizional guztien arabera, lurraldea hartzeak eta hartan irauteak eskubidea dakar. Herriak bere burua jotzen du lurralde horren bilakaeraren arduraduntzat eta saiatzan da hura egoera onean kontserbatzen, «*garapen jasangarriarekin*» bat.

Herri askok lurraldez aldatu eta jende-olde handiek emigratu dute, Antzinaroan, batez ere. Kolonizazioak di-rela eta, lurralde askok jabez aldatu dute, XVI. mendetik aurrera, bereziki. Muga guztietan aldaketak gertatu dira, anexio edo desanexio oso edo partzialengatik. Inguruabarrak aldatzen dira, eta, era berean, denboran zehar aldatzen dira interesak eta horiek herri hauetatik edo beste haietatik defenditzeko boterea. Baina lurraldetasuna oso atxikia dago giza talde naturalaren nozioari, gorputza gizabanakoari datxekion bezainbat, eta denboran zehar funtsezkoa izaten segitzen du, nahiz-eta aldaketak egon.

2. *Oroimen historikoa*. Arestian aipatu dugu oroimena gizabanakoaren nortasuna eratzen duen elementua dela. Antzeko garrantzia du herriaren eraketan eta, alde horretatik, askotan esana da: «*oroimenik gabeko herria behartuta egonen da huraxe errepikatzer*a». Berdin gertatzen zaio ikasgaia ikasi ez duen haurrari. Baina, zeintzuk dira herriak ezagutu edo ikasi behar dituen ikasgaiak? Bizirik iraun ahal izateko behar dituen ikasgaiak. Historia funtsezkoa da subjektu historikoa, bere jatorria, gertakaririk erabaki-garrienak definitzeko; gizabanakoak, ezta herriak ere, ez baitatoz ezerezetik, baizik eta beste izaki edo beste izaera batetik. Giza erkidego gisa ulertu eta erlazionatzeko mo-dua: hizkuntza, halakorik badu. Elkarren arteko jokabide

protokoloak: ohiturak, legeak. Ez dira finkoak, ezta aldaezinak ere. Eboluzionatuko dute, baina bilakaera horretan lagungarri gertatzen dira jakiteko zeri heldu gizarte jokatibideetan, eta gizabanakoari, seguritateari buruzko jarraibideak eskaintzen dizkiote.

3. *Identitate kontzientzia*. Hau ere funtsezko ezaugarria da, eta taldearen giza ezaugarrien eramaile izatearen sentimenduari dagokio. «*Membership*» honela definitu genezake: ondoko ezaugarriak dituen izateko, pentsatzeko eta jokatzeko modu bat. Hona hemen:

a) Taldean partaide izatearen kontzientzia argi-argia.

b) Taldearen bizitzan parte hartzearen kontzientzia. Parte-hartzeak gogobete behar du bai gizabanakoa bai taldea bera.

c) Taldearen zuzendaritza orokorrean parte mugatua, baina erreala eta atsegina, hartzearen kontzientzia, bai harentzat bai beste kideentzat.

Definizio horrek giza talde mota ororentzat balio du eta talde identitarioentzako ere bai.

Definizio soziokultural honen arabera, nazioa giza taldea da, eta definizio hori gizakiarentzat «*hobea*» da beste edozein baino, batez ere Estatu modernoaren kontzeptuan oinarrituriko hura baino. Baina azken definizio hori gehiago erabiltzen da, eta ez dago erabat bazterturik presio ekonomikoak, sozialak edo militarrek erabiltzea. Izan ere, hipotesi horretan, ez da planteatzen ari pertsonaren onerako giza taldea, baizik eta pertsona gizabanakoen talde batean indarrez sarraraztea. Egia esan, horixe gertatzen ari da. Agerian dagoen nahaste edo gaizki ulerturik handienetakoa da: historikoki, armek nazio askoren esparrua gehiago eratu dute, kideen atxikipenek baino. Beraz, XXI. mende honetan, bada garaia aitortzeko ez dagoela gizaki libererik, baldin eta pertsonari aitortzen ez bazaio baduela hautaketa libererako eskubidea giza talde identitarioari atxikitzen zaion unean.

Horrenbestez, aipatu beharra dugu iruditzen zaigula gainditua dagoela arraza giza-talde batean partaide izatearen lotura dela dioen kontzeptua. Eta, gisa berean, iruditzen zaigu jaiotzaren edo halako kultur inguru zehatzean

egotearen «kasualitate» hutsezko lotura ere gainditu behar dugula, baldin eta gizabanakoak ez badu taldeari atxikipen «librea» erakusteko eskubiderik, betiere arestian azaldutako hiru kontzientzia mailetan. Noski, gizabanako helduari buruz ari gara, aurretik ez baitu aukeraketa autonomoa egiteko gaitasunik, begi-bistakoa denez.

Atxikipen libre horren kariaz, gizabanakoak sentitzen du taldearen balioen, historiaren eta kulturaren jabe dela, era birtualean, noski. Gozatu egiten ditu bere ordezkariak jotzen dituen kirolarien garaipenak. «Bere» herriaren kontserbazioaz eta garapenaz arduratzen da. Eta gogoratu ditugun baldintzatzaile guztiak kontuan harturik ere (bere «oroimen selektiboa» subjektiboa delako, esparru indibidualean bezala), taldeko kide sentitzeak konfiantza ematen dio bere pertsonalitateari eta bere bizitza sozialari munduko beste gainerako herritarren aurrean. Batzuek euren burua oso unibertsalistatzat jotzen badute ere, gizakiak lotura errealak eta fiktizioak (biak) behar ditu erkidego eta lur batekin, garatuko bada, betiere agian lotura afektiboagoak efektiboagoak baino.

## Balio identitarioen eragina

Ezaugami horiek —lurraldean bizitzea, oroimen historikoa eta taldearekiko atxikipen borondatezkoa— ez dute gizabanakoengan indar eta modu berean eragin historiararen bilakaeran. Eta, ondorioz, unean uneko soluzioak lortu dituzte. Gaur egun, gizadiak duen eboluzio mailan, gure iritziz, ez gara behar bezalako soluzioetara iritsi pertsonak jokabide zuzena eta orekatua izan dezan identitate alorrean. Estamentu batzuek jokutzen segitzen dute gaindituak dauden egoeren arabera. Euren eragina zehaztuko dugu, sekuentzia metodologikoki hiru etapetan laburbilduz gaur eguneraino iritsi arte.

1. *Gizarte tradizional*ean lurraldetasunaren inguruabarra oro hartzailea zen. Kultura inguruko naturan zentratuta zegoen eta gizakiak natura ama zuen (ama-lurra) eta lurraldea ondare «komuna» zuen. Gizartea eratzen zen lu-

rralde hura aprobetxatzeko eta bere helburua zen gizabakoan eta giza taldearen bizitza kontserbatzea. Gizabakoak ez zuen ikasi behar bere herriaren kultura edukitzeko. Taldeak hura ematen baitzion haur ttiki-ttikia zenetik, eta, kulturarekin batera, baita hizkuntza, ohiturak eta bizibideak ere, haurren eskura zeudenak ondasun publikoen edo pribatuen bidez. Zatiketa hori argi dago Europan duela mende askotatik hona, baina ez horren argi munduko beste leku batzuetan.

2. *Gizarte modernoa* eratu zen XVI. mendeko merkantilismotik aurrera eta arestian aipatu dugun XVIII. mendeko iraultza frantsesetik aurrera. Bada, gizarte modemoan, kultura, esan dugun moduan, erlijiotik bereizi, bere baitan humanitateak, filosofia, zientziak eta arteak hartu, eta estatatu sortu berri zentralizatuak hasten dira egituratzen. Estatatu egitura horrek ezaugarri nagusi bat hartu zuen beste Estatuaren aurrean kanpora begira, hots, hizkuntza eta zuzenbide ofiziala. Barrura begira, egia da, beste hizkuntza edo eskubide batzuk toleratzen direla, erregional gisa, baina, sekula ez lerrun edo maila berarekin, jakina.

Natura, gero eta konpartimentatuagoa dagoen gizarte baten «*erabilpenerako eta ustiakuntzarako jabetza*» izatera pasatu zen. Orduan hasi zen kultura ofizialaren eta errealearen arteko bereizketa. Estatuaren erakundeei eta aginte taldeei interesatzen zaiena alde batetik, eta administraturiko giza taldeei interesatzen zaiena —bai talde sozialei, bai erregionalei—, bestetik. Kultura ofiziala derrigor ikasi behar da hezkuntzaren bidez eta organo publikoen funtzionamenduaren bidez.

3. *Eguno gizartean*, Estatuaren kultura ez da jada saibai administratiboa, mundializazioaren mende baitago. Dagoeneko, oso nabarmenak dira zentzugabeko eta neurritz kanpoko ustiakuntzak naturari eginiko txikizioak, eta natura erabiltzeak planeta osoari ukitzen diolako kontzientzia orokortu da kontzientzien mailan, nahiz-eta asko falta den ekintzetan benetan eraginkorra izan dadin. Garapenak espazioen birmoldaketa ekonomikoa, psikologikoa eta, azkenik, administratiboa ezartzen du. «*Batasun*» berriak eratzen ari dira, erabakigune eta lege berriak eta



guzti. Europako Batasuna giza taldeen artean gertatzen ari diren birmoldaketa bat da, bat gehiago, errealtatera moldatzeko saialdietan, gizakion bizitzak planetan dituen aukera berriez eratua (teknologia, informazioa, garaioa...). Estatuak eta nazioarteko erakundeek aintzat hartu behar dituzte Giza Eskubideen Adierazpenean bildutako eskubide indibidualak —adierazpen askatasuna, manifestazioa eta informazioa— baina ez da haien erabilpena bermatzen duen erakunde bakar bat ere. Eta ez zaie lege indarra ematen une honetan Estatua eratua ez duten herrien talde-eskubideei.

Hain zuzen ere, gaur egungo inguruabarrak oso ezberdinak direnez aurreko etapa historikoetan zeudenekin, gizabanakoek eta giza taldeek birmoldatu behar dute euren lurraldeen eta inguruabar historikoen kontsiderazio sozialari dagokionez, orain jada argudio sendoagoetan oinarrituz (sakontze kulturala), eta ez indarrean, bere ageripide guztiak barne. *Arazoimenaren indarra* erabili behar dugu, giza izaeran sakonduz, eta ez *indarraren arazoia*, gizakien kopuruak edo batzuen botereak erabilia beste batzuen borondatearen gainetik.

## *F*untzionamendu biologikoaren eta kulturalaren arteko ezberdintasunak

Nahiz-eta orain artean interesatu zaigun bizitza biologikoaren eta kulturalaren arteko paralelismoa, ezberdintasunak ere badira. Eta garrantzitsua da ezberdintasunak agerian uztea, batez ere horietako batzuek gure azterketari ere eragiten diotelako:

1. *Bilakaera biologikoaren erritmoa tempo geologikoaren mailan doa. Aldiz, kulturala argia baino azkarragoa da gaur egun.* Gure arbaso primateen maila genetikoak egungo gizabanakoarengan barne sarturik dauden bezala, XXI. mendeko eginkizunak betetzeko, gaur egungo giza taldeetan elkarekin ageri dira garai tradizionala, industrialala edo bertualeko kultura geruzak, bizitzak ez baitaki saltorik egiten, eboluzionatu egiten du. Baina geneetako mutazioek alda-

keta nabarmenik eskainiko badigute, gizabanako belaunaldi askoren sekuentzia behar da. Bilakaera kulturalen, aldaketa askoz ere azkarragoa izan daiteke. Aldaketa genetikoa ez da eboluzio bide bakarra, badira beste batzuk. Ez da beharrezkoa izan inolako mutazio genetikorik —adibidez, hegalak sortu—, gizakiak hegan egin ahal izan dezan. Brankiarik ere ez du sortu, itsas azpietan ibili ahal izateko. Teknologia ren bidea aski izan da. Eta bide hori argiaren abiadura hartzen ari da bere bilakaeran berean.

2. Izan ere, bilakaera biologikoaren funtsezko lege bat bertikaltasuna da, belaunaldiz belaunaldi transmitituz, gurasoengandik seme-alabengana. Aldiz, bilakaera kulturalen, nahiz-eta bertikaltasuna oso garrantzitsua izan den eta gaur egun ere baden, bereziki sentimenduen eta maitasunaren alderdian, transmisioa zeharkako bidez egiten da, eta, are gehiago, baita horizontalki ere, eta horrek kulturari ohi ez bezalako aukerak eskaintzen dizkio, hedatzeko. Egungo komunikabideak direla eta, *albistea planetako leku guztietan aldi berean aurkezteko* abiaduraz horniturik gaude. Albistea kultur prozesu bakoitzaren abiapuntua besterik ez da. Ernalketa eta garapena behar du. Baina aldi berean eriten ari denez, planetako telebista edo ordenagailu pantaila bakoitzean, *homek kulturari erregenerazioko abiadura izugarrizkoak dakarkio, orain artean pentsaezina*.

3. Gizatasunik gabeko globalizazio komunikatibo erasokorra bultzatzen ari direnek, aurrerapen teknologiko horietan eta beste batzuetan oinarriturik, uste dute giza garunak ezagutzak metatzen ahal dituela internetek ezagutzak zabaltzen dituen bezain erraz. Hori ez da horrela. Eta uste hori oso kaltegarria gertatzen ari zaio benetako kulturari, giza faktoreaz ahaztu direlako. Pertsonak eritimo biologikoaren arabera eboluzionatzen du, eta, soilik ailegatzeko zaizkion inpresioak aukeratzeko gaitasunari esker, ahalmena du probetxugarriak zaizkion datuak hautatzeko, datu jario ikaragarrien artean. Publizitatearen zaparradan ez da dena onuragarri oreka pertsonalarentzat, eta aukeraketak berak lan neketsua ekartzen dio gizakiari; hau da, zer hartu, zer utzi ibili behar du, komunikazioa gizabanakoaren onerako gerta dadin baino lehen.

Kultura, komunikazio tradizionalaren (pertsonek edo taldeen artekoa) geruza babesgarri gisa ulertuta, luzagarririk bezala agertu izan da muturreko mugetaraino, xafla elastikoa mugarik gabe luzatu ahal izanen balitz bezala «*globalizazioaren*» eskaintzaren neurrira. Hitz hori, *muga gabe puztu daitekeen puxika* batekin duen antzekotasunetik etorriko balitz bezala. Eraitza azalderia da, errorik eza eta euskarririk publizitario txikiagoko kulturen galera. Pertsonaren bizitza kulturalari dagokionez, estaldura horren handia ez denez, giza tamainakoa baizik, eta gizarte tradizionalako gure arbasoek jada zekiten bezala, burua mantarekin estali nahi izatekotan, oinak agerian utziko dituzu. Horrexegatik, sekula baino kontu handiago eduki behar dugu kultur elikagaiekin, haiek kontserbatu, jan eta digeritzeko moduekin, giza gorputzaren onerako izatea nahi badugu, bai gizabanakoari dagokionez, bai gizarteari dagokionez.

4. Giza «*dimentsioa*» *gizakiaren onuraren neurria*. Hautespenez naturala biologikoki inkontzientea da, baina kulturalki gizabanakoaren kontzientziaren mendean dago, eta, horrek, aldi berean, esana dugunez, daturik interesgarrienak hautatzen ditu bere bizitzarako. Gizabanakoak, denboran eta espazioan asimilatzeke duen gaitasunak hautespenez hori baldintzatzen du. Gizakiak muga gabe ikas dezake, baina ohartzen ez bada ere, jakintzaren beste alor batzuetako datuak metatu ahala, aldi berean beste ezagutza batzuk zokoratuz joanen da bere gogoan. Hori den-denok egiaztatu ahal izan dugu, denboraldi batez erabili ez ditugun ezagutzei doakienez.

Giza taldeei dagokienez, era berean argi dago ez dela aski atxikipen orria betetzea elkarte askoren jakinaren gainean egoteko eta beste kideak ezagutzeko. Bizi harremanik ez badago, gero eta gutxiago parte hartuko dugu haien jardueretan eta haiek guretan. Espazio-hurbilketa behar da. Horregatik ere, talde identitarioa denean, hurbiltasunaz gain, eragina ere badu taldekideen kopuruak, kasu honetan, nazioaren biztanle kopuruak. Ez da modu berean sentitzen nazio-ezaugarria estatu handi edo txikietan. Gutxiengoetan garrantzitsua da protagonismoa, gizabanako bakoitzaren parte-hartzea, talde txiki batean par-

taide izatearen ezaugarri marka, mundu hau gero eta homogeneoagoa eta globalizatuagoa denean. Horrek, pertsonari laguntzen dio bere burua garrantzitsutzat sentitzen, alderaketa inguru nea rekin egiten baita. Nazio handi baten partaide izateak erronka fiktizio bat ekar lezake, baina aztertzen denean zertan datzan antropologiaren balio errealetatik ikusita, gizabanakoa eta taldearen arteko lotura gero eta txikiagoa da taldea zenbat eta handiagoa izan, betiere taldearen erabakietan parte hartzeari begira.

Eta gai berari helduz boterearen gailurretik ikusita, begi-bistakoa ere bada boterea zenbat eta gehiago egon pertsona bakar baten borondatearen mendean, gizatasuna gero eta txikiagoa dela. Behin gizabanakoak gizartean eta naturan autodefentsarako boterea edukirik (naturan badirudi gaur egun ziurtatuta dagoela, egia ez bada ere), besteez a pribetxatzeko metatuko duen boterea, teoriarik argudiatu egiten dena guztientzako ona lortzeko bide gisa, gizatasunaren neurrira egina ez dagoen boterea da, antropologiaren ikuspegitik behintzat, eta, hobe esan, apuntatu behar ko litzateke pertsonaren «*zonean*», «*hartzekoan*» baino.

Modu berean, nazio batzuen esku dagoen neurritz gorako botereak arriskua ekartzen die beste askori. Botere hori ez baita guztien onerako erabiltzen, Handikien onerako baizik. Gizakiaren onerako ikuspegitik, ez da defendigarria eta arautu behar ko litzateke munduko per capita errentaren batez besteko maila... bi aldiz gehiago? bost aldiz gehiago? gainditu bezain laster. Ez naiz ausartzen proportzioak markatzera, kontua konplexuagoa delako beste aldagai batzuen arabera, baina egungo aldeak ikaragarriak dira eta, beraz, gizatasunaren ikuspegitik, lotsagarriak.

Azterketa honen bidez ikusi ahal izan dugu kontuan hartu behar dela bizitzako edozein gauza zein dimentsioekin agertzen den, ikusteko ea gizakiaren onerako edo txarrerako gertatzen ote den. Elikagaietan, dosia funtsezkoa da, guztiz erabakigarria. Ura behar-beharrezkoa da. Koñaka, ordea, ez. Baina, adibidez, arriskutsuagoa da neurritz gorako ur dosia hartzea, kopa bat koñak edatea baino. Hara, dirua, fama eta, argi dago, boterea ere onak dira, soilik gizabanakoak bere burua eta besteena administrat-

zen dakien neurrian, morrontzarik gabe. Gauza bera gertatzen da taldeen kasuan. Hau da, inor mendean hartu gabe eta inoren mendean sartu gabe. Bestela ez da neurrikoa. Boterea nazioartean kontrolatu beharko litzateke. Txiki askoren artean handi gutxi horiek kontrolatu beharko lituzkete. Besterik gabe, mundua hobea litzatekeelako guztientzat, eta horixe da kontua. Horregatik, hobe iruditzen zait Herrien Europa Estatuena baino. Hori, ordea, egin behar da egin behar denez, eta, aldiz, Estatuena egin ematen digute egoera horretan interes propioa babes-tua sentitzen dutenek.

## Nola egokitu giza taldea planetako egoera berrira?

Nire ustez, hori da benetako galdera, baina alderantziz egina. Baina, egia esan, horrela egiten digute eta hura erantzutea beste biderik ez dugu. Logikoena litzateke dend enok gure buruari galdetzea ea nola egokitu daitekeen planeta giza taldera. Horixe izan da, hain zuzen ere, buruzagi erlijioso guztien programa etiko eta moralerako abiapuntua. Baina frogatuta dago gizarte taldeen alderdi konfesionalari aitortutako balio politikoa gero eta gutxietsia goa dagoela, behintzat erakunde aholkulari gisa, eta hori horrela da. Ondorioz, erabakiak hartzerakoan, hobe dugu jarrera posible bakoitzaren ondorio errealetatik abiatu, errealtatearekin loturarik ez duten galderetan luze aritzea baino.

Erantzun egokia urgentziaz aurkitu beharra dago, da-goenekoz ondorioak oso larriak direlako ekologian (planeta osoan), ekonomian (Hirugarren Munduan, batez ere) eta gizartean (aurreapenaren eragileen muinean berean ere). Argi izan behar dugu gure jokabideen ondorioak hobeak edo txarragoak izanen direla gure izaera indibiduale-ra, sozialera eta ambientalera egokitzen dakigunaren araber, egokiera horretan helburu antropologikoa mantenduz: pertsonaren onerako jardun, gizabanakoa den aldetik eta talde batean partaide den aldetik.

Identitate sentimenduak, taldekideen elkartasun eta bizikidetzaren balioen aberasgarri gisa, indar itsasgarri handia duela aitorturik, aldi berean pertsonari kulturalki laguntza eta seguritatea historian eta munduan eskainiz, begi-bistakoa da interesatzen zaigula ohiturak eta zientzia soziala berritzeko gaitasun horretaz baliatzea, bizi diren espazioko giza talde autoktonoarekin identifikaturik sentitzen diren gizabanako guztiak lurraldean naturaltasunez integratzeko. Etorkinek eutsi diezaioke euren sorlekuarekiko loturari, kalte egin gabe integratzeak ekarritako onurei. Baina presentzia fisikoa giza bizitzaren konnotazio garrantzitsua da, luzera begira harrera taldean egokitzen saiatzeko modukoa.

Finkatzen saiatzen ari garen ordena logiko eta natural horrekin ez dator bat gizabanakoak edota etorkin taldeak prozesua alderantzikatu nahi izatea, hau da, bertakoak etorkinen taldera eta euren kulturara egokiarazten saiatzea. Maila intelektuala handiagoa izanik ere, argi dago ez dela bertako gizabanakoaren edo taldearen onerako ustezko nagusitasun horren ahalmenak erabili nahi izatea euren kultur koordinatuak inposatzeko. Bertakoek markatu behar dituzte beren interes ebolutiboak eta ez beste inork, eta kontrakoa oso argi dago naturaren aurkako prozesua dela. Baina eguneroko arriskua ez da horren gordin agertzen. Birus sozialek itxura aldatu eta estalki ez horren eskandalagarriak janzen dituzte, atzemanak diren bezain laster. Gripeareen birusen antzekoak dira. Izan ere, hura errefusatzeko txertoak asmatu ahala, birusak urtero aldatzen dira, gizakien bizkarroi izanik, bizirik iraun ahal izateko. Horregatik, deus gutxi balio digute garai batean berri-zaileak ziren eta zaharkiturik gelditzen ari diren lege eta kondenek, gaur egungo errealitateei aurre egiteko.

Adibidez, giza eskubideen terminologian, «*arrazakeria*» eta «*kolonialismo*» hitzek esanahi txarra dute, baina Europan ez dira gordin agertzen, eta horregatik estalian ageri dira. Nire iritziz, behingoan ekin behar zaio eta ez dugu inola ere gaitzaren leherketaren zain egon behar. Aski ongi dakigu nolakoak diren gaitzaren sustraiak eta badakigu errotik nola moztu, hazi eta garatu baino lehen. Era berean, gizakiaren etorkizuna zaintzeko, ez da aski

gaitza agertu ondoren sendatzearekin, eta aurrea hartu behar diogu. Are hobea: gorputzaren ongizatea landu behar dugu, gorputzak dituen defentsa biologikoak elikatu eta garatu behar dira bizitza osasungarria ren bidez. Hau da, gaitzari aurrea hartu behar zaio, gizarte gorputza modu osasungarrian landuz.

Era horretakoak dira Europako mahai gainean ditugun benetako galderak: herriak ezin duenean bere kultura eta autogobernua garatu kokatua dagoen Estatuak edo Estatuak eragozten diotelako, nola deitzen zaio horri? Zer jarrerara hartu behar dute nazioarteko erakundeek? Zeintzuk dira herri gisa heldutasunera iritsi nahi duten gizon-emakumeek erabil ditzaketan legezko bideak? Zeintzuk dira galzorian dagoen nortasuna berreskuratu nahian ari diren gizon-emakumeek erabil ditzaketan legezko bideak?

Nola susta ditzake antropologoak hezkuntza publikoa eta kontzientziaren piztuera, baldin eta ukazioaren eta kultur zentsuraren eredu sarkor eta tinkoaren eraginpean badaude.

Agian erantzun zehatzik gabeko auzi mota horiek dira, gizarte ardurak hartzen dituzten antropologo batzuei bederen, galderak egiten eta horiei erantzuten saiatzeko erantzukizun intelektuala sentiarazten dietenak. Hauek baitira abokatutzan eta gizarte aldaketa egitasmotarako aplikazioari, edo eta arretaz diseinatutako eta burututako ikerkuntzari heltzen diotenean, lagungarri izan ditzaketenak. (*Ethics and Anthropology*, 50. or.)

'Estatubarneko', 'estaturagabeko', 'estatu ez diren' herrietako, 'beste estaturagabeko' eragileek mundu mailan norbanakoaren eskubideak bortxatzeko duten inpunitateari aurre egiteko, *eskubide guztiak bermatuta - eragile guztiak erantzule kontuan hartuko duen politika ('all rights guaranteed - all actors accountable policy')* baten eske dabilta munduko abokatuak. (Ibid., 61. or.)

Nola defenditzen da herria, komunikabidearen soldatapean ari den edozein zutabegilek haren nortasun tradizionalaren kontrako kanpaina egiten duenean?

Badago premia, orobat, indarrean dagoen gizarte ordenarekiko *alternatiba bideragarri* bat irudikatzeko. Donald

Robotham antropologoak ireki duen bidetik, ezarritako konfigurazio politiko-ekonomikoari *teoriak* alternatiba bat proposatu beharko lioke, eta alternatiba horrek jendea mobilizatzeraz bultzatu beharko luke. (Ibid., 63. or.)

Nola uztartu antropologiatik begiratuta tokiko, estatuko edo Europako Batasuneko ikuspuntuak? Arazo horren aurrean, lehenbizikoari lehentasuna eman behar dio. Horri Robothamek «*the native poin of view*» (bertakoen ikuspuntua) deitzen dio (Ibid., 4. or.). Eta are gehiago, Estatuko edo Europako Batasuneko politikaren aurrean defenditu dezakegu beste bi mailen proposamenak ez direla onargarriak gizatasunaren ikuspegitik, tokiko edo bertako estamentua atxikitzen ez zaion bitartean. Arrazoa hau da: pertsonaren onerako (edo taldearen onerako), bere azalpena eta baieztapena da bide bakarra, ez dago beste biderik hura zein den jakiteko, eta, haien lurraldean, haiek baizik ez dezakete erabaki.

## Unescoren Adierazpen Unibertsala aniztasun kulturalaren gainean

Parisen, 2001eko azaroaren 2an eginiko bileran, Konferentzia Orokorraren 31. Bilkuran, han ordezkaturik zeuden munduko nazioek aho batez Adierazpen hau onetsi zuten, eta Adierazpen hori hari-harira datorkio egiten ari garen azterketa eta gogoetari.

*Berretsirik kultura*, gizarte baten edo giza talde baten ezau-garri espiritual eta materialen, intelektualen eta afektibo-en multzoa dela, eta, arteez eta letrez gain, bere barnean ere biltzen dituela bizimoduak, elkarrekin bizitzeko moldeak, balio sistemak, ohiturak eta sinismenak,

*Baieztaturik*, kultur aniztasuna errespetatzea, tolerantzia, elkarrizketa eta elkarlana, betiere elkarren arteko konfiantza eta ulermen giroan, nazioarteko bakearen eta segurtasunaren bermerik onenak direla,

*Helburu izanik*, gizakiaren batasunaren kontzientzian eta kultur harremanen garapenean oinarrituriko elkartasun handiagoa lortzea (...)



1. *Art. Kultur aniztasuna gizadiaren ondarea (...):* kultur aniztasuna hain beharrezkoa zaio gizakiari, nola aniztasun biologikoa beharrezkoa zaien izaki bizidunei. Alde horretatik, gizadiaren ondarea da eta aintzat hartu eta errotu behar da egungo eta etorkizuneko belaunaldien onerako.

3. *Art. Kultur aniztasunaren bidez, gizakiek aukera zabalagoa dute hautatzeko; garapen iturrietako bat da, baina ez soilik ekonomi hazkundeari begira, baizik eta ase egoteko moduko izate intelektualean, afektiboan, moralean eta espiritualean sartzeko bide gisa.*

(...)

4. *Art. Giza eskubideak kultur aniztasunaren berme gisa (...):* giza eskubideak eta funtsezko askatasunak errespetatzeko konpromisoa da, bereziki gutxiengoetan eta herri autoktonoetan partaide diren pertsonen eskubideak.

Denetara 12 artikulua dira, ildo beretik doazenak eta bukatzeko «*orientabide edo gomendio*» batzuk ere ageri dira:

Estatu Kideek konpromisoa hartzen dute neurri egokiak hartzeko (...) bereziki elkarlanean arituko dira ondoko helburu hauek lortzeari begira [9 ageri dira]:

4. Kultur edukien eskubideak sakonago ulertu eta argitu, giza eskubideak direnez gero.

5. Gizadiaren hizkuntz ondarea gorde eta, adierazpena, sormena eta hedapena sostengatu ahalik eta hizkuntza gehienetan.

6. Hizkuntz aniztasuna bultzatu —ama hizkuntza errespetatuz— hezkuntza maila guztietan, ahal den toki guztietan, eta eleaniztasunaren alde jokatu txiki-txikitandik.

## Ondorioak

Agian, Unescoren orientabide argitsuen bidez bukatu beharko nuen, nire gogoetek baino itzal handiagoa baitute eta espero dut eraginkorrakoak ere gertatzea. Alabaina, horrenbeste azterketa egin ondoren, azaldutakoa laburbildu beharko dut, ondorio praktikoaren bidez, behintzat.

1. *Identitateak eta ezberdintasunak Europan.* Ikusi dugun bezala, aintzat harturik bai batzuk bai besteak nortasunen aberastasunaren ezaugarriak direla, gizatasun abe-

rastasuna, historikoa eta gaur egungoa, ondorioa hauxe da: interesgarria da diren bezala mantendu behar direla taldeetan, betiere zonalde bakoitzeko gizabanakoak libreki atxikitzen zaizkionean (puntu hori berria da, proposamena da, dugun errealitatea baino aurreratuagoa). Kultura bat baino gehiagoko zonaldeetan, eta aintzat har daitekeenean gizabanakoak herri ezberdinekoak sentitzen direla «*haiei*» galdetzen zaienean, gizarte kulturantzaren formula Europako historiaren aukeren artean dago. Dena dela, eta hau ere berria da, herri autoktonoa da beste guztiengandiko errespetua merezia duena, bere kultura baitaigo garapen logikoa eta normala duen lurraldean, eta kultura hori gizateriaren ondasuna da beste guztiak bezala. Oro har, gainera, lurralde hori da, herri eta kultura gisa mantentzeko behar adinako masa kritikoa duen bakarra.

2. *Estatuen Europa eta Herrien Europa*. Antropologiaren ikuspegitik mintzatuta, estatuek ezer gutxi ekarri diote gizakiari. Estatuen administrazioa «*liberté, égalité, fraternité*» oinarritzko eskubideetan oinarritzen da, eta hasieran Frantzian, gillotinaren bidez, monarkiaren eta nobleen menderatzetik liberazio bat bezala interpretatu zituzten. Iraultzaren aspektu hori tristetzat jo dezakegu baina positiboa da. Baina zentralismo ukaldiz erabilitako «*égalité, fraternité*»-ak ez du Errepublika barneko herrien nortasuna errespetatzen, eta ez die kultura horiei garatzen laguntzen. Antzeko zerbait gertatu zen, ondoren, Estatu Batuetan. Ingalaterrako koroatik askatu, baina gelditzen ziren indigena gutxi horiek euren kulturetan bizi eta garatzeko aukera galdu dute eta guk guztiok ere kultura haiek zuten aberastasuna haiekin batera galdu ditugu.

Beraz, irudi du Estatuaren ereduak emantzipatzeko balio izan duela eta balio diezaiokeela ofizialki zonalde edo erregio hutsa kontsideratuta dagoenari, baldin eta indarrez menderatuta badago herritarren borondatearen aurka. Baina kultura bat baino gehiago zegoen tokian kultura ofiziala ezarri da, hizkuntza bat exijitu da Administrazio okupatzailearekin hitz egiteko. Bada, horrek eraginda, giza balioei dagokienez, muturreraino desitxuratu dira barnealdeko herrien balioak.

Ondorioz, giza zientziek ekartzen dizkiguten aukera berrian aurrean —gizakiaren funtzionamenduaren gakoa eta herrien eta pertsonen arteko bizikidetzan gertaturiko horrenbeste gatazka historikoen zergatia aurkituz—, begi-bistakoa dirudi saiatu behar dela arrazoimenari kasu egin eta lurraldea, kultura eta antolaketarako autonomia ematen ofizialki halakorik ez duten herriei. Prozesu horretan, natiboek lehentasuna izan behar dute euren lurraldearen gainean. Gizaki eta herri horien onerako baita, euren berezko lekuan.

Ez da inola ere erraza izanen, baina horixe da egin beharreko bidea Europan askatasuna eta elkarren arteko errespetua nahi izanez gero. Estatuak barneko herri eta kulturen ahotsei kasu egin behar diete, eta Batasunak, bere aldetik, prozesu bat bultzatu beharko luke herriek Europari atxiki-pen zuzena erakusteko (desiratzen ez dituzten estatuen eragina saihestuz) eta folklorizatzeko zorian dauden kultura historikoek euren giza balioak berreskura ditzaten; eta gauza jakina da folklorizatzearen ondotik heriotza datorrela.

3. *Europako nortasuna bai. Ez, ordea, Europako identitate.* Identitate hitza erabili izan dut herriek dituzten balioak, eta balioak bizitzeko moduak, biltzeko. Baina niri gustatzen zait eta aproposagoa iruditzen zait notasuna hitza, gizabanakoarentzat erabili dudana, baita kultur taldearentzat ere. Identitate hitza, latinez, berdina-tik dator. Klonen ideia ekartzen digu gogora. Ez da modu ezberdinean interpretaturiko balioen adierazle argia, hori izanik bioaniztasunari eta kultur ezberdintasunei aberastasuna ematen diena. Oso makina perfektuak fabrikatzen dira seriean, berdin-berdinak, baina ez dute bizirik. Izaki bizidunak ezberdinak dira. Biziak izakiari ematen baitio biziaren kodea beti modu originalean interpretatzeko kalitateak.

Europari dagokionean, Europako identitatea lortu nahi izatea litzateke estatuen formula berdintzailea dekretu bidez errepikatu nahi izatea, non menpekoek —ez bailirateke herritarrik izanen— ezin baitute ia deus ere erabaki eta are gutxiago esku hartu. Kulturaren aldetik, oso etorkizun etsigarria ekartzen digu gogora, egoera orwelldarrak, zeren eta estatu baten lurralde barneko nortasun galtzea


handia izan bada, hogei aldiz lurralde handiagoan, are handiagoa izanen da.

Aldiz, aintzat hartuz gero Europako herriok elkarren artean konnotazio historikoak, linguistikoak, sozialak eta ekonomikoak ditugula, eta gaur egun haiek garatu nahi ditugula, zenbaitetan baturik, beste zenbaitetan zein bere bidetik, aitaren agintea bilatzen ez duten familia kideen antzera, baizik eta kideen nortasunak garatzea helburu duena, ikuspegi erakargarria dirudi, gizatasunaren araberrako etorkizunari begira bai European bai munduan. ¶

---

### Bibliografia

- «Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala», *Hika* 71, 1996ko urria.
- Arraiza, Eugenio, «Europar kultura: egia ala gezurra», *Uztaro* 37, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 2001.
- Brossat, Caroline, *La culture européenne: définitions et enjeux*, Ed. Bruylant, Brusela, 1999.
- Ethics and Anthropology. Facing Future Issues in Human Biology, Globalism, and Cultural Property*, Annals of the New York Academy of Sciences, 925. liburukia, New York, 2000.
- Fanon, Frantz, *Les damnés de la terre*, Ed. La Découverte & Syros, Paris, 2002.
- Morin, Edgar, *L'humanité de l'humanité. L'identité humaine*, Ed. Seuil, Paris, 2001.
- Said, Edward W., *Culture and Imperialism*, Ed. A.A. Knopf, New York, 1993.
- Unity of knowledge. The convergence of natural and human science*, Annals of the New York Academy of Sciences, 935. liburukia, New York, 2001.
- Universal Declaration on Linguistic Rights*, Edició extraordinaria del butlletí *Mercator*, CIEMEN, Bartzelona, 1996.



# JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C  
20018 DONOSTIA  
Tel. 943.21.80.92  
Fax. 943.21.82.07  
[jakin@jakingunea.com](mailto:jakin@jakingunea.com)